

# ORBAIN KOLEKTIBOAK

Indarkeria matxisten  
erreparazio-esperientziei buruzko ikasketak



Argitaratzailea:



[www.mugarikgabe.org](http://www.mugarikgabe.org)



Mugarik Gabe



@mugarikgabe



@mugarikgabeongd

### ARABA

"Itziar" Elkarteen Etxea - Zalburu Plaza z/g, 01003 Vitoria-Gasteiz

945 277 385 – [araba@mugarikgabe.org](mailto:araba@mugarikgabe.org)

### BIZKAIA

Vicente Garamendi auzunea 5, behea, 48006 Bilbao

94 415 43 07 – [bilbao@mugarikgabe.org](mailto:bilbao@mugarikgabe.org)

### GIPUZKOA

Katalina Elizegi 46, behea, 4.atea, 20009 Donostia

943 445 977 – [gipuzkoa@mugarikgabe.org](mailto:gipuzkoa@mugarikgabe.org)

### Finantzaketa:



**Bizkaia**

enplegua, gizarte kohesioa eta  
berdintasuna sustatzen duela  
departamentu de empleo,  
cohesión social e igualdad



2025eko azaroa

**Maketazioa:** [Binari Comunicación](#)

**Ilustrazioak:** [Zoiartze Puente](#)



**Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionalela (CC BY-NC-ND 4.0)** Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

**Lizentzia osatua:** [http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es\\_](http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_)

# ORBAIN KOLEKTIBOAK

**Indarkeria matxisten erreparazio-esperientziei  
buruzko ikasketak**

# AURKIBIDEA

---

|                                                                             |    |
|-----------------------------------------------------------------------------|----|
| <b>SARRERA</b>                                                              | 6  |
| <b>IKUSPEGIAK ETA METODOLOGIA</b>                                           | 9  |
| <b>IKUSPEGIAK</b>                                                           | 11 |
| 1. INTERSEKZIONALITATEA                                                     | 11 |
| 2. FEMINISMOA ETA INDARKERIA MATXISTAK                                      | 11 |
| 3. GIZA ESKUBIDEAK ETA ERREPARAZIORAKO ESKUBIDEA                            | 12 |
| 4. SUBJEKTUEN KONTZEPTUALIZAZIOA                                            | 13 |
| <b>METODOLOGIA</b>                                                          | 14 |
| 1. ELKARRIZKETEN EDUKIAK                                                    | 14 |
| 2. DOKUMENTATUTAKO ESPERIENTZIAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK                      | 15 |
| <b>DOKUMENTATUTAKO ESPERIENTZIAK</b>                                        | 17 |
| <b>ANDOAIN: ERREPARAZIO IKUSPEGIA UDAL ERAKUNDE BATETIK</b>                 | 19 |
| 1. ESPERIENTZIA TESTUINGURUAN KOKATZEKO                                     | 20 |
| 1.1. Dokumentazio prozesua                                                  | 21 |
| 2. IKASKETAK ETA ERAGINAK                                                   | 21 |
| 2.1. Ikuspegiaren eboluzioa                                                 | 21 |
| 2.2. Biktima erdigunean                                                     | 24 |
| 2.3. Baliabide eta laguntza espezializatua                                  | 25 |
| 2.4. Biktimaren rola: erabiltzaile izatetik eskubide-subjektu izatera       | 26 |
| 2.5. Elkarlana, oraindik jorratu gabeko gaia                                | 27 |
| <b>AKONPAINAMENDU SOZIALA ERREPARAZIORA BIDERATUTA</b>                      | 29 |
| 1. ESPERIENTZIA TESTUINGURUAN KOKATZEKO                                     | 31 |
| 1.1. Erreparazio prozesua eta inplikaturako eragileak                       | 31 |
| 1.2. Dokumentazio prozesua                                                  | 32 |
| 2. IKASKETAK                                                                | 32 |
| 2.1. Akonpainamendua                                                        | 32 |
| 2.2. Kanpo laguntzak atzeraelikaduraren garrantzia                          | 34 |
| 2.3. Antipunitibismoa eta erreparazioa                                      | 35 |
| 2.4. Erreparazio neurriak eraikitzea. Fokua gizonetik emakumera pasatzen da | 37 |
| 2.5. Prozesuaren eta emozioen zaintza                                       | 40 |

|                                                                               |    |
|-------------------------------------------------------------------------------|----|
| 2.6. Mugak                                                                    | 42 |
| 2.7. Itxiera                                                                  | 43 |
| <b>3. ERAGINAK</b>                                                            | 44 |
| 3.1. Emakumeen izandako eraginak                                              | 44 |
| 3.2. Gizonean izandako eraginak                                               | 44 |
| 3.3. Laguntza-taldeetan izandako eraginak                                     | 45 |
| 3.4. Komunitatean izandako eraginak                                           | 46 |
| <b>KINSTUGI: BIZIRAULEEN AKONPAINAMENDU KOLEKTIBOA</b>                        | 47 |
| <b>1. KASUA TESTUINGURUAN KOKATZEKO</b>                                       | 49 |
| 1.1. Erreparazio prozesua eta inplikaturako eragileak                         | 49 |
| 1.2. Dokumentazio prozesua                                                    | 50 |
| <b>2. IKASKUNTZAK</b>                                                         | 51 |
| 2.1. Parte-hartzea eta entzutea                                               | 51 |
| 2.2. Zailtasunei heldu                                                        | 53 |
| 2.3. Helburuak eta kontzeptuak argi                                           | 54 |
| 2.4. Akonpainamendua bizirauleak protagonista izanik                          | 56 |
| 2.5. Erreparazio eskaeren eraikuntza                                          | 58 |
| 2.6. Indibidualetik kolektibora                                               | 61 |
| 2.7. Nola ekitearen garrantzia                                                | 63 |
| <b>3. ERAGINAK</b>                                                            | 64 |
| 3.1. Eraginak bizirauleengan                                                  | 64 |
| 3.2. Eraginak bizirauleen eta akonpainamendua egin zutenen kolektiboengan     | 66 |
| 3.3. Eraginak komunitatean                                                    | 67 |
| <b>MANUELA EL SALVADORKO ESTATUARI AURRE EGITEN</b>                           | 69 |
| <b>1. ESPERIENTZIA TESTUINGURUAN KOKATZEKO</b>                                | 71 |
| 1.1. Manuelak bizi zuena                                                      | 71 |
| 1.2. Erreparazio prozesua                                                     | 72 |
| 1.3. Dokumentazio prozesua                                                    | 73 |
| <b>2. IKASKUNTZAK ETA ERAGINAK</b>                                            | 73 |
| 2.1. Familiaren akonpainamendua                                               | 74 |
| 2.2. Estrategia juridikoa, epaia eta eraginak                                 | 77 |
| 2.3. Komunikazio estrategia                                                   | 83 |
| 2.4. Aliantza eta intzidentzia estrategia                                     | 85 |
| 2.5. Egindako lana komunitateekin, eskualde desberdinekin eta eragin sozialak | 85 |
| 2.6. Erakunde bultzatzaileengan eraginak                                      | 88 |
| 2.7. Epaia inplementazioaren jarraipena                                       | 90 |
| <b>ONDORIOAK</b>                                                              | 93 |

# SARRERA

---

*Inor bakarrik ez ibiltzeko konpromisoa.  
Aurrera goaz eta lehentasuna da.  
Nire laguna zara (baina baita) hortik haratago zerbait ere badago.  
(Akonpainamendu soziala erreparazioa bideratuta)*

Ikerketa hau indarkeria matxisten lau erreparazio-esperientziaren azterketaren emaitza da, eta horietatik gogoeta egitea, ikastea, gizarteratzea eta inspiratzea du helburu, bai gizarte zibil antolatutik zein instituzioetatik prozesu berriak abian jar ditzagun.

Elkarren artean zerikusirik ez duten esperientziak aztertzeko erronka hartu dugu, erreparazio-prozesuei ekiteko moduak ezagutzeko eta horien guztien ikaskuntzak sortzeko.

Lan hau aurrera eramateko, ezinbestekoa izan da beraiekin egoteko aukera eman diguten pertsona guztien parte-hartzea; elkarrizketatu eta euren bizipenak, ikuspegiak eta esperientziak partekatu dizkigute. Pertsona hauek ikerketa aurrera eramaten lagundu digute eta, horregatik, haien ahalegina, irekitasuna, testigantza, denbora eta askoz gehiago eskertu nahi diegu.

Gainera, eskerrak eman nahi dizkiegu hainbat pertsona, kolektibo eta eragileri, ikerketa honen aurreko ibilbidean zein ikerketaren bidean dokumentuz, hitzaldiz, jardunaldiz, tailerrez, praktikez, hausnarketez, elkarrizketez, eztabaidez... hornitu gaituztelako. Egia, Justizia eta Erreparazio prozesuak nola ulertzen ditugun aztertzen jarraitzeko, azken honetan, erreparazioan hain zuzen, arreta jarritz. Berretsi nahi dugu Mugarik Gabe eraikitzen darraigula, eta, beraz, urte batzuk barru hemen azaltzen dugunari ñabardura berriak ematea espero dugu.

Bestalde, hemen aurkezten dugun ikerketak bere mugak izan dituela agerian utzi nahi dugu, ezin izan diogu nahi genuen guztiari heldu denbora nahikorik ez izateagatik, nahi genituen ahots guztiak ez jasotzeagatik eta erakundearen beraren gaitasunengatik. Hala ere, ikerketa hau indarkeria matxisten erreparazio eskubideari ekarpena egiten dion beste ekimen bat bezala ulertzen dugu.



Urtebetez, hainbat erreparazio-esperientzia ezagutu ditugu, sakon dokumentatzeko. Prozesuari berari buruzko ikaskuntzak jaso ditugu eta baita prozesu hauek indarkeria bizi izan dutenengan, indarkeria burutu dutenengan, prozesuren akonpainamendua egin dutenengan eta haien komunitateetan izan dituzten eraginei buruzkoak ere.

Hurrengo orrialdeetan, lehenik eta behin, ikerketa hau gidatu duten ikuspegiak eta lan-metodologia aurkituko dituzu; Mugarik Gabek aurreko ikerketetan egindako ildoen apustuarekin jarraituz, horietako batzuetan sakonduz.

Bigarrenik, aztertutako esperientzia bakoitzeko kapitulu bat jaso dugu. Horietako bakoitzean, kasuaren testuingurua zehazten da, bizitako indarkeria labur azalduz, egindako erreparazio-prozesua eta bildutako eta aztertutako dokumentazioa. Ondoren, prozesuaren ikaskuntzei eta eraginei buruzko azterketa sakona egiten da, alderdi hori azpimarratu nahi baikenuen. Aipatzekoa da horietako kapitulu bakoitza esperientziak berak bezain anitza dela. Hau erabaki kontzientea izan da, bakoitzari balio propioa eman nahi izan zaiolako. Dokumentatutako esperientziak hauek dira:

- Andoain: erreparazio ikuspegia udal erakunde batetik
- Akonpainamendu soziala erreparaziora bideratuta
- Kintsugi: bizirauleen akonpainamendu kolektiboa
- Manuela El Salvadorko Estatuari aurre egiten

Azkenik, ondorio orokorren azken atala jaso dugu, indarkeria matxisten erreparazio eskubidea praktikatzen eta sakontzen jarraitzea gonbidatzen gaituzten hausnarketa zabal gisa.



# IKUSPEGIAK ETA METODOLOGIA





## IKUSPEGIAK

Gure ikerketa gidatu duten lan-ikuspegiak, aurreko ikerketetan<sup>1</sup> bezala, feminismoa, giza eskubideen esparrua eta interseksionalitatea izan dira.

### 1. INTERSEKZIONALITATEA

Gure ikerketetan txertatzen dugun ikuspegi hau errealitateak beren konplexutasun osoan aztertzeke beharretik abiatzen da; izan ere, fenomeno sozialak kolektiboki eraikitzen dira eta elkarrekin lotuta daude. Egungo sisteman zapalkuntza-egitura desberdinak daude (patriarkatua, kapitalismoa, arrazakeria, transfobia...), eta horiek subjektuak eta prozesuak zeharkatzen dituzte, baita egiten ditugun analisiak ere. Errealitatearen begirada konplexuagoa eta osoagoa da, eta gure botere-tokitik jakin badakigu, arlo honetan mugak eta bide luzea dugula egiteko.

### 2. FEMINISMOA ETA INDARKERIA MATXISTAK

Feminismoa da, gorputz teoriko eta mugimendu politiko askotarikoa den aldetik, gure lan guztia elikatzen duen iturri nagusia da, eta zehazki, indarkeria matxistak jorratzen ditugunean, indarkeria hauek horiek hainbat eragile, eremu eta erakunderi dagokien arazo sozial eta politiko gisa kokatu baititu.

Ikerketa honetan, gure estrategian<sup>2</sup> zehar bezala, indarkeria matxistei buruz hitz egiten dugu, modu zabalean ulertuz eta hainbat eremutan gertatzen diren eta hainbat eragilek gauzatzen dituzten indarkeria-motak barne hartuz. Terminoa pluralean erabiltzen dugu indarkeriaren adierazpenen aniztasuna agerian jartzeko, adierazpen sotilenetatik bortitzenetaraino. Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak<sup>3</sup> jasotzen duen deskribapena erreferentziazat hartuta, honela definitzen dugu: *"Indarkeria matxistak giza eskubideen urraketa bat dira, bizitzako eremu guztietan emakume izate hutsagatik, nagusiki emakumeei eragiten dien genero-desberdinkeriaaren adierazpenik larriena da, baina, era berean, sexu-generoa-sexualitate sistema menderatzailearen aginduak hausten dituzten pertsonen aurka ere egiten du, sistemak erro bera baitu: matxismoa"*<sup>4</sup>.

1 "Asfalto arteko loreak. Indarkeria matxisten kausak eta eraginak biziraun duten emakume biktimen bizitzetan" (2017) eskutragarri [www.mugarikgabe.org/wp-content/uploads/2019/03/Asfalto-arteko-loreak.pdf](http://www.mugarikgabe.org/wp-content/uploads/2019/03/Asfalto-arteko-loreak.pdf) eta "Bizitzeko eta eusteko korapilatuak" (2021) eskutragarri <https://violenciasmachistas.mugarikgabe.org/wp-content/uploads/2023/01/Bizitzeko-eta-eusteko.pdf>

2 <https://violenciasmachistas.mugarikgabe.org/eu/azala/>

3 Gipuzkoako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2/2015 Foru Araua. V.kapitulua, 51.1 artikulua, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko 10/2022 Lege Organikoaren arabera aldaketekin.

4 Matxismoak askotariko genero-identitateetan eragiten duela deritzogu. Testuan zehar, identitateak protagonistek adierazi dituzten bezala izendatu ditugu.



### 3. GIZA ESKUBIDEAK ETA ERREPARAZIORAKO ESKUBIDEA

Esan bezala, indarkeria matxistak beren forma anitzetan, giza eskubideen urraketa estruktural eta iraunkorra dira, gizarte guztietan zabalduena eta zigorgabetasun-maila handiena duena. Indarkeria matxistak esparru horretan kokatzen ditugunean, bere izaera kolektiboa eta politikoa ikusarazten lagundu nahi dugu, baita erantzukizunak adierazi eta Estatuak eremu horretan nazioarteko zuzenbideko itunak sinatzean hartutako betebeharrak eta eginkizunetara jo ere. Estatuaren betebeharrak horiek emakumeen eskubideak errespetatu eta babesteaz gain, eskubide horiek baliatzea errazteko neurri positiboak hartu behar dira.

Nazioarteko arau-esparruak erreferentziatzen hartzen baditugu, erreparaziorako eskubideak Estatuak giza eskubideen urraketek eragindako kalteak maila indibidualean zein estrukturalan zuzentzeko hartu behar dituzten neurriak erreferentzia egiten dituen elementu guztietan: kalte-ordaina/konpentsazioa, lehengoratzeko eta birgaitzeko, gogobetetzeko eta ez errepikatzeko bermeak. Guk, osagai hauei kontuak ematea gehituko genieke, elementu honek berebiziko garrantzia hartzen du indarkeria instituzionalaren kasuetan, erreparatzeko zer ekintza abiarazi diren adieraztean, gertatu diren akatsak eta absentiak aitortuz.

Nazioarteko zein estatuko arau-esparruetatik harago, tokiko administrazio askok indarkeria matxisten erreparaziorako eskubidea jaso dute hainbat arauditan. Euskadiren kasuan, indarkeria matxistei buruz indarrean dagoen araudiak erreparaziorako<sup>5</sup> eskubidea jasotzen du, eta honela definitzen du: “ekintzak dagozkien arau eta jarduketan bidez garatuko dira, eta horiek egiteko, biktimei entzun eta protagonismoa emango zaie, bereziki, egokitzen dituzten erreparazio-bideak identifikatzeko”. Hala ere, errealitatea da ez dela horrela gauzatzen ari.

Era berean, instituzioetatik at, gizarte-kolektiboetatik eta gizarte zibileko erakundeak erreparazioa beren protokolo eta/edo ekintzetan txertatzen ari dira. Alde batetik, erantzun instituzional eta judizialik ez izateagatik. Eta, bestetik, indarkeria matxisten aurrean duten erantzukizun kolektiboa eta eraldaketarako duten agentzia-gaitasuna aintzat hartuta (instituzioei exijitzea alde batera utzi gabe).

Horregatik, ikerketa honetan ez gara ibilbide instituzionala eta/edo juridikoa duten esperientzietan soilik oinarritu, erreparazioan arreta jartzen duten askotariko esperientziak aukeratu ditugu, ibilbide judiziala izan ala ez.

Azken boladan, gero eta ohikoagoak dira hainbat eragileren aldetik erreparazioa erdigunean, eta ez zigorra, duten justizia egiteko beste modu batzuei buruzko esperientziak eta hausnarketak. Nagusi den ereduak ez da baliozkoa izaten ari, eta bizirauleak ere birbiktimizatzen ditu; horregatik, fokua aldatzea beharrezkoa da, prozesu osoa berrikustea, bizirauleen konplizitatearekin, indarkeriak berriro gerta ez daitezen.

Aztertutako esperientzietan, prozesuak eta garatu diren ikuspegiak edo esparruak oso desberdinak dira. Apustu desberdinak onartzen ditugu gai hauei dagokienez: instituzio eta komunitatearen lanketa, subjektuen parte-hartzea, ibilbide judizialak eta zigorren aurkakoak, baita garatutako testuinguru soziopolitikoak ere.

5 61. art. Erreparaziorako eskubidea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko martxoaren 3ko 1/2022 Legea.



Zehazki, subjektuen parte-hartzeari eta rolen definizioari buruzko alderdi bat aipatu nahi dugu; izan ere, esperientzia bakoitzean termino desberdinak erabili dituzte (biktima-biziraulea/erasotzaile-biktimarioa, eraso jasan duena/erasoa burutu duena), eta termino horietako bakoitzean ikuspegi zehatzak azaltzen dituzte.

#### 4. SUBJEKTUEN KONTZEPTUALIZAZIOA

Hurrengo orrialdeetan kontzeptu hauek erabiltzen dira: biktima, biziraulea, kaltea jasan duena edo eraso bizi izan duena, erasotzailea edo indarkeria burutu duena.

Ikerketan zehar hainbat kontzeptu erabili ditugu, aztertutako esperientzietan horiei ematen zieten erabilera errespetatuz eta ulertuz kontzeptu horiek lotura zuzena dutela ikuspegiekin indarkeria matxistak edota erreparazio-eskubidea ulertzeko orduan.

Esparru horretan, hausnarketa interesgarriak sortu dira izendatzeko moduari buruz. Kontzeptu biziak direla deritzogu, ikuspegiei eta horiek praktikan duten aplikazioari buruzko eztabaidaren parte. Kasu askotan, gizartean zabalduen dagoen terminologia erabiltzen dugu, eta esperientziek eta hausnarketek kontzeptuak birdefinitzeko beharra eragiten digute.

Termino bakoitza sakon aztertuko ez badugu ere, horien zertzelada batzuk deskribatu nahi ditugu.

“Biktima/erasotzailea” kontzeptuetan, arreta jartzen da eskubideak urratu zaizkion biktima bat dagoela eta erreparatu egin behar dela. Era berean, kontzeptualizazio horretan, indarkeria hori eragiten duen subjektu bat dagoela zehazten da, erasotzailea. Ikuspegi horretatik, erasotzaile baten erantzukizuna dagoela interpretatzen da; biktima egoteko, biktimarioa egon behar du. Termino hauek eskubide nazionalen eta nazioartekoen tresnetan zein tokiko araudietan erabili ohi da, kaltea jasan duenari erreferentzia egiteko termino juridikoa baita. Gehiago azpimarratzen du delitua bera, eta ez hainbeste delitua jasaten duenaren bizi-prozesua.

“Biziraulea” erabiltzen dutenek indarkeriari aurre egin dionaren agentzia nabarmentzen dute, biktima izatetik biziraule izatera igarotzen diren subjektu aktiboak; besteak beste, erreuperatzeko, ahalduntzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna... nabarmentzen dute. Termino hori erabiltzen da, halaber, biktimen iruditeriari kontrajarrita, hala nola babesgabeak, pasiboak, ahulak eta agentziarik edo ekintza-gaitasunik gabeak.

“Kaltea jasan duen pertsona” eta “eragin duena” bezalako definizioen kasuan, ikuspegia da ez direla interpretatzen eraldatzeko gaitasunik ez duten subjektu estanko gisa, alderantziz baizik. Erasoaz haratago, pertsonarengan eta aldaketak sortzeko aukeran jartzen du enfasia, indarkeria-egitate batengatik ez du zertan rol edo nortasun estanko batekin betiko zehaztuta egon behar. Lan egin ezker, eraldatzeko gaitasuna dagoela ulertzen da. Egungo ereduari alternatibak bilatzen eta prozesuaren subjektu aktiboak garen beste justizia bat praktikatzan saiatzen da,, erantzukizun kolektiboarekin eta begirada eraldatzailearekin.

# METODOLOGIA

Ikerketaren helburua egindako erreparazio-esperientziak sakon ezagutzea da eta, beraz, metodologia kualitatiboa erabili da. Metodologia eraikitzean, besteak beste, justiziari edo erreparazioari buruzko kontzeptu eta teoriari buruzko gogoetak partekatzeko espazioetan dokumentatu eta parte-hartu dugu. Gogoeta hauek ikerketarako tresna metodologikoak eraikitzen lagundu digute. Zehazki, kasu bakoitzean erabilitako tresnak esperientzien azterketa dokumentala eta banakako zein taldeko elkarrizketa sakonak izan dira.

Dokumentazio-prozesuan, parte-hartu duten, hitza oparitu diguten eta gorputzak bertan jarri dizkiguten pertsona guztiekin ardura handiz ibili nahi izan dugu. Lekukotasuna eman zutenak espazio atseginagoetan egon zitezen, ahalik eta gehien egokitzen saiatu gara; adibidez, proposatu dizkiguten leku edo espazioetara hurreratu gara hurbilago sentitzeko. Nahi izan duten kasuetan, elkarrizketetan akonpainamenduarekin egon dira, beren esperientziaren kapitulua itzuli diegu, zerbait aldatu nahi bazuten hala egiteko eta ikerketan nola izendatu eta ikusaraziak izan nahi zituzten erabakitzeke. Ziur asko, ikerketari ekin diogun moduan gai asko hobetu behar dira, jakin dugun eta egoerak utzi dugun modurik onenean egin dugu. Baita alderdi honi arreta jarri behar zaiola eta horretan lan egin behar dela deritzogu: asko dugu ikasteko.

## 1. ELKARRIZKETEN EDUKIAK

Elkarrizketen gidoi komun bat erabili dugu guztientzat, baina esperientzia bakoitzerako banakatu dugu, oso elementu desberdinak baitzituzten, eta horietan guztietan azterketa bateraturako ezinbestekoak diren alderdiak jaso ditugu, esperientzia bakoitzaren espezifikotasuna ez galtzeko.

Oinarritzko gidoian jaso diren elementu komunak honako hauek izan dira:

- Testuingurua: esperientziaren deskribapena
- Helburuak, garatutako prozesuaren prozedura
- Lantzeko/abian jartzeko erabakiak hartzea
- Parte-hartzen duen subjektu/eragile bakoitzaren rola: itxaropenak, parte-hartzeko eta erabakiak hartzeko moduak
- Mugarriak
- Egindako/garatutako erreparazio-eskaerak
- Zailtasunak/erresistentziak eta horiei aurre egitea
- Aldaketak bidean
- Prozesuaren amaiera
- Ebaluazioa
- Erreparazio-esparrua: teoriak edo eskubide hau ulertzeko moduak



- Prozesuaren eraginak eta emaitzak subjektu/eragile parte-hartzaileengan
- Prozesuaren eraginak eta emaitzak arau-aldaketetan, protokoloetan... berriz ez gertatzeko bermeetarako
- Prozesuaren ikaskuntzak: alderdi positiboak eta negatiboak

## **2. DOKUMENTATUTAKO ESPERIENTZIAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK**

4 esperientzia dokumentatu dira, elkarren artean oso desberdinak; izan ere, hainbat testuingurutan eta erreparazio-prozesuetan askotariko testuinguru, ikuspegi, eragile... kontuan hartu beharreko ikaskuntzak eman diezazkiguketuen adibideak jaso nahi genituen.

Lehenik eta behin, dokumentaziorako, ezinbestekotzat jo dugu parte-hartzaileek beren lekukotasuna emateko eta ikerketan parte hartzeko prest egotea, bai erreparazio-prozesuari dagokionez sentitzen diren moduagatik, beste egoera pertsonal batzuentzat, baita horretarako denboren eskuragarritasunagatik ere.

Gainera, hauek hautatzeko hainbat irizpide hartu ditugu kontuan:

- Batzuek bizitza judiziala izan dute eta beste batzuek ez.
- Batzuk gizarte-eragileen akonpainamendua izan dute eta beste batzuk instituzio publikoena.
- Testuinguru eta leku desberdinetan garatzea.
- Indarkeria matxista mota desberdinak lantzea.





# DOKUMENTATUTAKO ESPERIENTZIAK





The background is a solid teal color with a fine, woven texture. A prominent diagonal crease or fold runs from the top right towards the bottom left, creating a sense of depth and movement. The lighting appears to come from the top left, casting soft shadows along the crease.

# **ANDOAIN: ERREPARAZIO IKUSPEGIA UDAL ERAKUNDE BATETIK**

# ANDOAIN: ERREPARAZIO IKUSPEGIA UDAL ERAKUNDE BATETIK

## 1. ESPERIENTZIA TESTUINGURUAN KOKATZEKO

2017az geroztik, Andoaingo Udalak, 14.500 biztanle inguru dituen udalerrri gipuzkoarrak, indarkeria matxistaren eta biktimen arretaren inguruko politika espezifikoak ezarri ditu, erreparazioaren ikuspegitik.

Istanbulgo Hitzarmenaren onarpenaren ondorioz, Berdinsareak<sup>1</sup> erreparazioari buruzko hausnarketa-prozesu bat jarri du abian, eta bertan planteatzen da zer gai landu ditzaketen udalerrietatik, indarkeria matxisten biktimei erreparazioa bermatzeko betebeharra duen erakundea den aldetik. Berdinsarearen gune honetan Andoaingo berdintasun teknikariak parte hartzen du, hausnarketa hauek jaso, bere herrira ekarri eta berdintasun arlotik indarkeria matxistei buruzko lan ikuspegi bezala erreparazioa integratzea bultzatzen du. Horretarako, prozesu bati ekin zaio, eta hainbat ekintza hartu ditu barnean. Hauek dira garrantzitsuenak:

- Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko udalerriko egoeraren diagnostikoa;
- Erakunde arteko jarduera- eta koordinazio-protokoloa indarkeria matxistaren biktima izan eta hortik atera direnei arreta emateko.
- “Biktimak artatu erreparazioaren ikuspegitik” jardunaldiak;
- Indarkeria matxistaren biktima izan eta hortik atera direnei arreta emateko akordio politikoa.
- Emakume biktimekin lan egiten duten politikariak eta teknikariak koordinatzea eta prestatzea (udaltzaingoa, Osakidetza<sup>2</sup>, gizarte-zerbitzuak, berdintasun-zerbitzua...);
- Indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeen datuen urteroko txostena;
- “Taupada” laguntza zerbitzua;
- “Que se entere todo el mundo”, indarkeria matxista kasuen aurrean ingurunearen erantzunen gaineko ikerketa;
- Indarkeria matxista kasuetarako erantzun publiko instituzionalerako protokoloa.

<sup>1</sup> Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako euskal udalerrien sarea.

<sup>2</sup> Osasun publikoaren euskal zerbitzua.



## 1.1. DOKUMENTAZIO PROZESUA

Dokumentazio prozesurako hurrengo elkarriketak burutu dira:

- Berdintasun teknikaria.
- Taldean: 6 gizarte-langile.
- Taldean: 2 berdintasun zinegotzi; oraingoa eta prozesu hasieran zegoena.

Eta hurrengo dokumentuak aztertu dira:

- Emakumeen aurkako indarkeria matxista. Andoaingo egoeraren diagnostikoa (2018).
- Indarkeria matxistaren biktimei eta biziraun dutenei arreta emateko erakundeen arteko jarduera eta koordinazio protokoloa (2019)<sup>3</sup>.
- Indarkeria matxistaren biktimei eta biziraun dutenei arreta emateko akordio politikoa<sup>4</sup> (2019);
- Andoaingo Udaletxea Datuen Txostena 2024 Indarkeria matxistaren emakume biktimak.
- “Taupada<sup>5</sup>” laguntza zerbitzua eta bere diptikoa.
- “Que se entere todo el mundo”, ikerketa honetan indarkeria matxista kasuen aurrean inguruneak emandako erantzunen gaineko analisi kualitatiboa egin da<sup>6</sup> (2022).
- Indarkeria matxista kasuetarako erantzun publiko instituzionalerako protokoloa (2025)<sup>7</sup>.

## 2. IKASKETAK ETA ERAGINAK

### 2.1. IKUSPEGIAREN EBOLUZIOA

Andoaingo esperientzia indarkeria matxistei aurre egiteko erreparazioaren ikuspegia txertatzeko prozesu instituzionala da. Udallerriak eskaintzen dituen indarkeria matxistarekin lotutako zerbitzu guztien funtzionamenduan ekintza espezifiko eta osagarriak egiten 7 urte daramatza.

Prozesu horrek aurrera jarraitzen badu ere, eta oraindik bidea egiteko baduen arren, oro har, lortu da **udal mailako ikuspegia aldatzea** eta mantentzea, urte hauetan berdintasun

<sup>3</sup> <https://www.andoain.eus/documents/131314/8129884/Andoaingo+Protokoloa+EUSK+2019+otsail.pdf/680b2a45-2312-d33d-d4c2-c25619a6162e>

<sup>4</sup> <https://www.andoain.eus/documents/131314/8129884/Akordio+Politikoa+Andoain+2019.pdf/faa23e47-cba4-692b-e2b9-96726e0cdb8a>

<sup>5</sup> <https://www.andoain.eus/eu/taupada>

<sup>6</sup> [https://www.andoain.eus/documents/131314/8129884/QUE+SE+ENTERE+...\\_euskaraz\\_osoa.pdf](https://www.andoain.eus/documents/131314/8129884/QUE+SE+ENTERE+..._euskaraz_osoa.pdf)

<sup>7</sup> [https://www.andoain.eus/documents/131314/10070561/ERANTZUN+PUBLIKO+PROTOKOL\\_2025.pdf](https://www.andoain.eus/documents/131314/10070561/ERANTZUN+PUBLIKO+PROTOKOL_2025.pdf)



zinegotzigoan egon diren talde politikoa edozein izanda ere, baita inplikaturako eragile guztiekiko zeharkakoa izatea ere, ikuspegi bera izanik.

*"Egia esan, ez zegoen erreparazio-eskaerarik, ez eta horrek hor egon behar zuela pentsatzeko ikuspegiak ere; izan ere, indarkeria matxistari arreta emateko ikuspegiaren abiapuntua zen emakumeak zerbitzuak jasotzen dituzten erabiltzailetzat hartzea, eta ez hainbeste eskubide horiek berreskuratu, landu edo berreraiki behar dituzten eskubide-subjektutzat" (berdintasun-teknikaria).*

*"Orain erreparazioa ardura eta eskubide publikoa da. Oinarrizko marko, dokumentu eta konpromiso bat dago" (gizarte langileen taldea).*

*"Edukietan, definizioetan, ikuspegiak sakontzeko beharra zegoen; izan ere, askotan, herrietan horrelako egoerak gertatzen direnean, ez dago landutako ikuspegiak, eta, orduan, emakumeak dira sufritzen dutenak, (...), horregatik, oso garrantzitsua zen guretzat egitura osoa, egitura bera, ikuspegi berean jartzea (...) eta erakunde guztiak bateratzea egin beharreko tresnetan, baliabideetan eta plangintzan" (zinegotziak).*

Gainera, baloratzen da hasieran politikaren aldetik aldaketak bultzatzeko proposamen teknikoekiko egon zen inplikazioa eta babes instituzionala, gero denboran zehar mantendu direnak gobernatu duten alderdiak bat edo beste izanik.

*"Politika erabat aldatu genuen, izatez mantendu da. Berdintasun zinegotzigoan egon diren talde politiko desberdinek ikuspegi hori mantendu dute" (berdintasun teknikaria).*

Inplikaturako eragile guztiek (politikariek zein teknikariek) zeharka partekatutako ikuspegi komuna barneratzeko, ezinbestekoa da **apustu komuna** izatea, adostua, gobernuan dagoen alderdia eta lanean ari den pertsona edozein izanda ere, baita epe luzeko apustua ere, erakundean ezarri ahal izateko.

Erakunde batek indarkeria matxistari buruz egiten duen esku-hartzearen ikuspegia aldatzea, azken batean, kultura-aldaketa bat da, eta horrek eskatzen du, alde batetik, erreparazioaren ikuspegiaren oinarri teorikoak finkatzea eta hura praktikan jartzen ikastea, eta, bestetik, horretarako tresnak jartzea eta sortzea.

Prozesuan, Andoaingo ikaskuntzetako bat da eragile desberdinen pertsona arteko harremanen garrantzia, aldaketa kulturala instantzia guztietan sartzea eta finkatzea errazten duena, pertsonen irekitasun eta malgutasunagatik. Ikaskuntza hori sailen arteko harremanetan gauzatzen da, eta, horretarako, komeni da sail bakoitzaren funtzioak argi izatea eta eskumenak mugatzea, gaizki-ulerturik egon ez dadin.

Era berean, erakundeen koordinaziorako esku-hartzeetan parte hartzen duten eragileen artean espazioak partekatzeak harreman-giro hori sortzen laguntzen du. Erakundearteko koordinazio mahaletan, adibidez, gertatzen den moduan,

*"arloan lan egiten duten beste profesionalak ere ezagutzeko balio duen mahaia da (...) asko koordinatu behar gara, baita aurrez aurre egon ere, (...).Espazio honetan elkar ezagutzen dugu eta koordinazio horretan aurrez aurre egotea errazagoa da" (gizarte langileen taldea).*



Era berean, udalerriko beste eragile komunitarioekin dauden harremanek prozesuak errazten dituzte. Esperientzia honetan ikasi da eragile desberdinen arteko harremanak onak ez badira eta eraikuntza prozesuak elkarrekin aurrera eramán ezin badira (formazioak, eztabaidak, hausnarketak...) garrantzitsua dela eragile guztiek parte hartzea, modu paraleloan bada ere, eta gero akordio komunetara iristea.

*“Protokoloa landu aurretik, indarkeria matxistaz bakoitzak plano politikoan genuen ikusmoldea beste alderdi guztiekin bateratzeko prozesua abiatzeko beharra zehaztu genuen, baita erreparazioaren kontzeptua ere, argi genuelako protokoloak erreparazioan oinarritu behar zuela. Egin genituen hainbat saiota Mugimendu Feminista ere gonbidatu genuen, publikoa zen neurrian lerrokatu behar baikinen. Mugimendu Feministak ezagutza bat du eta maila teorikoan hainbat saio egin genituen lan egiteko, eta proposamena zen mugimendu feministarekin maila politikoan protokoloa bateratu bat sortzea, eraikitzea. Saio bat egin genuen eta gaur egun mugimendu feministarekin dugun harremana zeharkatzen duten beste auzi batzuegatik, hor ez zegoen lan giroa eta erabaki genuen prozesua zatitzea, bi taldeek aholkularitza berarekin lan egitea. Gerora ikuspuntuak bateratzea lortu genuen” (zinegotziak).*

Prozesu horren ikaskuntzetako bat da argi izatea ikuspegia udalerrí osoan ezartzeko, **eragile** instituzional zein komunitario **guztiekin lan egin** behar dela, eta horrek esan nahi du negoziatu eta akordioetara iritsi behar dela. Kontuan hartu behar da eragile garrantzitsuen prozesutik kanpo uzteak zaildu dezakeela ikuspegi aldaketa, eta ondorioz, erakundeen arloan soilik geratzea eta herritarrengan eragina duten aldaketa kulturalik ez egitea.

Prestakuntza eta negoziatio prozesu honek maila politikoan, indarkeria matxistan erreparazioa zer den, horretan sakontzeak eta adostasun batera iristeak, nahiz eta oso prozesu neketsua eta motela izan, oinarriak finkatzen ditu, esparru partekatatu bat eraikitzen du, ikuspegia instalatzen du eta horrela etorkizunerako urratsak ematen dira.

Udal eragile ezberdinek hausnartu dute ikuspuntuari buruz eta fokua maila teorikoan aldatzea lortu da, honako galdera honetatik abiatuta: **zertarako balio dute indarkeria matxistari arreta emateko politikek?** Hori izan da erakundeen lanaren inguruan hausnartzeko abiapuntua, erreparazioarako ikuspegiarekin.

*“Udaletxean momentura arte aintzat hartu ez zen elementu bat mahai gaineratzea lortu genuen” (berdintasun teknikaria).*

Hausnarketa horri ekiteko, prestakuntza eman zaie politikariei eta teknikariei, erreparazioaren ikuspegia txertatzeko, haien rolen eta eginkizunen arabera, eta zerbitzu guztietarako prestakuntza-ildoak landu dira, zerbitzu guztiekin erreparazio-ikuspegia lantzen joateko. Garrantzitsua da alderdi politiko desberdinek eta hainbat prozesuetan parte hartzen duten teknikariek ere erreparazioaren ikuspegi hori ulertzeko eta lantzeko modua eraikitzea eta adostea, kultura-aldaketa partekatua izan dadin eta ezar dadin.

Erreparazio ikuspegi hau aplikatzen eragile ezberdinek urteetan zehar izan duten ibilbidea oso anitza da, batzuek alde zurratik elementu batzuk barneratzen zituzten, beste batzuek prestakuntza prozesuekin ekin diote hausnarketari... Oraindik bide luzea dago egiteko, baina prozesua bultzatu zutenek uste dute asko aurreratu dela.



## 2.2. BIKTIMA ERDIGUNEAN

Inplikaturako eragile askoren beste ikaskuntza bat zera da: erreparazio-prozesuetan, **biktima erdian egon behar duela**, eta, batez ere, erreparazioari begira izan behar dela. Ikuspegi horrek biktimaarenganako begirada ere aldatu du, baliabideen erabiltzaile izatetik eskubideen-subjektu izatera. Modu horretan, prozesuaren zati bat izan da parte hartzen duten eragileek barneratzea zentralitatea biktimaarengan dagoela; ideia hori garatuz joan da, eta pixkanaka sartu da ekintza desberdinetan. Biziraule bezain erreparazio forma beste daude, eta teknikari eta politikari guztiek sakontzen dute konplexutasun honetan, bizirauleak haien prozesu indibidual zein kolektiboetan lagundu ahal izateko.

*“Emakume batentzat balio duen erreparazioa ez da orokortu behar. Ni erreparatua senti naiteke publikoa eginez gero eta nire historiaz hitz egiteko aukera izanez gero, baina beste emakume batek erreparazioa eskuratu dezake etxeko lasaitasunean. Erreparazioa oso subjektiboa da, emakume bakoitzak berea du. Entzuteko espazio horretan, erreparatzen nola lagun diezaiekedan jakiten saiatzea, agian ez dago nire esku ere... baina kontatzen dit” (gizarte langileen taldea).*

Erantzun erreparatzailea emango duten zerbitzuak sortzeko, eta biktima erdian egon dadin, erakundea herritarrei egokitu da eta ez alderantziz, eta eskubideen subjektuen ikuspegitik **Taupada** sortu zen, emakumeen autonomiarako laguntza-zerbitzua. *“Profesionalen laguntza jasotzeko, elkarrekin egonda ikus dezazun zer behar duzun eta hobeto sentiaraziko dizuten pausoak emateko”* zerbitzua da, emakumeei bideratua (Taupadaren informazio diptikoa),

*“(Taupada) emakumeen beharretara moldatzen da, hori zen gure planteamenduetako bat. Zerbitzua da emakumeen beharretara egokitu behar dena, eta ez alderantziz, emakumea erakundean sartzen den heinean, eta erakundean dagoen prozedurara egokitu behar den heinean, jada ez zara erreparatzen ari, ezta beharrak identifikatzen ere. Ikuspegi horretatik proposatzen genuen” (berdintasun teknikaria).*

Udalerrian ikuspegiari dagokionez aldaketak sartzeko, Taupadaren aldeko apustu politikoa aurrerapauso bat izan zen, kostatu zuen eta orain erreferentziazko zerbitzua da zonaldean. Berdintasun Arlotik, zerbitzu hori bultzatu zutenek haren aldeko apustua egin zuten espazio bat izatearen garrantzia baloratu ondoren, ondoezak zituzten baina bizi zuten indarkeria identifikatzen ez zuten emakumeek hura lantzeko, identifikatzeko eta ahalduzko-prozesu bat han egiteko.

*“urrats hauek, arriskuak hartzeak, izugarritzko garrantzia dute, eta oso garrantzitsua da espazio bat izatea non emakumeek gertatzen zaienaren inguruan hitz egin dezaketen” (zinegotziak).*

Emakumeen beharretara egokituko zen zerbitzu bat sortu zen, erreparazioaren ikuspuntutik,

*“indarkeria matxistaren biktima erreparatzeko, lehenik eta behin erakundeen atea ireki behar genituan. Soilik ate bat prozedura batekin izanda, ezinezkoa da erreparazioa lortzea, hura emakume bakoitzaren beharretara egokitu behar delako. Horregatik, proposatu genuen atea irekitzea lehenik eta behin. Orduan Taupada abiatu genuen” (berdintasun teknikaria).*

Prozesuan aurrera egin duten ekintzetan ikusten da ikuspegi erreparatzaileak garrantzia hartzen duela. Andoainen indarkeria matxista kasuetarako erakundeen arteko erantzun protokoloan, biktima erdigunean jarri da biktimaaren erreparazioan erantzuna bideratzeko,



eskubide-subjektu izanda eta berak hartzen dituelarik udalaren erantzun jardunaren inguruko erabakiak. Hala, protokoloa eraikitzeke eztabaidan planteatu da ekintza bat konpontzailea izan dadin biktimaren borondatea entzun behar dela (erantzun instituzionala ez da beti izango publikoa), eta erantzun publikorik ez emateagatik erakundeek askotan izaten dituzten zailtasunak.

*“Ikuspegia bera izan da. Erantzunaren artikulazioa emakumeen beharrak erdigunean jartzean datza. Beti biktimaren iritzia eskatzen da, hura da erantzun publikoa emango den edo ez erabakitzen duena. Erantzun publiko guztiak ez dira erreparatzaileak eta erantzun guztiak ez dira zertan elkarretaratze bat izan. Erantzun erreparatzaile bat izan daiteke auzokideekin hitz egitea edo beste modu batzuetan lan egitea, edota besterik gabe herritarrei komunikatzea inplikaturako pertsonekin lan egiten ari dela, askotan jendea berriak heltzen baitaizkio hedabideetan argitaratzen direlako” (berdintasun teknikaria).*

*“Erakunde arteko erantzuna erreparazio neurri bat dela kontuan hartu behar da. Beraz, biktimaren borondatea errespetatu egin behar da beti, haiek aukera izan dezaten zer eta nola egin nahi duten adierazteko, horren inguruan eman daitezkeen kasuistika kontuan hartuta” (Andoingo indarkeria matxista kasuei erantzun publiko instituzionala emateko protokoloa).*

Esan bezala, ekintza eta politika desberdinen bidez azken urteotan egindako eta instituzionalizatutako lana kultura- eta politika-aldaketa bat eragiten ari da eragile desberdinengan eta indarkeria matxisten aurkako lanean.

*“Giza eskubideen urraketa da eta hortik abiatuta, Gizarte Zerbitzuetatik, emakumeek jasan duten kalte hori erreparatzeko lan egiten dugu. Gure esku-hartzearen erdigunean beti emakumeak jartzen ditugu eta, nolabait, esku-hartze, entzute, laguntza, konpainia horretatik kalte erreparatzen saiatzen gara” (gizarte langileen taldea).*

## 2.3. BALIABIDE ETA LAGUNTZA ESPEZIALIZATUA

Prozesu osoan, aholkularitza espezializatu baten **kanpo-laguntza** izan dute. Aholkularitza horrek prestakuntzak, ikerketak, protokoloetarako aholkularitzak, kasuen ikuskapenetarako laguntza eta zerbitzu espezializatuen kudeaketa egin ditu. Elkarriketatu guztiek aholkularitzari buruz egindako balorazioa oso positiboa izan da, bai prozesuan kanpoko laguntza behar delako, bai laguntzaren esperientzia eta kalitateagatik.

Zehazki, gizarte-langileek, prozesu horren esparruan, ikuskaritzak egiten dituzte azken urteetan, kasu zehatzak kontrastatzen dituzte lantaldean, kanpo-aholkularitzarekin batera, egin beharreko esku-hartzeari buruz hausnartzeko gune batean, ikuspegi erreparatzaile horretatik. Azken batean, ikuskapenak kanpo-begirada bat dira, laguntza bat, eta, bertan, taldearekin batera pentsatu eta hausnartzen da egiten duten laguntzaren eta esku-hartze lanen inguruan eta nola jarri praktikan ikuspegiaren esparru teorikoa

*«Helburua da gogoeta egin dezatela arretaren inguruan, ikuspuntu erreparatzaile batetik, arreta erreparatzaile bat nola egitearen inguruan. Prestakuntzatik haratago doan zerbait da, arreta erreparatzailea ezarri nahi badugu, gehiago da hortik [praktikaren berrikuspenetik], ikuspegi teoriko batetik baino» (berdintasun teknikaria).*



Gizarte langileen taldearen balorazioa oso positiboa da, bai espazioa eta denbora hartzearena, bai kanpoko akonpainamenduarena, ikaskuntza asko ateratzen baitutuzte beren eguneroko lanerako.

*“Ikuskapenak emakumeentzako arreta hobetzea ekarri du, baita gaia lantzearen kalitate eta segurtasun handiagoa ere” (gizarte langileen taldea).*

Hala ere, gizarte-zerbitzuek diote egiten duten lan asko ezin dela erreparazioaren ikuspegitik egin, edo, behintzat, ezin dutela egin haiek nahi luketen bezala, horretarako giza baliabide gehiago behar baitira. Egoera horretan, askotan, euste-lana egiten dute, ikuspegi erreparatzailetik lan egin ezinik, eta, zerbitzu instituzional gisa, ez dira bermatzen emakumeen eskubideak,

*“Azken finean guri egokitzen zaigu euste-lan hori egitea, batez ere emakumea artatua izateko esperoan dagoenean eta erantzuna berehalakoa ez denean. Eusten dugu, bere frustrazioa jasotzen dugu (...) Batzuetan erreparazioa eman beharrean, kalte handiagoa eragiten ari garela sentitzen dugu, kalte instituzionala, erakundeak ez duelako funtzionatzen, eta emakumeak galtzen ditugu bidean” (gizarte langileen taldea).*

Azken batean, erakundeak bermatu behar du emakume horiek haien eskubideak berreraikitzea eta erreparazioaren ikuspuntutik arreta eta laguntza jasotzeko baliabide nahikoak. Hortaz, ikuspuntu erreparatzailetik laguntza garatu ahal izateko baliabide nahikoak eman behar dira, bestela, kalte instituzionalean eroriko gara, hau da, eragin negatiboa izango dugu emakumeengan.

## 2.4. BIKTIMEN ROLA: ERABILTZAILE IZATETIK ESKUBIDE-SUBJEKTU IZATERA

Elkarrizketatuen iritziz, indarkeria matxisten biktimak sistemara sartzen direnean, zerbitzuaren erabiltzailetzat dute haien burua, ez baliabideak salatzen doazen eskubide-subjektutzat, eta ez da lortu proposatutako ikuspegia biktimetara heltzea.

Gainera, sistemak/erakundeak berak **birbiktimizatzen** du zerbitzu guztiak ikuspegi berarekin ez dituelako, zerbitzu kontraerriak direlako edo baliabiderik ez dutelako, eta horrek kalte instituzionala eragiten du.

*“Hor zeharkatzen da birbiktimizazio instituzionala. Eta ez dakit horrek ahalbidetzen duen beste baliabide batzuk aktibatuz gero erreparazio kontzientzia izatea.(...) Erakundeak berak biktimarekin kontraerriaren diren egoerak sortzen ditu, udalerriak kasu” (zinegotziak).*

Elkarrizketatuetako batzuek aipatzen duten kasu paradigmatico batetik harago, Taupadan prozesu bat egin duten emakumeek errehabilitazio elementuak lantzeko aukera izan dute eta horren pertzepzio bat izan dezakete, baina hori hitzetan jartzean «*hobeto nago*» adierazten dute. Ez dute erreparazio kontzeptua aipatzen, ez dira eskubide horren subjektu sentitzen, oraindik ere zerbitzuaren erabiltzaile kontzeptua gailentzen da, hortaz, txertatzen ari den ikuspegia ez dago herritarren artean sozializatzen ari, kultura-aldaketa hori ez da komunitatean errotu.

Aipatzekoa da, gainera, elkarriketatu direnen pertzepzioa, haien ustez kasu askotan biktimek ez baitute udalaren arretaren balorazio positiborik. Horregatik elkarriketatuek diote hobekuntzak egin direla baina oraindik ere ez direla nahikoak.

## 2.5. ELKARLANA, ORAINDIK JORRATU GABEKO GAIA

Prozesuak komunitatearekin aztertzen baditugu, udalerriko eragileek ezinbestekotzat jotzen dute hori, eta ikuspegiak herritar guztiak hartu behar ditu.

Komunitate barruan talde mota ezberdinak aipatzen dira: biktimaren ingurua, Andoaingo herritarrak eta mugimendu feminista, espezifikoki emakumeen eskubideen aldeko agente komunitario bezala.

**Biktimaren inguruari** dagokionez, “Que se entere todo el mundo: investigación sobre el impacto del entorno en los proceso de reparación” ikerketan ondorioztatzen da laguntza komunitarioa erabakigarria dela, prozesua erreparatzailea edo birbiktimizatzailea izan daitekeelako biktimaren inguru hurbilak hartzen duen rolaren arabera. Hala ere, gaur egun, erakundeak ez du inguruarekin lan egin. Gainera, onartzen da Andoaingo bezalako testuinguru batean, komunitatearen pisuak eragin handia duela, udalerrri txiki samarra delako, eta familiaren edo gertuko inguruneen pisua oso handia delako. Hori dela eta, kontu handiz landu behar da, eta egin beharreko ekintzei buruz hausnartu behar da, izan dezaketen eraginagatik.

Senideei edo emakumearen ingurune hurbileko pertsonei laguntza eskaintzen dien zerbitzu bakarra Taupada da, baina inguruneak berak hurbildu behar du zerbitzura.

**Mugimendu feministari** dagokionez, elkarriketatutako pertsona batzuek adierazi dute gaur egun erreparazioa ez dela lehentasuna mugimenduarentzat, beste gai batzuk ere badituztelako agendan, nahiz eta protokoloa egiteko prozesuan parte hartu duten eta haien parte-hartzearen garrantzia baloratzen den, prozesuan ezinbesteko eragiletzat jotzen baitzuten. Gainera, hasieran esan dugun bezala, komunitateko hainbat eragilerekin lan egiteko, kasu honetan mugimendu feministarekin, eragileen eta elkartearen arteko harreman ona garrantzitsua dela elkarlana garatzeko baieztatzen da. Asmo hori azken protokoloan jasotzen da:

*“Ahaleginak egingo dira, Mugimendu Feministaren edo herriko beste eragile sozial batzuen autonomia errespetatuz, erantzun bat ekintza koordinatuen bidez eman dadin, eta, ahal bada, antzeko terminoetan, betiere, erantzunik ez bada gainjartzen bestearekin” (Andoaingo indarkeria matxista kasuei erantzun publiko instituzionala emateko protokoloa).*

Azkenik, **Andoaingo herritarrengan** zentratuz, komunitateari buruz hitz egiten badugu, esan bezala, ezinbestekotzat jotzen da komunitatearekin lan egitea, hala ere, ez da erreparazio komunitarioarako tresnarik jarri, ezta komunitatearekin lanik ere.


Prozesu horren barruan, herritarrei zuzendutako jarduera hauek egin dira: 2018an, “Erreparaziotik biktimei arreta ematea” jardunaldiak, eta, urte batzuetan, A-25eko biktimen erreparaziorako ekintza sinbolikoak. Sentsibilizazio-ekintza horiek dagoeneko interesa edo sentikortasuna dutenei iristen zaizkie, batez ere.



Instituzioak argi du kultura-aldaketakoko ezinbestekoa dela herritarrekin lan egitea; hala ere, esaten da zailtasun handia duela, eta, beraz, ondo pentsatu behar dela zer egin eta zer den egingarria, kaltegarria izan ez dadin, instituzioak dituen aukerekin eta irismenarekin. Beraz, ondorioztatzen da gaur egun egiten ari diren erreparazio-ekintzek ez dutela eragin aipagarriarik izaten komunitatean, fokua ez baitago hor jarrita.



# **AKONPAINAMENDU SOZIALA ERREPARAZIORA BIDERATUTA**





# AKONPAINAMENDU SOZIALA ERREPARAZIORA BIDERATUTA

## 1. ESPERIENTZIA TESTUINGURUAN KOKATZEKO

Jai-giroan, gizon batek emakume bat sexualki erasotu zuen; biak kolektibo sozial desberdinei lotuta zeuden. Handik denbora batera, emakumea lagun feministekin harremanetan jarri zen, erasoa hitzez adieraziz, eta une horretan hasi zen hari laguntzeko aukera antolatzen.

### 1.1. ERREPARAZIO PROZESUA ETA INPLIKATUTAKO ERAGILEAK

Urte batzuk igaro ziren erasoa gertatu zenetik bere inguruko pertsona garrantzitsu batzuekin partekatu zuen arte. Lehen bitartekaritza-saiakera bat egon zen, baina ez zuen aurrera egin, emakumearen lagunek gertatutakoari erantzun bat ematen eta zerbait egiten hastea proposatu zuten arte.

Ikuspegi antipunitibista batetik erreparatzaile izango litzatekeen prozesu bat sortzeko aukera planteatu zuen. Erasoa egin zuen gizonak hura onartu eta prozesuan parte hartzea onartu zuen. Hiru urte baino gehiagoz, bai gizonari, bai emakumeari akonpainamendua eman zaie, erasoa jasan zuen emakumeak planteatutako erreparazio-proposamenei erantzun ahal izateko. Denbora horretan zehar, asko izan dira erreparazioari ekarpena egiten dioten ekintzak: akonpainamendua bera, gizonaren aitortza, biei laguntza terapeutikoa ematea, komunitatea informatzea... Prozesu osoan, erasotzaileak berriro erasotuko ez zuelaren bermea oso presente egon da.

Tarte horretan akonpainamendu bat sortzen da, eta han parte hartzen dute:

- Erasoa jasandako emakumea<sup>1</sup>
- Erasoa egin zuen gizona
- Emakumearen laguntza-taldea
- Gizonaren laguntza-taldea
- Kanpo aholkularitza-feminista prozesu osoan zehar
- Banakako laguntza terapeutikoa biontzat

1 Parte-hartzaileek beren buruari deitzeko aukeratu dituzten terminoak erabili ditugu. Dokumentuan zehar, "emakumeaz" eta "gizonaz" hitz egingo dugu, testua irakurgarriagoa egiteko.



Eragile horiek gehien inplikatu dira, baina prozesuan baita garrantzitsua izan da inguruko bikote bat, sentsibilizatua eta konprometitua, eta estrategikoa izan zen prozesua haiekin kontrastatzeko tarte bat izatea.

Beste eragile batzuek ere nolabait parte hartu zuten, hala nola aldatzeko eta harreman pertsonalak hobetzeko borondatea duten gizonentzako programa espezializatua, edozein motatako indarkeria erabiltzea saihesteko. Zerbitzu honetara jo zuen gizonak, nahiz eta ikerketa prozesuaren parte ez zen izan. Nabarmendu behar da espazio honen garrantzia, non eraso bizi zuenak eta egin zuenak parte hartzen zuten.

## 1.2. DOKUMENTAZIO PROZESUA

Elkarriketa sakonak egin ditugu eraso bizi izan zuenarekin eta egin zuenarekin, beren babes taldeekin eta prozesua kanpotik aholkatu zuten militante feministekin. Bioi egindako elkarriketetan beren laguntza-taldeekin batera egon dira.

Dokumentuan, pertsonak aukeratutako izenarekin aipatzen ditugu. Marko horretan, hausnarketa interesgarriak sortu dira izendatzeko moduen inguruan. Erasotua eta erasotzailearen kasuan bereziki, izendapen horiek erabiltzeak enfasia jartzen du pertsonan, erasoaz eta aldaketak eragitez haratago, eta ez du zertan indarkeria gertaera horrek pertsonak betirako zehaztu behar, horretan lan egiten bada.

Nabarmendu behar da parte hartzaile guztien inplikazioa prozesuan, parte izan diren ia pertsona guztiak egon baitira.

## 2. IKASKETAK

### 2.1. AKONPAINAMENDUA

Nabarmendutako elementu bat da prozesuan zehar egindako akonpainamenduaren kalitatea eta hurbiltasuna. Prozesuaren berme gisa **alderdi guztiei laguntzearen** garrantzia, eraso egin zuen pertsona barne.

Akonpainamenduaren hasieran, prozesuari aholku eman zioten feministek, esperientzia honetatik eta beste batzuetatik, hasiera-hasieratik akonpainamenduaren **mugak eta aukerak argitzeaz** hitz egin zuten, bai eta laguntza hori zer ekintzatan gauzatuko den zehazteaz ere. Rol horrekin arduratsuak izatea, eta ematen den boterea gaizki erabiltzearen arriskuaz jabetzea. Nolabait huts eginez gero, akonpainatzaileek ere erreparatu beharko dute.

Ezaugarri hauek dituen prozesu batean laguntzeak prestakuntza eskatzen du, batik bat erreparazio eta eraldaketatik egin nahi bada. Erasotu zuenari lagundu ziotenen kasuan, egin duena baino zerbait gehiago bezala pertsona hori ikustearen garrantzia eta, aldi berean, zailtasuna azpimarratzen zuten.

Elkarriketatuen iritziz elkarren artean ondo moldatzea garrantzitsua da laguntza-taldeetan, baina ez da nahikoa. Zaila da nork lagun dezakeen markatzea, baina beharrezkoak dira zenbait **trebetasun**, hala nola lidergoa kendu gabe laguntzea, sentsibiltatea, umiltasuna



laguntza eskatzeko edo denborak errespetatzea ahal baino lehenago zerbait konpondu nahi ez izateko. Bestalde, aitortzea pertsonok gaitasun desberdinak ditugula eta guztiek ezin dugula prozesu hauetan lagundu.

Kasu zehatz honetan, bi laguntza-taldeak anitzak ziren eta, beren bizi-esperientziez eta giza potentziaz gain, **esperientzia** zuten gizarte-mugimenduetan (zehazki feminismoa aipatzen da) eta/edo esparru teoriko eta esperientzial oso egokiak eskaintzen zituzten lanbideetan, hala nola psikologian, gizarte-lanean, sexologian, fisioterapian, erraztean, antzerki sistemikoan, medikuntzan, komunitate-laguntzan edo gorputz-terapian.

*Lan emozional batetik gatoz, badaukagu hizkuntza jakin bat, egoten, laguntzen eta elkarrekin lan egiten badakigu, kolektibo bat ez garen arren. (Gizonaren taldea)*

Emakumearen laguntza-taldean, lagunetako batek erasotua bizi jasotzen du eta hurrengo aurkeztu: “ez zaude bakarrik, zer behar duzu? Talde bat egin dezakegu”. Erasoa bizi zuenak aukeratzen ditu eta espazio elkartu bat sortzen da, zeinen parte den ere, eta han elkartzen dira, batez ere laguna hobeto egoteko eta bakarrik ez sentitzeko, baina baita beste hainbat arrazoiengatik ere: feminismoa eta ezkerreko aplikatzea, indarkeriekin zerbait egitea, erantzutea, ardurak hartzea, laguntzea, berriro ez gertatzea, emakumeen ongizate errealerako zerbait desberdina egitea.

*Konpromisoa da emakumerik bakarrik bidea egin ez dezan. Aurrera egiten dugu eta hori da gure lehentasuna. Nire laguna zara, baina baita hortik haratago doan zerbait dago. (Emakumearen laguntza-taldea)*

*Guztiak gogotsu eta laguntzeko prest zeuden. Ez genekien zer geneukan aurretik. “Oso gauza gogorra kontatu diguzu, bertan jarriko dugu fokua eta ikusiko dugu nola heltzen diogun horri” “Elkartuko ginela erabaki genuen” (Emakumea)*

*Inork ez zekien laguntza-talde bat zer zen, zerotik hasten ginen. (Emakumearen laguntza-taldea)*

*Oso eskertuta nago, haiek izatea eta entzutea indargune bat izan da... Seguru eta harro sentitzen naiz haietaz. (Emakumea, bere laguntza taldearen inguruan)*

Denbora luzez, emakumearen laguntza taldea eratzen doa, talde bat bilakatzen dira eta egituratzen dira bizipenetatik abiatuta. Hitz egin ahala, «laguntza» zer den definitzen doaz elkarrekin. Hasieran asteen behin, gerora bi asteen behin ziren bilerak, eta ondo jakin gabe egin behar edo nahi zutena, baina bazekiten eraso bizi zuena erdigunean jarriko zutela, eta berak behar zuena horren muina izango zen. Modu horretan, garrantzi handia izan zuen emakumeak kontatutakoa balioztatzeak, gizonarena ez ezik, eta horri esker ahalduzkoak. Taldeak onartu zuen gauzak erraztu zituela **gizonak eraso aitortu izanak** eta prozesuan **parte hartzeak**.

Erasoa egin zuenaren laguntza-taldea emakumearen laguntza-taldeak egindako eskaera zehatz bati erantzuteko sortu zen, beste talde bati “erantzukizunak eta begiradak” eskuordetzeko; izan ere, hasieran emakumearen laguntza-taldeak hartu zuen gizonarekiko harremana. Bestalde, beste batzuek hartu zezaten komunikazioaren ardura, baita konpromisoen jarraipenarena ere, batzuetan horrek kontrol edo jagoletza sentzazioa sortzen baitzien, eta uste zuten hori ez zela haien lana. Baita gizonak prozesu hau bakarrik bizi ez zezan eta horri eusteko ere.



Kasu honetan, esan dugun bezala, gizonaren laguntza-taldea emakumearen laguntza-taldearen eskaera espezifiko gisa sortu zen, eta elkarrizketatu guztiak prozesuaren ondoren bat datoz ikaskuntza berean, hain zuzen ere, hasieratik bi aldeentzako laguntza-taldeak izatearen garrantzia.

Emakumearen taldean egiten den bezala, gizonarenean ere hura da taldekideak deitzen dituen, konfiantza osoz. Taldea ikasten joan da, hasieran ez baitzekiten prozesutik eta talde beratik zer espero, haien bizipenak baino ez zituzten, teoriarik ez zuten ezagutzen eta taldea ez zen antipunitibista. Prozesu honetan emakumearekiko konpromisoagatik eta zaintzagatik zeudela argi zuten.

*Bizitzan parte hartu dugun beste mugimenduetatik ez bagina etorriko, non dagoeneko ikasi dugun norbere plana asmatzen eta sortzen, ez dakit jarraitzeko gai izango ginenik. (gizonaren taldea)*

## **2.2. KANPO LAGUNTZAK ATZERAELIKADURAREN GARRANTZIA**

Prozesu honetan laguntza edo aholkularitza jaso duten hainbat laguntza-talde egon dira.

Emakumearen laguntza-taldearen kasuan, hirugarren topaketatik aurrera, hirugarren pertsonen feedbacka eskatzea erabaki zuten, zehazki, horrelako akonpainamenduan ibilbide ezaguna duten militante feministei. Kanpoko ikuspegi aditu horretatik, taldeari aholkuak eman zizkieten antzemandako gabezien, ikuspegiaren zalantzen eta bestelako inguruan. Marco horretan hasi ziren lanean justizia errestitutiboarekin eta antipunitibismoarekin lotutako kontzeptuekin.

*Justizia errestitutiboaren kontzeptua ulertzen hasi ginen, haiekin punitibismoa aztertzen hasi ginen; sekula entzun ez nituen kontzeptuak. Existitzen diren kontzeptuak aurkitzen dituzu eta horiekin bat egiten duzula sentitzen duzu. (Emakumea)*

Kasu honetan ez zen periodikotasun finkorik egon, prozesu hasieran hiru bilera gako egin zituzten eta hortik aurrera, behar izanez gero, deituko zuten.

Kanpo-aholkularitzako kideek berek planteatzen duten bezala, oso interesgarria da "laguntza-taldearentzako aholkularitza", kidesun-harremanetatik laguntzen dutenean oso zaila baita perspektiba mantentzea prozesua gauzatu ahal izateko. Zure lagunari gertatu zaionean, nahas-mahasean sar zaitezke eta ez jakin ondo zertan ari zaren, galduta egon edo ez jakin iruten.

*Kanpo-aholkularitza oso rol polita da, freskoago iristen den norbaitena, hain intentsitate emozional handirik gabe, prozesuak aurrera egin dezan lagunduko duten jarraibideak emateko. (Militante feministak)*

Laguntza taldeak berak aipatzen du kanpoko laguntza behar izatearen kontzientzia, ez erantzukizuna askatu nahi izatetik, baizik eta gainbegiratua izatearen aldeko apustutik. Gogoratzen dute nola, lehenengo saioan, prozesu osoan bidelagun izan dituzten bi galdera gako egin zizkieten: noiz amaituko da hau? zer da zuentzat erreparazioa? Funtsezko rola jokatu zuen, kanpo behaketa neutroagoa ekarri zuen, kontzentratuago egoten lagundu zuen, galera gutxiagorekin, pentsatzeko eta hausnartzeko modu berriak ekarri zituen eta oinarriak ezartzen lagundu zuen.



*Umiltasun handiz (lagundu gintuzten), gauzak erraztu zizkiguten eta zaindu gintuzten. Horrela badakizu jende gehiago duzula laguntzeko prest. (Emakumearen laguntza-taldea)*

Talde lan honetan, bai kanpo-aholkularitzak, bai emakumearen laguntza taldeak azpimarratu zuten kidetasun pertsonalak eta politikoak gauzak erraztu zituela.

Kanpo-aholkularitzaz gain, erasoja jasan zuenak eta bere laguntza-taldeak nabarmendu zuten hurbileko pertsonekin lan egitea gako izan zela prozesuaren momentu batzuetan haien esperientzia eta hurbiltasunagatik. Pertsona horiek beste kanpo-begirada bat eman ahal izan zuten, eta horrek lagundu zuen prozesuaren orientazioa berrikusten; zehazki, emakumearen parte hartzea laguntza-taldean. Puntu hori zehaztasun gehioz garatuko da aurrerago.

Gizonaren laguntza-taldetik nabarmendu zuten **terapeutaren** rola. Figura horrek erasoja egin zuenarekin lan egiteaz gain, haren laguntza-taldearekin ere koordinatu zen, laguntza puntuak ematen zituen, bilerak izaten zituzten prozesua kokatzen laguntzeko, hura ixten laguntzeko, noraino iritsi ahal zen ikusteko (beldurrak, zalantzak...), prozesuan norabide argiagoa eta ordenatuagoa sustatuz, dena lotuta baitzegoen. Laguntza-taldeen osakeran bezala, kasu honetan ere nabarmentzen da ikuspegi terapeutikoago horretatik laguntzen duten profesionalak ikuspegi feministatik prestatzearen garrantzia:

*Terapeuta zoragarria izan zen eta aldaketa potentea bultzatu zuen. Trebatuta dagoela gako da, eta ibilbide bat duela gizonekin, maskulinitateekin eta generoarekin ere lanean; hori oso garrantzitsua da, bestela ia kaltegarria izan baitaiteke pertsona batek zu balioestea zu jarrera defentsibo batean baldin bazaude, eta, azken finean, zientzia guztiek gizartea islatzen dutenez, eta gizartea matxista denez, askotan, psikoterapia ere bada. (Gizonaren laguntza-taldea)*

Elkarriketatutako aldeek nabarmendu dute oso garrantzitsua dela feedbacka izatea prozesu osoan, etengabeko atzeraelikadura izatea taldeen barruan, erasoja bizi izana eta kanpo laguntzak kontuan hartuta, ikasten eta berregokitzen joan ahal izateko.

### 2.3. ANTIPUNITIBISMOA ETA ERREPARAZIOA

Laguntza taldeen eraikuntzan ikusi den bezala, elkarriketatutako alde ezberdinek nabarmendutako ikuspegi antipunitiboa **ez zen hasieratik presente egon**.

Emakumearen sostengu taldearen kasuan, beste eraso matxista batzuei heltzeko esperientzia negatiboak ezagutzen zituztela aitortu dute. Indarkeria handia sortu zuten "sorgin-ehiza" batzuk, egin ziren amorrutik, non ez zitzaien biktimei lagundu, ez zen gatazka konpondu, ez zen justiziarik egin eta ez zen erreparaziorik egon.

Talde hori, erreparazio-eskaerak eraikitzen hasi ondoren, antipunitibismoari buruz hitz egiten hasi da nolabait prozesu horretan bidelagun izan dituzten beste eragile batzuekin, baita gai horretan erreferente diren batzuen bidez ere, hala nola Laura Macaya eta haren "Qué hacer con los violadores" liburua. Ikuspegi horrek **eztabaida eta ikuspegi berrietara** ireki ditu, eta horiek birkontzeptualizatzen lagundu diete (biktimaren kontzeptua, zigorraren eraginak, amorruari emandako espazioa...). Aurrera jarraitzeko ikuspegi berriak, beste hizkera batekin eta haien burua izendatzen hasi zuten identitate batekin.



*“Gure buruari izen ematen hasi ginen, erreparazioa eta antipunitibismoz ari ginela ulertu genuen eta identifikatzen hasi ginen” (emakumearen laguntza-taldea).*

Prozesu hori bizi dute eta horregatik antipunitibistak direla planteatzen dute, agian alderdi teorikotik ondorio horretara iritsiko lirateke, baina bizipenei esker horra heldu dira. Antipunitibismoa **zuhurtziaz** ikusten dute, joan beharreko itsasargi gisa, erreparazioan eta beste modu batzuetan pentsatzen laguntzen duen paradigma gisa. Argi eta garbi apustua egin nahi dute arlo teorikotik, baina badakite ez duela beti alderdi emozionaletik funtzionatzen, edo ez dutela tresna eta erreferentzia alternatibo nahikorik hura praktikan jartzeko. Ikuspuntu antipunitibista hori ere partekatzen du eraso egin zuenak, eta haren iritziz garrantzitsua izan da emakumearen laguntza taldetik bultzatu den eta erreferente izan den bide hori.

Illo beretik, gizonaren laguntza-taldeak dio amorruari tokia eman behar zaiola, trantsitatzeko, indarkeria bizi izan denean. Amorrua zilegi da. Gizarte-proposamen gisa ideia antipunitibista izateak ez du esan nahi zuk nahi izango duzunik zuk indarkeria biziz gero; ez zaie eskatzen indarkeria bizi izan dutenei ikuspegi hori izan dezaten. Biktima beti hartu behar da kontuan, noski, baina erabaki osoa uzten badiogu askotan «*heriotza*» aukeratuko du. Esparru horretan, eztabaidarako eta zailtasunerako elementu bat da biziraun dutenen protagonismoa erantzunaren definizioan, baita beste eragile batzuek eskaerak eraikitzearen duten zilegitasuna eta erantzukizuna ere.

Erasoa bizi zuenak honakoa zioen:

*Beti sentitu izan dut pertsonak bigarren aukera bat merezi dutela, ez dut kartzeletan sinisten. Kartzeletan jendea ez da erreparatzen, ez dute kontzientzia hartzen, ez dituzte egia prozesuetan laguntzen. Amorrutik eta haserretik merezita zuela pentsatzen nuen, baina hura funtsean ez nintzen ni. (Emakumea)*

**Beste modu batera egin nahi nuela** sentitzen nuen, baina ez nuen marko teorikoa ezta beste taldetako bizipenak ezagutzen. Asko hausnartzen da taldean, eskakizunetatik hasita eraldatzen, ikusten eta sentitzen goaz... Zer da egin nahi duguna? Hori eraldatzen joan zen eta azkenik heldu ginen antipunitibismoa eta gorpuztu genuen. (Emakumea)

Prozesu honetan galdetzen genuen ea **zigorra** a priori eraldatzailea zenik, sustatuko lukeena elkar ulertzea, erasotzaileek aldatzea eta erasotuak erreparazioa jasotzea. Judizializatu gabeko prozesu baten alde egiten dute, emakumea baita zilegi hori erabakitzeko eta nola kudeatu nahi duen aukeratzeko. Kasu honetan gertatu den legez, baldintza zehatzak bete behar dira prozesu antipunitibista bat egiteko, guztiek badakite hori.

Taldeetako batek esanda, akonpainamendu prozesuan egon dira konfiantza, harreman pertsonala, zaintza, dedikazioa, erreparazio eskaerak, jarraipena... erakundeak ematen ez dituen elementuak. Alderdi judizialek begiratura, helburua zigorra da, jakintzat emanda biktimentzat erreparazioa ekarriko duela. Hori guztia justizia arruntak onartzen dituen kasuetan, asko ez baitira ezta horra ere iristen. Eta heltzean askotan Birbiktimizazioak eta indarkeria instituzionala gertatu izan dira.

Emakumearen taldearen ikuspuntutik, zigorra baino zerbait haratago doa **erreparazioa**, heldutasunez ardurak hartzea da, prozesuko subjektuak diren heinean arduratzeko aukera da. Erreparazioa bide sendatzailea da, zure burua berimajinatze, beste ikuspuntu batzuk izateko. Indarkeria egoera bat modu ebolutibo batean ikusteko da, indarkeriari indarkeriaz ez



erantzutea, pertsona ororen eskubide gisa ongizate subjektiboa lortzeko tresnak sustatuz, idealki inplikaturako bi aldeekin, baina, gutxienez, indarkeria bizi izan duenarekin.

Ikuspuntu horren arabera erdigunean jarri behar da kaltetu dena, zer egin daitekeen baloratzeko, eraso egin duenetik hasita, eta bizirauleekin lantzea gertatutakoaren arduraren aitortza, "barkamena" zentzu errearekin. Halaber, egia erreparazioaren hasiera gisa aintzat hartzea da, eta hortik hasi behar da akordio bat eraikitzen zer egin behar dugunaren inguruan. Sustatzea pertsonen horrekin bizi ahal izatea eta bizitza osorako biktima edo erasotzaile ez izatearen ideari heltzea, gertaera batek ez bailuke identitatea zehartu beharko.

Gizonaren laguntza-taldean belaunaldien arteko traumaren inguruan hitz egiten digute, azalduz indarkeria egoerak ez badira jorratzen ez direla desagertuko, baizik eta eraldatu eta transmitituko direla, gainera "beherantz", babesteko aukerarik ez duenerantz. Hori erreparazio prozesu bat ez baldin badago, non indarkeria detektatzen eta erreparatzen den, sendatzeko eta ez ugaritzeko. Feminismoaren ikuspuntutik, indarkeria matxistaren eraginpean gaude emakumeok eta erreparazioak aske eta ondo egoten ahalbidetzen digu. Erreparazioa indarkeriaren bizipena kokatzeko aukera da. Horrekin bizitzea etengabe minik egin gabe, eta sustatzea gizatasunean, harremanetan eta sakontasunean oinarritutako prozesu bat.

Erasoa egin duenarenari honako ideia helarazten zaio: ez dela eraso bere identitatea definitzen duena, eta baita hausnartzeko beharra ere nor den, zergatik indarkeria hori egiten duen eta zer gertatzen zaionaren inguruan... Horrela ardurak egozten dira modu aktiboan, beste pertsonari begiratzen eta aldaketak eta transformazioak eragiten. Oso zaila da erasotzaile sentitzea eta indarkeria horren ardura hartzea berriro ez egitearen ikuspuntutik. Eta, diote, inozoa dirudien arren, garrantzitsua da gizakion onberatasunean eta pertsonen transformazioan sinestea.

## 2.4. ERREPARAZIONEURRIAK ERAKITZEA. FOKUAGIZONETIK EMAKUMERA PASATZEN DA

Prozesu horretan, beste ikaskuntza garrantzitsu bat izan da erreparazio eskaerak eraikitzeko **prozesua** bera, horien **osotasuna**, elementu terapeutikoak, ekonomikoak, espaziokoak eta abar barne, eta horiek betetzea.

Hasieran, emakumearen laguntza-taldea eta eraso bizi zuena prest zeuden aukera posible guztiei ekiteko: bitartekaritza, auzoa paperez betetzea... eta baita neurri judizialak ere. Betiere jakinda emakumea protagonista izan behar zuela eskaerak zehazterakoan. Orduan, abokatu baten aholkularitza izan zuten eta prozesu judizialek ez pasatzea erabaki zuten, bai kasu honen ezaugarriengatik bai bide hori baliatutako beste kasu batzuetan ikusi diren zailtasun eta birbiktimizazio elementu batzuegatik. Alternatiba autogestionatuagoak aurkitzeari indarra eman zioten, aukera desberdinak eta horiek emakumearengan zein taldearengan berarengan izango luketen eragina baloratu zituzten. Hasieratik emakumearen ongizatea erdigunean zegoen.

Bestalde, kontuan hartu zituzten egoera desberdinak, eraso egindakoak eskaerak onartzen edo deuseztatzen zituen arabera. Argi zeukaten gizona inplikatu behar zela, baita izango lituzkeen ondorioak ez inplikaturaz gero. Bere izatek eta bere egiaz onartzea nahi zuten, haren borondatez, eta ez ezarpen batengatik. Ez zen mehatxurik egon, gizonak hasieratik



inplikatzea erabaki zuen eta eskaera guztiak gogoz onartu zituen. Zentzu horretan, gizonak eraso aitortua zuen eta horrek segurtasuna ematen zion emakumearen laguntza-taldeari. Prozesuan eraso egin zuenaren parte-hartzea gakoa izan zen, eraso bat aitortzeko zailtasunaz jakitun, are gehiago jakinda aitorpen hori prozesu judizial batean erabiltzeko aukera badagoela, beste modu alternatibo batzuk kale eginez gero.

Hasierako erreparazio-eskariak "gizonak erreparatu behar du" horretan ardaztu ziren, eta eraso bizi izan zuenarengandik sortzen den lehenengo gauza erasotzailea ez ikusteko beharra da. Emakumeak hala erabaki zuelako eta gizona ikusteak berarengan zuen eraginagatik (antsietatea, loezina...), ondorioztatu zen espazio eta udalerrri berean ez egotea. Hala, emakumearen aldeko taldearen zati batek behar hori du ardatz, eta beste batek, berriz, prozesuaren gainerakoa eraiki eta prozesu osoan egon diren galdera eta hausnarketetan aurrera egitea: zer den erreparatzailea, noiz bukatzen den prozesua...

*Hasieran nire beharra zen hura berriro ez topatzea. Niretzat ezinbestekoa zen berriro ere ez erasotzea, **ez errepikatzearen bermea**. Hor hasi zen prozesu guztia. (Emakumea)*

Lurralde berean ez egoteko eskaera horri dagokionez, eraso egin zuenak bete egin zuen, baina zortearen edo pribilegioaren kontzientzia ere partekatzen du, bere ekonomia eta bizi-egoeragatik, eskaera hori praktikan jartzea erraza izan baitzen. Eskaera hori zaila izan zen bereziki senideen osasunarekin zerikusia zuten egoerengatik, horietan presenteago egotea nahiko zukeelako.

Emakumearen taldeak uste du, ongizatea sentitzeko, prozesuaren kontrola izan behar duela, eta, esparru horretan, hurrengo erreparaziorako pausua izan zen gizonari eskatzea gertatutakoari eta erreparazio-prozesuari buruzko idazki bat, eraikitzen ari zen "erasotzaile onaren" kontakizuna eta ideia ere kontrolatzeko. Eskaera honek hausnarketa sakona eragin zuen gizonarengan, «bere lana» egin behar izan zuen, «egia», hitzen zama emozionala eta politikoki zuzena dena berrikusi... eta pentsatzea nola eskaera hau erreparatzailea izan zitekeen emakumearentzat.

*(Gizonak beste inguru batean partekatu zuela prozesua jakitea) Honek ezinegona sorrarazi zidan. Zer dago kontatzen? Zer pentsatuko du? Zer pentsatuko du gertatutakoari buruz? horrela kontatu ahal izateko, zer dauka bere buruan? Gertatutakoaren inguruan zein da bere bertsioa, horrela horri aurre egiteko? (Emakumea)*

Kontakizunaren ideiarekin lotuta, berariaz eskatu zitzaion berak ez zezala bere burua feminista izendatu, eta ez zedila ekonomikoki ez sozialki aberastu prozesu horretatik, zaintzen jarraitzeko "erasotzaile onaren" prozesu publiko hori eman ez zedin eta berak ez zezan instrumentalizatu.

*"Publikoa zara, hizlaria zara, feminista eta ezkertiarztat daukazu zure burua, ba hau ez zaigu batere gustatzen" (Emakumearen taldea)*

Hasierako beste eskaera bat terapiara joatea eta laguntza-talde bat sortzea izan zen, berak bakarrik ezin zuela ohartuta:

*Maite zaituen talde bat, babesa emango dizuna, komunikazioa gehiago ibil zedin eta sarea izan zezan. Norbaitek hori egingo balu. Guretzat funtsezkoa zen berarekiko babesa, eta berak ere behar zuen, bestela behera etorriko zen eta galdu egingo genuen. (Emakumearen laguntza-taldea)*



**Gizonak prozesu horretan zuen rolari** dagokionez, bere laguntza-taldetik nahiko lan egin zuten, tradizioz jarrera maskulinoa izan arren (ekintza publikoa, komunikatua...), isiltasuna une batzuetan onena zela, bere maskulinitate-eredua berrikusiz eta aldatzeko lan eginez. Gizonak terapeuta aukeratu zuen, ikasi zuen, proaktibo egon zen bere laguntza-taldearekin, baina ez emakumearekin komunikatzeari dagokionez, entzutearen aldeko apustua egin zuen gehienbat.

*Azken finean garrantzitsuena transformaziora irekitzea izan zen. Biktima da hobetzen dena. Gizona prozesuan sartzen da, baina emakumea da protagonista. Badirudi erasoaren fokua gizonarengan jartzen dela (bere eraldaketan, bere zigorrean...) baina eredu honetan fokua emakumearengan jartzen da, oso modu atseginean. (Gizonaren taldea)*

Erreparaziorako beste eskaera bat izan zen erasotzaileei arreta emateko zerbitzu espezializatu batera joatea, non psikohezkuntza taldean jasotzen zuen, kontzeptuetan eta hausnarketetan sakontzen zuen... Laguntza terapeutikoko esparru formal bat izan zen, helburu oso zehatz batekin, erasotzaileengan zentratua. Erasoa jasan zuenak prozesuaren beste une garrantzitsu bat bezala ikusten du eskaera hori, eta bere taldeak argi ikusten du, beharrezkoa izateaz gain. Zerbitzuaren eta emakumearen laguntza-taldearen arteko koordinazioa egin zen. Koordinazio horren bidez, prozesuaren aurrerapenari buruzko oinarritzko informazioa partekatzen zuten haiekin, eta, hala, taldea ataza hori uzten joan zen.

Erreparazio-eskaera horiek eraiki ziren kanpo aholkularitzarekin baita. Espazio horretan fokua berriro ekartzen zaie taldeari eta emakumeari, eta hortik aurrera erreparazio neurrietan aurrera egiten dute.

Hasiera batean eskariak gizonarengan ardaztu ziren eta emakumearen taldea askatzeko beharraz jabetu ziren, "polizia" neurriak betetzen zirela zaintzeko rolari eutsi nahi ez ziotelako eta rol hori noiz arte mantendu ahal izango zuten ez zekitelako, baina batez ere emakumea gehiago zaintzeko beharragatik. Denbora horretan, beste pertsona aliatu batzuen laguntza ere badute taldean eta prozesuan, eta kolektiboki gehiago jartzen dute **fokua emakumean**, eta prozesuak gehiago eboluzionatzen du emakumearen prozesurantz.

Lehen ondorioa da **emakumea laguntza-taldetik ateratzen** dela, elkarrekin hura eraikitzen urtebete eman ondoren, gizona egiten ari den prozesuarekin etengabe konektatua ez egoteko (nahiz eta informatuta jarraitzen duen, koordinazioan eta espazioan protagonismoa hartuta); gainera, berak erabakitzen du banakako **terapiari** ekitea.

*"Emakumeak ez du erreparaziorik izango denbora guztian atzamarra zaurian sartu eta gizonak egiten duenaren kargu egiten ari bada"* (Emakumearen taldea)

(Laguntza taldetik ateratzeari buruz) *"Hori oso gaizki etorri zitzaidan prozesuaren kontrol beharragatik, baina oso ondo askatu beharragatik eta nekatuta egoteagatik. Hasieran egon nahi nuen, prozesua ulertu, kontrolatu, liderra izan, baneukan energia... Ondoren, nekatu nintzen eta askatu nuen. (Emakumea)*

*Oso ausarta izan behar da ohartzeko une batean sendatzea ez dela gizonaren kontua. Zurekin (erasoa nork egin zuen) egin behar duan zerbait eta nire esku dagoen zerbait dagoela jakitea. Ez izatea begirada erantzulearengan jarrita, baizik eta zure bizitzan, nahi duzun horretan. (Gizonaren laguntza-taldea)*



Neurri horrekin lotutako beste ikaskuntza bat da hasieran emakumeak ez zuela nahi gizonak bere **terapia** erreparazio neurri gisa **ordaintzea**, diruari uko egiteagatik, ordainketaren bidez garbiketa morala ekar zezakeelakoan... justizia arrunteko indarkeria-kasuetan kalte-ordaineekin kasu askotan gertatzen den bezala. Kanpo-aholkularitzarekin eta prozesuan aliatuak izan ziren beste pertsona batzuekin elkartzeko espazioen ondorioz, azkenean, emakumea legimititatez eta interesez sentitu zen gizonak terapiaren ardura ekonomikoa har zezan eskatzeko.

Erreparazio-neurri batzuk aldatu egin dira prozesuan. Hala, udalerri berean ez bizitzeko neurriak zalantzak sortu zituen, bai emakumearengan, bai haren laguntza-taldearengan, gizonaren bizitzan izango zuen eraginagatik, batez ere garai hartan izan ziren familia-egoerengatik, eta baita emakumearen taldeak hartzen zuen zaintza-rolagatik ere. Neurri hori ere aldatuz joan da prozesuan zehar, probintzia osoan ez bizitzetik, espaziorik ez partekatzerara (erasoa egin zuenak espazio berean ikusten badu alde egin behar du) eta baliteke horrela jarraitzea.

*“Mantendu daiteke eskaera, eta niretzat ez da zigorra, errespetua baizik. Edozein modutan ere, honek aldatzen jarraitzen du”. (Emakumea)*

Emakumeak proposatutako erreparazio-eskaerak horiek laburbiltzen dituen **dokumentu** argi batean jasotzen dira, eta horiek onartuz hasten da prozesua. Zehaztutako neurri guztiak bete ziren, gizonak dena onartu zuen, eta hori alderdi guztiek nabarmendu dute, eta prozesua ahalbidetu duen elementuetako bat bezala ere nabarmentzen da.

*Ez zen negozioaziorik egon. Berak ez zuen borroka egin, parte hartu zuen eta eskaerak onartu zituen. Hastea erabaki zuenean, sartu zen prozesura eta ez zen eztabaidarik egon. (Gizonaren taldea)*

*Egia esanda, **oso erraza egin du**. Mundu guztiak ezingo du honelako erreparazio-prozesua izan. (Emakumea)*

## 2.5. PROZESUAREN ETA EMOZIOEN ZAINTZA

*Oso gutxi aldatuko nuke prozesua. Denborak, errespetua, nire emozioak balioestea, guztia nire erritmoan egin da. Zein biktimak esan dezakeen, prozesu judizialean ez dut uste nik egin dezakedan patxada eta poztasunarekin kontatu ahal izango dutenik. (Emakumea)*

**Denborak** errespetatzea ikaskuntza bat izan da prozesu honetan. Kanpoko aholkularitzatik partekatzen zuten bezala, hasieran jendea oso disoziatua sentitzen da, egon daiteke garai bat non sentitzen duten ezerk ezin diela erreparatu eta hori prozesuaren parte da. Pertsonak behar dituzten denborak errespetatu behar dira, eta ulertu behar da prozesu oso neketsuak direla, eta, batzuetan, pertsonak utzi egiten dituztela.

Erreparazioa kontzeptu konplexua da, zaila. Gure kasuan, erreparazioaren parte bat izan zen honi guztiari eman genion denbora, lau urte horiek erreparazioa izan ziren. *Erreparazioa ez da inoren ekintza, prozesu bat da.* (Emakumearen laguntza-taldea)

Denborekin lotuta, prozesua gelditu izan da momentu batzuetan, ez zekitelako nola jarraitu, nekatuta edo blokeatuta egoteagatik, eta hori prozesuaren parte ere bada.



**Emakumearen laguntza-taldeak** prozesuaren eta beraren zaintzarekin lotutako elementuen garrantzia nabarmentzen du, baita errespetuarena ere.

Presiorik gabe joan zen, alferrikako itoaldirik gabe, sendo eutsiz denbora guztian, dinamismo izugarriarekin, energia guztiak batera, gatazkarik gabe... Guztiak aurrera egiten zuen erraz. Erraza izan da suposatuen guztiaren barruan, gizonak erraza egin du eta energiak errazak izan dira. (Emakumearen taldea)

*Ez nekien sentitzen nuena onargarria zenik, hainbesterako zenik. (Emakumea)*

Zehazki, **emozioen kudeaketa** taldearen dinamikaren parte gisa landu zuten. Bilera bakoitzaren hasieran, erronda bat egiten zuten nola zeuden azaltzen, non emozio asko (amorrua, euforia...) mugitzen ziren, eta, nolabait, prozesu terapeutiko bat sustatzen zuten. Esparru horretan, funtsezkoa izan zen emozioak baliozkotzea, eta, bereziki, amorruari lekua egitea.

Emakumearen prozesuan, garrantzitsua izan da haren ibilbide pertsonal eta terapeutikoa, baita biktimaren eta biktima onaren kontzeptuekin hura erlazionatzea ere. Esparru horretan, izaera antipunitibistak aukera eman dio taldeari leku berriak esploratzeko eta denbora guztian indibidualaren eta kolektiboaren artean kokatzeko.

**Eraikuntza** kolektiborako gunea ere izan da, ikuspegiei buruz eztabaidatzeko, hitz bakoitza ulertzeko eta bere neurriko hiztegi kolektiboa eraikitzeke gunea, esanahirik eman gabe eta prozesu osoaren jabetzea sortuz.

Talde honek bere buruaz hitz egiten du eraso bizi izan zuenarentzat osatu zen laguntza talde gisa, baina praktikan denentzat laguntzazkoa izan da. Segurtasun, adiskidetasun, laguntza eta, are gehiago, horiek guztiek bizitako indarkerien prebentzio eta erreparaziorako gune bihurtu den taldea.

*“Prozesu erraza izan da, gogor eutsi zaio, baina baita mimos bete... elkarri indartsu egin diogu”. Haiek izan dira ezinbestekoak, elkartasuna, indarra... (Emakumea)*

*Emakumea ondo dago, gu ere, lagunak egin gara, oso lagun onak, ez gaude hemen kasualitatez. (Emakumearen laguntza-taldea)*

Gizonaren laguntza-taldeari dagokionez, hasieran formalagoak ziren haiekiko, komunikatzen diren, bitartekaritza eginez. Lotura gisa funtzionatzen zuten, emakumearen laguntza-taldek iristen ziren eskaeren itzulpenean lagunduz eta ez zuten prozesuaren emozionaltasunaren hainbesteko ardura hartzen, hor zeuden, baina ez zuten aldaketa pertsonalean edo zerbait sakonagoan eragiten. Oso prozesu sutsua zela diote, eta hasieran dena berria zela, eta horrek zuhurtzia eskatzen zuela, eta ez zeukatela argi zer zegoen ondo eta noraino eragin behar zuten.

Prozesuak aurrera egin ahala, akonpainamendu-fase oso indartsu batera iritsi ziren, eta, han, **gizonaren bizitza pertsonalean** eta eguneroko bizitzan **eragiten** hasten dira, gai delikatuak eta oso pertsonalak landuz. Eraso egin zuena irekita zegoen eta, taldearen jakinduriarekin eta indarkeriarik gabeko harremanak sustatzeko gizonei arreta emateko zerbitzu espezializatuarekin harremanetan jartzearekin batera, hura eraldatzen hasi zen.

Hau ez da formalitate batekin zerikusia duen prozesu bat bakarrik, prozesu judizial bat izan daitekeen bezala, edo eskatzen dizutena isuna, lan bat, dena delakoa eta zure betebeharra



dena. Hori ez da horrela. Haratago joatea da, zu orain nor zaren ikustea, zure buruaren zein zati den oraindik izan zen erasotzailea eta eraso horiek egiten jarraitzen duena, ez modu berean, dagoeneko iragan delako, zuk zer pentsatzen zenuen, zergatik uste zenuen baietz, zergatik uste zenuen ezetz... Eragiten joatea, norbait erasotzera bultzatzen duen bizitzaren eremu orokorrako, holistikoago hori irekiz. (Gizonaren taldea)

## 2.6. MUGAK

Kanpoko aholkularitza eratu zuten militante feministekin izandako elkarriketatik sortutako ikaskuntza batek, batez ere, akonpainamenduen mugak zehaztearen garrantziarekin du zerikusia.

**Laguntza-taldeak**, laguntzeko asmorik onenetik abiatuta, birbiktimizatu dezakete, mugarik ez jarri, indarkeria gehiago sortu, polarizatu... Alde horretatik, garrantzitsua da jabetzea ez direla zertan eskaera guztiak onartu behar; talde horien betebeharra ez da dena babestea, eraso bizi izan duenak planteatu duelako; gerta daitezkeen kontraesanak berrikusi eta sostengatu behar dira.

*Agian izenak berak "laguntza-taldea" nahasten du eta dena babestu behar duela iruditutazake, bihurtzen zara psikologo, gizarte hezitzaile, gizarte langile, polizia, asanblada, feminista. (Kanpo aholkularitza)*

Mugak jarri behar dira, zertan lagundu behar den definituz, prozesuan fokalizatu behar da, kasu berririk gehitu gabe, prozesuan zehar sor daitezkeen informazio berriak gehitu gabe. Kasu horretan, emakumearen laguntza-taldeak besteei aholkuak ematen ikasi zuen, kasu horiek bere prozesuan sartu gabe, entzunez, onartuz eta aholkatuz.

Kanpo-aholkularitzatik adierazten dute zaila dela, halaber, **erasoa egin duenak** mugak jar ditzakeela egiten zaizkion eskaerei dagokienez. Horrek bermatzen du konpromisoa hartu duela, eta prozesua garatzeko ahaldunduen dela. Beren esperientzian oinarrituta, esan dute ikusi dituztela prozesu batzuk non eraso egin duenak baietz esaten dien eskaera guztiei (neurritz kanpokoak izan arren), eta gero ez dela ezer gertatu ez dituelako bete, ez delako jabetu prozesuak suposatzen duenaz eta egin zaizkion eskaereez.

*Erreparazio prozesu bat egiteko ahaldundua egon behar da, ezin da munduaren biktima sentitu. Egin duenarekin ere, ongi dauden bere alde guztietatik, bere boterea har dezakeena. Badirudi gehiago gustatzen zaigula txikia denean, kaka baten modukoa... Hori gure paradigmeekin eta boterea lotzen dugunarekin lotuta dago. Erreparazio prozesu bat egin nahi duen erasotzaileak bere boterea behar du hura egiteko. Ez digu boteretik gabe balio, hura zaintzen egon beharko ginatekeelako eta ez zaigu gustatzen. (Kanpo aholkularitza)*

Halaber, uste dute, laguntza-talde gisa, argi izan behar duela zein kasutan lagundu dezaketen eta zeinetan ez, uste baitute ezin izango dutela behar bezalako laguntza eman. Emakumeen kasuan, adibidez, erabaki zuten ez laguntzea adingabeen kasuetan, indarkeria behin eta berriz gertatzen den egoeretan edo eraso bizi duenaren segurtasuna bermatu ezin dutenean. Kasu horietan, egiten zuten balorazioa zen haien babesa beste akonpainamendu mota batean zehaztu zitekeela, eraso bizi izan zuenaren ongizatea sustatzeko.



## 2.7. ITXIERA

Aurreko puntu batzuetan planteatu den bezala, prozesua noiz bukatzen den galdera hasieratik egon da presente, baina horrek ez du zaildu prozesu dinamikoa izatea, eta behar bezain beste irautea defendatu zuten.

Emakumearen laguntza-taldeak hainbat itxiera izan zituen. Lehenik eta behin, eraso bizi zuenak bere laguntza-taldearekin egin zuena, terapia amaitu zuenean deitu zituen eta ekintza sinboliko bat egin zuten elkarrekin, *"bera askatuta sentitzen zen eta gu askatu gintuen"* (Emakumearen taldea).

Erreparazioaren adierazleetako bat norberaren ongizatea da, emakumeak ongizatea sentitzen duela uste duenean. Ez dago erabateko erreparazio posiblerik, horrek iragana ezabatzea esan nahiko lukeelako; orduan, iragana ezin da ezabatu, baina pertsonaren ongizate subjektiboa bai dela erreparazio-adierazle bat, besteak beste. (Emakumearen taldea)

Lehen itxiera ekitaldi horren ondoren, emakumearen laguntza-taldeak argi zuen hainbat elementu geratzen zitzaizkiela ixteko. Lehenik atseden bat hartu zuten, pozik emakumearekin egindako itxieragatik eta ikasitakoagatik. Aurrera egiten jarraitzeko, **gizonaren laguntza-taldearekin eta eraso bizi zuenarekin bilera bat egitea erabaki zuten**. Haiek ere eskerrak eman zizkieten prozesu hori bizi izan zutelako, enpatia izan zutelako, esperientzia horrekin hazi zirelako, lan egin zutelako eta hainbeste gauza ikasi zituztelako.

Erreparazio-**eskaerak** aztertzean, ikusi zuten guztiak betetzen joan zirela, eta une horretan berrikusi zuten lurraldetik kanpo egoteko neurria, eta askatasunez itzul zedin zehaztu zuten, baina topo egiten bazuten, gizona espazio komunitetik aterako zela lasai, eta hori ere bete egin zen.

Hori guztia egin ondoren, emakumearen laguntza-taldeak argi zuen oso garrantzitsua zela komunitateari prozesuaren berri ematea, haren eskaeretan ez errepikatzeke bermea oso presente egon baitzen, ariketa bat egin nahi zen komunitateari eskuordetzeko horren bermatzaileak izan zitezen, hau betetzen zelaren "begiak" izan zitezen. Horregatik guztiagatik adierazpen idatzi zuten eta publikoki zabaltu zen.

Emakumearen laguntza-taldeak ere prozesuari amaiera eman ondoren **jarraipena** egitearen aldeko apustua egin zuen, urtean behin gizonaren taldearekin elkartzeko, baina hori oraindik ez da martxan jarri, nekeagatik, beharrik ez sentitzeagatik eta prozesuak jada ez zuelako lekurik haien bizitzetan, nahiz eta ez duten baztertzen hori noizbait egitea. Argi dutena da prozesuak nola edo hala jarraitzen duela beren bizitzetan: kontaktzea, prozesu horien pedagogia egitea, indarkerien aurkako prebentzio moduak aktibatzea eta ardura kolektiboarekin konektatzea.

Gizonaren laguntza-taldearen kasuan, zalantzak sortzen ziren prozesuaren amaiera markatzeko une hori noiz izango ote zen, hain sakon iritsita. Bere kasuan momentu bat iritsi zen non erasotik haragoko gaietan sartzen ari zirela ikusi zuten. Testuinguru horretan garrantzitsua izan zen eraso bizi zuenaren terapeutarekiko kontaktua, argitzeko **ez zirela bere bizitzaren laguntza-taldea**, prozesu zehatz honetakoa baizik.

Taldeak modu positiboan baloratu zuen prozesuaren itxiera. Eta kasu honi bozgorailua emateko aukera, kasu arrakastatsu gisa, nahiz eta gauza asko dituen hobetzeko.



## 3. ERAGINAK

### 3.1. EMAKUMEAN IZANDAKO ERAGINAK

Testu honetan zehar ikusten dira inplikaturako parte guztietan izango eraginak. Eraso bizi zuenaren kasuan, erreprazio-prozesua oso modu positiboan eragin du, «*lasai, bakean eta legitimatuta*» sentitzen dela dio.

**Poztasuna** sentitzen dut prozesuan atzera begiratzean. **Sendatu daitekeena sendatu dela** sentitzen dut, ez dakit 100ean edo 80an, berdin zait, ondo sentitzen naiz, horren inguruan hitz egin dezaket lasaitasunez. Emozioak sorraraziko dizkit betirako, baina horrekin bizitzen ikasten duzu eta zoriontsu naiz. (Emakumea)

Zure diskurtsoa legitimatzea sendagarria da, zure **kontakizuna**, zure egia, zure sentimendua konta dezakezu eta ondo dago, lekua du. (Emakumea)

Prozesuak **tentsioak** sortzen dizkiola ere aipatzen du, nolabaiteko deserosotasuna, «oraindik kosta egiten zait kontatzea», bere ustez aldatzen jarraituko duena, eraldatzen. Aldi berean, poza sentitzen du taldeak egindako guztiagatik, eta **pribilegiatua** sentitzen da horrela egin duelako, inguruko jende askok ulertzen ez badu ere.

Prozesu honetan zehar, bere bizitza pertsonalean, akademikoan, gorputzaren zainketan eta autoestimuan aurrera egin du. Bere laguntza-taldearen arabera, **zaintzak merezi izatea sentitzen**, zaindua izaten eta maitatua izaten ikasi du. Beste emakume batzuei eskatzea eta horien babesa lortzea erraza ez den gizarte batean, bera gai izan da *luzaroan askorentzat lehenasuna izateko eta laguntzen uzteko*.

### 3.2. GIZONEAN IZANDAKO ERAGINAK

Erasoa egin zuenak aitortu du esaten ari ziotena **ez zela berehalakoa izan, ezta onartzeko erraza ere**. Salaketaren ondoren lotsa agertu zen. Zerbait galdu izana eta zer egin ez jakitearen sentsazioaren aurrean, eskaerak jasotzen zituen dokumentuak lasaitasuna ekarri zion. Zaila izan da bere bizitzako “pertsonaiak” uzten joatea, erreproduzitzen zituen rolei eta horiek emandako babesei buruzko lan pertsonala. Momentu batzuetan ez zekien zer egin, baina bere laguntza-taldean eta terapeutan konfiantza zeukan.

Gaur egun **osasun mentaleko** arazo batzuk ditu, baina berak ez luke esango prozesu honengatik bakarrik direnik, baizik eta estaltzen joan den bizi-prozesuengatik. Ez dio ondo dagoenik, baina pozten da prozesuak berarengan izandako eragin positiboek. Hala ere, prozesuaren zeharkako alderdi batzuek, gizarte-mailan eta laguntza-taldean eskumenetik kanpo, ez dute ondo sentiarazten.

*Animikoki nola edo hala aurrera jarraitzea egiten zidaten gauza asko askatu behar izan ditut baina aldi berean ikusten ditudan ez direla osasuntsuak ez niretzat ez jendearentzat.* (Gizona)

Prozesu horrek aldaketa handiak eragin ditu gradualki bere sozializatzeko eta erlazionatzeko eran, «*Bizitza erabat aldatu dit*» eta uste du dagoeneko ez dela berarentzat amaituko.

*Aldatu egin dira nire harreman gehienak, lagunak eta batez ere asko aldatu da behar dudako baliozkotzea non bilatzen dudako, ez dakit hura bilatzeko tokia aldatu den baina modua*



*seguru baietz. Uste dut hori dela izandako aldaketarik garrantzitsuenetarikoa, eta pozik nago gertatu izanaz. (...) Bestalde, terapiara joateko behar nuen bultzada izan zen. (Gizona)*

Gizonaren laguntza-taldeak dio prozesuak oso eragin positiboa izan duela harengan, ez hainbeste maila sozialean, baina bai modu sakonean. Pertsona gisa hobetzeko bultzada da, min egiten ari zitzaion zerbaiti heltzea, **kontzientzia hartzea eta ardura hartzea**.

*Ez dira suziriak eta irribarreak, bai munduan kokatzea eta osasuna. (Gizonaren taldea)*

*Prozesu horretara pixka bat behartu zuten eta berak maskara kendu nahi izan du, atzean zegoena ikusteko. Agian ez da pertsonaia bezain guaia, baina errealagoa da, bere bizitza da, bere pertsona da. (Gizonaren taldea)*

Gainera, prozesu hori egin izan ez balitz, egoera berriak gerta zitezkeela planteatu dute, nahiz eta beste indarkeria-mota batzuetakoak izan. Ez errepikatzeko bermeei dagokienez, prozesuaren hasieratik hain presente egon direnez, eragin positiboa du gizartearentzat eta berarentzat, **beste pertsona batzuei kalterik egin ez izanak**.

### 3.3. LAGUNTZA-TALDEETAN IZANDAKO ERAGINAK

**Emakumearen laguntza-taldeak** dioenez, eragin handia identifikatu dute partaide guztiengan. Prozesu sendatzailea izan da, aldaketa indibidualak ere eragin dituena, bere bizipenekin konektatuz eta esperientzia honekin haziz.

Bizitza beste modu batera, askoz hobeto. ulertzeko markotzat aurkezten dute. Lankidetzat handiko prozesua izan da, non bakoitzak asko lagundu duen:

Lana ikaragarria izan da, bakoitzak ekarpen handia egin ahal izan du, bakoitzak bere autokritikatik, denak txiki-txiki sentituz eta elkarri oso handi eginez denbora guztian. (Emakumea)

Prozesuak asko **irakatsi** du teoria feministaz, zigorrak, akusazioak, epaiketarik ezaz hausnartzen... Baina baita dena beste era batera ulertzeaz ere, zer den maitatzeaz, zaintzeaz, lagunak zer direnez edo familiaz. Eta beste modu batzuetan harremanetara, seguru eta lasai sentitzera, haiek berak izatera irakatsi du.

Prozesuak taldea eraiki du eta **indartu** du, guztiontzako laguntza-gune gisa, eta bere funtzioetan ere eboluzionatuz joan da. Batzuek diote taldea «etxe» bihurtu dela.

Taldeko batzuek beste talde batzuei **aholkuak** emateko aukera baloratzen dute, izan duten ikaskuntzagatik, betiere espektatibak zainduz, prozesu bakoitza bakarra dela badakitelako eta prozesu honetan alde guztien indarra eta inplikazioa, beste elementu batzuen artean, funtsezkoak izan direlako lortutako guztirako.

**Gizonaren laguntza-taldean “bere laguna izaten jarraitzea opari”** gisa aipatzen dute talde horretako kide izatea. Oso zaila da ezaguna den norbaitekin, zure inguruko norbaitekin, posizionatzea, erasuren bat egiten duena. Normalean justifikatzen da edo harremana apurtzen da. Talde hau adiskidetasuna salbatzeko eta harremanak izaten jarraitzeko modu bat bezala ikusten dute, lasaiago zeuden modu batean posizionatuz. **Maitasuna**, pertsona hori gaizki ez maitatzea eta egoten jarraitu nahi izatea nabarmentzen dute, nahiz eta prozesu horrekiko errukia eta enpatia handitu izanak amorrua sortu.



Nabarmendu dute eskertu dutela **ikaskuntza** pertsonal handia, bizi izandakoa eta laguntzeko gaitasuna. Prozesu horretan kontzeptu absolutuak malgutu dira, zapaldua/zapaltzailea bezalako patroik edo kontzeptu estatikoak berrikusiz, soilik zuria edo beltza ez den marko baterantz aurrera eginez.

“Gizonak ez dira nahi ez dutelako aldatzen” ideia ere berrikusi dute, gizonak eta indarkeria justifikatu gabe, baina borondatea elementu garrantzitsu gisa ulertuz eta ez beti hain erraz. Zure bizitza, sozializazioa, pentsatzeko modua... berreraikitzeari lotutako aldaketa konplexua da, are gehiago aldaketa sistemikoak nahi badira; zentzu horretan lan asko egin behar da, indarkeria egoera bat salatzeaz gain, aldaketaren ardura hartu eta nork egiten duen ikusi behar da ere.

Emakumearen laguntza-taldean ere aipatu zenez, badakite oso esperientzia zehatza izan dela, agian erreplikagarria ez dena, baina horrelako gauzak egin ahal izateko esperantza eskaintzen duena.

### 3.4. KOMUNITATEAN IZANDAKO ERAGINAK

Gizonaren laguntza-taldeak, prozesuan sartzeko arrazoen artean, konfiantzaz, adiskidetasunaz, erantzukizun pertsonalaz eta baita inguruarekiko arduraz ere hitz egiten digute, nola, indarkeria egoera bat pasatzen denean, komunitateaz ari bagara, **arduratu** beharko genukeen. Gaur egungo testuinguruetan, askotariko diskriminazio- eta indarkeria-egoerak gertatzen dira, eta egoera horiek prestatzera, ikastera, ekitera eta ardura hartzera bultzatzen gaituzte.

Prozesu honek gizartean ere izan ditu eraginak. Prozesuaren hasieran, inplikaturako pertsonekin lotutako kolektibo batek erabaki zuen eraso egin zuenak ezin zuela espazioan parte hartu. Hasieran, emakumeak ez zuen ikusi nahi, baina ezta betoa ezarri ere. Prozesuaren azken fasean kolektiboa erabaki hori ebaluatzen ari zen, espazioan sartzea baimentzeko.


Erasoaren berri izan zenean, eragin handia izan zuen komunitatean, **oihartzun** handiarekin; hala ere, akonpainamendu eta erreparazio prozesu guztia nahiko konfidentziala izan da, eta oihartzun txikiagoa izan du.

Dagoeneko itxita dagoen prozesutik ikusita, komunitateak hainbat erreakzio izan ditu horren aurrean. Erasoa egin zuenaren gertuko pertsonen artean, batzuek berarekin harremana eten dute eta beste batzuek prozesua zalantzan jarri dute. Taldeen gertuko jendearen artean, prozesua positiboki baloratzen dute “ondo atera zaie, begira zer egin duten” eta, gaur egun, emakumearen laguntza-taldearekin harremanetan jarri dira aholkularitza eskatzeko. Illo horretan, prozesua sozializatzea eta zabaltzea, hau gerta daitekeela eta ondo atera daitekeela partekatzea desio eta erronka gisa aurkezten da.

Prozesuan ez da lan zehatzik egin komunitatearekin. Emakumearen laguntza-taldeak, erreparazio-eskaeretan deskribatu den bezala, adierazpen bat egin zuten, eta modu digitalean zabaldu zen, esanez prozesu horiek badaudela eta arrakastatsuak izan daitezkeela. Hori prozesua ixteko modu bat izan zen. Gainera, emakumearen laguntza-taldeak zenbaitetan hitza hartu du komunikabideetan, prozesuaren ikaskuntzak zabaltzeko.

Komunitateari zuzendutako komunikatuan sarea eta sostengua eskatzen zuten, ez errepikatzearen bermea komunitate osoaren esku uzteko modu gisa.

*Komunitateari eskatzen genion gizarte feminista bat egiten laguntzeko, non bizkarra eman beharrean eta gizona beste talde batera joatea erasotzen jarraitzea, gizarte feminista bateko kide funtzionala izaten laguntzeko. (Emakumearen taldea)*

The background is a solid teal color with a fine, woven texture. A prominent diagonal crease or fold runs from the upper left towards the lower right, creating a sense of depth and movement. The lighting appears to come from the top left, casting soft shadows along the crease.

# **KINTSUGI: BIZIRAULEEN AKONPAINAMENDU KOLEKTIBOA**



# KINSTUGI: BIZIRAULEEN AKONPAINAMENDU KOLEKTIBOA

## 1.KASUA TESTUINGURUAN KOKATZEKO

Indarkeriaren bizirauleak izan diren lau emakume talde elkartzen hasi ziren 2023an pentsatzeko bizitako indarkerien erreparazio prozesuen inguruan. Ekimen hau Mugarik Gabek sortu du, prozesu hauen garrantzia argi eta garbi azalduz eta esparru politiko zein sozial guztietatik bultzatuz. Prozesu bizi gisa proposatu zen, non haiek izango ziren protagonistak eta konponketa-eskaerak eraikiko zituztenak.

### 1.2. ERREPARAZIO PROZESUA ETA INPLIKATUTAKO ERAGILEAK

Abiapuntu gisa, balizko ekitaldi publiko bat imajinatu zen, eta bai aurretik, bai ondoren, akonpainamendu bat. Lehenagokoa haien bizipenak dokumentatzeko eta ondorengoa erreparazio eskaerak ahalik eta modu espezifikoenan akonpainatzeko.

Prozesu horretan, hainbat emakumek parte hartu zuten (batzuk kolektiboetako kide gisa, eta beste batzuk banako gisa), eta guztiek indarkeria matxistak bizi izan zituzten hainbat forma eta testuinguruan:

- Bikotekidearen/bikotekide ohiaren esparruan indarkeriak jasan zituzten emakumeak, eta, ondoren, indarkeria instituzionala jasan zuten.
- Etxeko barneko lan esparruan indarkeriak jasandako emakume migratuak.
- Haien jatorrizko herrialdeetan edo migrazio prozesuan indarkeriak jasandako emakume migratuak.
- Haien identitate sexu-generikoagatik El Salvadorren indarkeriak jasandako emakume transak.

Momentu horretan, indarkeria matxistaren bizirauleen kolektiboen edo feminista zein LGTBIQ+ aktibismoen parte ziren emakume horietako asko (Bizitu Elkartea, Trabajadoras de Hogar Sociosanitarias edo Colectivo Alejandría de El Salvador). Eta beste batzuk, hala nola Asociación de madres afectadas por la violencia institucional de Euskadi – AMAVI elkarteak edo Debagoieneko Gerlariak, proposamenaren azkenengo faseetan gehituz joan dira. Ikusgarri egin nahi ditugu, haien lana eta ibilbidea aintzatetsiz, baina jakinik parte hartu zutenek modu independentean egin zutela, ez talde horien ordezkari gisa, eta horiekiko lotura, kasu batzuetan, aldatuz joan dela.



Prozesu honen **fase nagusiak** honakoak izan dira:

1. Indarkeriaren bizirauleen bizipenaren dokumentazioa. Indarkeria matxisten bizipenak, analisiak eta eraginak modu kolektiboan eta lagunduan landu ziren. Parte hartu zuten emakumeekin koherente izanik, dokumentaziorako talde batek bikotekidearen eta bikotekide ohiaren indarkeriazko bizipenen inguruan jardun zuen, beste talde batek barneko etxeko langileen inguruan, eta hirugarrena, El Salvadorren garatutakoa, trans emakumeen aurkako indarkerian. Azkenik, migrazio prozesuetan eta sorlekuetako indarkeria matxistei buruzko dokumentazio indibiduala egin zen.
2. Kintsugia kolektiboki eraiki, erreparazio kolektiboko ekintza gisa, eta hura garatu. Ekintza publikoa izan zen, dokumentatutako indarkeria matxistetatik bizirik atera zirenen testigantzak ardatz hartuta, haien erreparazio eskaerak entzuteko.
3. Erreparazio-proposamen espezifikoa bultzatzea, ikerketa hau egin bitartean eraikitzen jarraitzen dutenak:
  - a. Intzidentzia politikorako prestakuntza. Saio desberdinak Bizitu eta Debagoieneko Gerlariak elkarteak indartu eta prestakuntza emateko, horiek osatzen baitute Euskadiko Bizirauleen Sarea. Prozesuaren parte gisa agerraldia prestatu dute Eusko Legebiltzarreko Berdintasun eta Lankidetzat Batzordean.
  - b. Indarkeria matxistatik bizirik atera direnen epaiei buruzko txosten bat egitea, kasuetan sakontzeko eta, bereziki, indarkeria instituzionalean sakontzeko. Halaber, arlo horretan ardurak dituzten hainbat erakunderi dokumentua aurkeztea.

Prozesuaren garapenean, taldeen parte-hartzea aldatuz joan da. Zenbait emakumek prozesuaren aldi batzuetan baino ez dute parte hartu, eta hainbat arrazoiengatik utzi dute prozesua. Gainera, bidean, beste batzuek kolektibo gisa parte hartzen dute eta emakume eta elkarte berriak batu dira bertara.

## 2.2. DOKUMENTAZIO PROZESUA

Honako elkarriketen informazioa aztertu da:

- Prozesuaren fase desberdinetan egindako elkarriketa bizirik atera diren lau emakumeri.
- Kintsugi prozesua laguntzen duen Talde Eragileari elkarriketa.

Baita honako dokumentazioa ere:

- *“Indarkeria Matxisten Biktima eta Biziraun duten Emakumeak erreparatzea”* sistematizazio-prozesuaren oinarriko dokumentuetako bat da, eta biltzen ditu sistematizazio-taldearen galdera kritikoei emandako erantzunak, elkarriketak eta sistematizazio espresaren ikaskuntzen laburpenak. Sistematizazioa 2023 eta 2025 bitartean egin zuen Bilbaki Facilitando procesos-ek, Esther Canarias-ek gidatua.
- Kintsugiaren inguruko bideo dokumentala ikusgai <https://www.youtube.com/watch?v=DjHG1runltM>



## 2. IKASKUNTZAK

### 2.1. PARTE-HARTZEA ETA ENTZUTEA

Prozesu osoan zehar **erdigunean** egon den elementua **entzutea** izan da. Nola ez, entzute hori giltzarri izan da prozesuaren ikuspegi parte-hartzailean.

Indarkeria matxistetatik bizirik atera diren emakumeen kasuan, entzute falta behin eta berriz errepikatzen den gaia da; arreta-zerbitzuetan, epaitegietan, gizartean, beren inguruneetan... aurkitzen duten gabezia da. Beren hitza, iritziak eta proposamenak elementu nagusi izan dituzten espazioak sortzeak eragin du prozesuaren jabe egin izanean eta parte-hartzearen aldeko apustu hori erraztu du.

Elkarrizketetan zehar, bizirik atera zirenek **aitortuak** izan direla sentitzen dute, prozesuan eroso eta lasai sentitu direla, entzun dietela eta beren iritzia kontuan hartzen zutela. Protagonistak sentitu dira.

- *Beldurrik ez izatea gauzak eta bizipenak partekatzeari, entzuten zaituztela sentitzea.* (Biziraulea)
- *Babestuta sentitu naiz, lagunduta, entzunda, oso garrantzitsua dela; (...) nik neure baitan ikusten dut hautsita egoten jarraitzen dudala, inork ez nauela erreparatu, baina noski gauzak barrutik atera ahal izan ditut.* (Biziraulea)

**Parte-hartze** hori bultzatu duten elementu zehatz batzuk honako hauek izan dira: espazio zainduak sortzea, erritmo desberdinak aitortzea, forma eta denboretan etengabeko malgutasuna, askotariko akonpainamenduaren<sup>1</sup> aldeko apustua eta parte-hartzaileen artean konfiantzazko espazioak eraikitzea.

Prozesuaren diseinutik, parte-hartzea sustatzeko **espazio kolektiboak** eraiki dira. Horrela, talde eragile bat eraiki zen erakunde sozial eta feministekin, non bizirauleak bazeuden. Honek bete-betea asmatu zuen, jabetze eta eraikuntza errealistago eta ziurrago bat sortu zuelako.

Hasierako talde eragilearen parte ziren Bizitu Elkartea, Feministalde, Mujeres del Mundo, Zehar Errefuxiatuekin, La Colectiva por el Desarrollo Local de El Salvador eta Mugarik Gabe. Prozesuaren diseinuan ekarpenak egitea eta hainbat indarkeria matxistetatik bizirik atera ziren emakumeen testigantzak aztertzea izan ziren bere funtzioak, horien erreparazio eskaerak zeintzuk ziren jakiteko.

Kintsugi prozesua talde bakoitzeko biziraule batzuen partaidetzara ireki zen, talde bakoitza ordezkatzera mugatu gabe, baldintza batekin: parte hartuko zutenek prozesuarekiko konpromiso egonkorra izatea.

Parte-hartzea errazten duen beste elementu bat izan da indarkeriatik bizirik atera direnen erakundearen artean aldeztatik **lotura** egotea, kasu batzuetan duela urteak, Mugarik Gabe kasu. Ildo berean, azpimarratu beharra dago emakume gehienak **talde** baten parte bihurtu

<sup>1</sup> Ikaskuntzen arteko puntu espezifiko bat dago hor



zirela, horrek konpromiso kolektiboago bat sustatu zuen eta kasu batzuetan elkartzeak erraztu zuen parte-hartzaileak lagundu ahal izatea.

*Bagenekien oso ondo lagunduta egongo ginela eta hortik aterako zenak ere mesede egingo zigula, gauza partekatu bat zela. (Talde Eragilea)*

*Biktimen partetik parte-hartze handiagoa eskatuko nuke (...), prozesu latza dela ulertzen dut, psikologikoki oso txarto amaitzen dugu. Baina... aldaketak nahi baditugu, mugitu behar gara. Laguntzarik gabe ez dira etorriko. Eta are gutxiago orain ikusten ari garenekin. (Biziraulea)*

Talde eragileak modu kolektiboan prozesuaren diseinuan aurrera egin ondoren, jabetzearen eta parte-hartzearen aldeko apustu honetan estrategikotzat hartu den beste une bat izan da biziraun dutenen esperientzien **dokumentazio**-fasea. Erreparazio-prozesuan parte hartu zutenek taldean eraiki zuten kontakizuna, dokumentatzaileek lagunduta. Mugarik Gaberen kasuan, kasu indibidualen eta kolektiboen dokumentazioa izan da aurretiazko prozesuetan erabilitako metodologia, oso emaitza positiboekin.

Elkarrizketetan bizirauleek dokumentatzaileen rola nabarmentzen dute, prozesua eta espazioa zaindu dutela, maitasunez eta profesionaltasunez entzun dituztela beren testigantzak eta Kintsugiko ekitaldiari begira kontakizun horien eraikuntzan ekarpenak egin dituztela.

*Dokumentazioa prozesu gisa zilegitasuna eta indarra eman zion prozesuaren jabetzeari. Asko ahaldundu gintuen bai banaka, bai kolektiboari. (Talde Eragilea)*

*Kontakizun propioa eraikitzea, baita kolektiboa ere, taldearena, oso garrantzitsua izan zen. Batzuek diotenez, elkartzea, partekatzea, eraikitzea eta kontakizunak batzea erreparatzailea izan da. (Talde Eragilea)*

Dokumentazio fasean eraikitako testigantzak izan ziren **Kintsugiren** oinarria, indarkeria matxistetatik bizirik atera zirenen erreparazio ekitaldia, Bilbon 2024ko otsailaren 24an egin zena. Egia, Justizia eta Erreparazio ekitaldi bat izan zen, eta bi zati izan zituen: hasieran, Bilborocken. Espazio itxi horretan, bizirik atera ziren bederatzi emakume beren testigantzak partekatu zituzten. Ondoren, kalejira bat egin zen eta, horren itxieran, emakumeek egindako erreparazio-eskaerak jasotzeko eta abian jartzeko konpromisoa eskatu zen sozialki eta politikoki.

Anitzak izan ziren 9 testigantzak, bai indarkeria matxisten formetan, bai eta bizi izan zuten emakumeetan. Barneko etxeko langile diren hiru emakume migratu egon ziren, familia enplegatzaileen zaintza lanean aurre egin behar dieten indarkeriez mintzatu ziren, hala nola lan eskubideak, lan esplotazioa, arrazakeria, tratu txarrak, irainak, mespretxua, umiliazioak, diskriminazioak, mehatxuak... Beste emakume batek jatorrizko herrialdean eta migrazio prozesuan indarkeria matxistak pairatu zituen. Bikotearen indarkeriatik eta bikotekide ohien indarkeria bikariorik bizirik atera diren beste lau emakume zeuden, zeinak, askotan, indarkeria instituzionalari aurre egin behar izaten dioten. Eta azkenik, El Salvadorreko emakume trans bat zegoen, giza eskubideen defendatzailea, prozesuan parte hartu duten eta beren identitateagatik eskola, familia, lan, gizarte, erakunde... esparruetan indarkeria matxistei aurre egin dieten hainbat emakumeren ordezkari gisa datorrena.



Testigantza horiek, dituzten ezaugarriengatik, indarkeria matxisten konplexutasuna, apustu intersektionala eta internazionalista nolabait presente egotea bultzatu zuten.

Bilborocken, mikrofono ireki batekin eta denbora-mugarekin soilik, lekukotzak partekatu zituztenek haien ahotsak altxatu zituzten. Publikoaren parte zirenak, batez ere erakundeak eta kolektibo sozialak, entzuteko eta hunkitzen uzteko zeuden hor. Azaroak 25 Emakumeen Plazara heldu zen ondorengo kalejira eta espazio publikoa hartzea izan zen helburua, bereziki plaza hori duen sinbolismoagatik, herritarrei entzunarazteko erreparazio eskaerak eta horiek kolektibizatzeak.

Ekitaldiaren helburua entzute, sinesgarritasun eta duintze ekintza izatea zen, erreparaziorako ezinbesteko lehen urrats gisa. Halaber, hausnarketa eta ekintza sortu nahi zituen, gizarteak indarkeria matxistak desagerrarazteko duen erantzukizunaren inguruan, bai eta biktima diren emakumeak protagonista izango diren laguntza- eta erreparazio-prozesuei ekitearen inguruan ere.

Diseinutik parte hartzearen aldeko apustua Kintsugiren eraikuntza kolektiboan ere islatu zen, eta horrek parte-hartzaileengan izan zuen eragin positiboa.

*Kintsugia oso polita izan zen, animo handia eman zigun, oso pozik atera ginen. (...) Hain gustura egoteak eragiten du amaitu nahi ez izatea eta larritasunik ez sentitzea hura egin bitartean. (Biziraulea)*

*Taldekako dokumentazioek eta ekitaldia baino lehenago elkarrekin egindako entseguak emakumeak parte hartzera eramaten ditu. Kostatzen zaionari ere animatzen da; besteen testigantzak entzuteak laguntzen du (nire burua islatuta ikusten dut). Sentitzen den errua eta lotsaren aurrean taldeak laguntzen du. Era berean, kolektiboaren edo indarkeria motaren arabera, gerta daiteke taldeko ekintzek ez laguntzea. (Talde Eragilea)*

Prozesua ikaskuntza gisa baloratu da, ideien eta bizipenen etengabeko elkartruke gisa, non loturak eta eragina eraiki behar diren, beren gorabeherekin eta askotan zailak diren testuinguruetan, bai prozesuaren beraren inguruan (iraupena, konplexutasuna, konpromisoa...), bai parte-hartzaile bakoitzaren egoeren inguruan.

*Indarkeria instituzionalarekin haserre egotea, prozesuak salatzen lagundu ziezaiekeela ikustea aldi berean eman dira, bai eta egon nahia, prozesuan egoteko autoexijentzia eta konpromisoa, frustrazioa eta aldi berean prozesuan ezin egotea ere. Horrek guztiak pisu handia izan du egoera nahiko jasangaitzetan 3 urtez parte-hartzeari eusteko indarrak ateratzeko garaian. Gorabeherak egon daitezke eta hala ere geratu izan dira honek merezi dielako. (Talde Eragilea)*

*Badira bakarkakoari erreparatzen ez dioten ekintzak, baina aurrera jarraitzeko eragin positiboak dituzte eta espazio edo pauso politikoago / aktibistago batera eraman dezakete. (Talde Eragilea)*

## 2.2. ZAILTASUNEI HELDU

Prozesu osoan parte hartzea elementu erraztaile gisa agertzen da, baina une batzuetan zailtasun gisa ere agertu da, eragiten duen **nekeagatik**. Elkarriketatuek, beren rol desberdinetan, prozesu luzeei eustea oso konplexua dela partekatzen dute, are gehiago



egin behar direnean joan-etorriak, asteburuetakotopaketak, hainbat saio denbora gutxian... eta hori guztia, zenbait kasutan, familia eta lana bateratzeko beharrarekin lotuta dago.

Parte hartzeko zailtasun horren aurrean, malgutasunaren (neurriak, denborak, ordutegiak, formatuak...), ulermenaren eta **moldagarritasunaren** aldeko apustua egin da prozesuan.

Hasieran esan den bezala, parte hartzeko zailtasun horiek bizirauleengan zehazki, talde eragilean parte hartu zuten erakundeetan eta bizirauleen kolektiboetan ikusi dira. Talde eragileari dagokionez, proiektuaren lehen bi faseetan eutsi egin zaio, baina, azken aldian, osaera murriztu egin da.

**Prozesuari uko egiteko** arrazoiak askotarikoak izan dira, baita taldeen nortasuna eta ezaugarriak ere. Besteak beste, hauek agertzen dira: estrategia, helburua eta espazioko zereginak (eragilean kasuan) argi eta garbi transmititzeko gaitasun edo zehaztasun falta, denbora falta, enpleguekiko bateraezintasuna beste inguruabar pertsonal batzuen artean, lehentasun txikiagoa apustuak edo inplikatzeko ziren prozesuak aukeratu beharraren aurrean... Talde autonomoen kasuan, gizarte-mugimenduetako taldeenak, zaila da hain prozesu luzeetan parte hartzea, denbora luzea behar izaten baitute, eta, gainera, zaila delako talde baten ordezkari batzetzeko. Aipatzen da, halaber, formatu birtualek ez dutela beti laguntzen, taldean bertan loturak sortzea zailtzen dutelako, baina horiek denboran mantentzen ere laguntzen dute. Talde eragileari dagokionez, hirugarren fasean (erreparazio proposamenak eraikitzea) funtzionatzeari utzi zion, nahiz eta taldeko bi kidek esperientziaren sistematizazioan parte hartu zuten.

Aurre egin beharreko zailtasunekin zerikusia duen beste elementu bat izan da **indarkeria-prozesu irekietan** murgilduta zeuden bizirauleen zaugarritasunaz jabetzea, nahiz eta muga horiek definitzea zaila izan. Gainera, prozesuan inplikatzeko talde ezberdinen esperientziatik, taldeen artikulazioak eta bitzita sostengatzeko konplexutasunak ditu, are gehiago taldeak autogestionatuak badira, lehen aipatu bezala.

Jorratu beharreko beste zailtasun bat **gatazken kudeaketa** izan da, kolektiboetan ez ezik, maila sozialean ere badagoen gabezia gisa ulertuta. Prozesuan ere gatazka batzuk izan dira, ez berez prozesuarekin, baizik eta harreman pertsonaletan edota taldeen artekoetan, eta horiek ere zerikusia izan dute komunikazio-zailtasunekin, pertsonalaren eta prozesuaren arteko mugekin, gaizki ulertuekin, iritzi- eta estrategia-desberdintasunekin... baita bizi izan diren edo oraindik irekita dauden indarkeria-prozesuekin ere. Horrek guztiak deserosotasuna eta esperientzia zailak sortu ditu, bai pertsonentzat, bai kolektiboentzat, eta alde guztiak eroso sentitzeko alternatibak proposatzeko entzute eta **malgutasun** handiagoak eskatu ditu.

*Ulertu dute matxinatu daitezkeela eta, aldi berean, nola egiten denaren arabera, elkarri min egin diezaiokegula. Alde negatibotik, banaketa horrek mina eta ondoeza eragin ditu. Bi prozesu desberdin abiatu dira, agian biak batuz gero indar gehiago eduki izana. (...) Alde positibotik, bi prozesu egoteak erantzun espezifikoagoak ematen dizkie eskaerei, horiek lausotu gabe. (Taldea Eragilea)*

## 2.3. HELBURU ETA KONTZEPTUAK ARGI

Aurreko zailtasunen artean aipatzen zen bezala, **helburuetan eta prozesuan** argitasun eta pedagogia handiagorik ez egoteak zaildu zuen talde eragileko zenbait kolektiboren eta hirugarren faseko bizirauleetako batzuen jarraipena. Ildo horretan, parte-hartzaile batzuek adierazi zuten une batzuetan zaila zela gunee bakoitzaren helburuak ondo ulertzea, eta, halaber, parte-hartzaileen aniztasunari, konpromisoari, bizi-uneari edo aurreko esperientziei erreparatu zitzaiola.

Kontuan hartu behar da hasierako diseinu bat egon zela eta kolektiboki landu zela talde eragilearen eta bizirik iraun zutenen artean. Baina hirugarren fasea, non erreparazio-proposamen espezifikoak landu ziren, askoz irekiagoa izan zen taldearen erabakiekiko, eta horrek askatasun handiagoa ekarri zuen hura definitzerakoan, baina, aldi berean, "hutsa jauzi" bat izan zen, une batzuetan prozesuaren hurrengo urratsak transmititzea zaildu zuena.

Fase desberdinetan ikusi da, halaber, beharrezkoa dela kontzeptu komunak **jakintzat ez ematea**, eta garrantzitsua dela horiek argitzea, taldeko adostasuna lortzeko. Hori guztia ikusi da bai parte hartzearen ideiarekin, bai intzidentzia politikoarekin.

**Parte-hartzea** funtsezkoa izan da proposamenaren fase desberdinetan, eta hura ulertzeko hainbat modu ikusi dira, hasi bertaratzetik eta konpromiso-maila sakonagoetaraino edo proposamenak eta edukiak taldean eraikitzeraino.

Indarkeriatik bizirik atera direnen taldeen testuinguruan, batzuk bat zetozen emakumeen bizitzetako une batzuk eguneroko behar praktikoa oinarritzeko eta zehatzagoak betetzera eramaten dituztela, arnas luzeko edota intzidentziako prozesu estrategikoetan parte hartzea baino gehiago. Aitortzen da garrantzitsua dela aipatzea kolektibo edo pertsona batek elkar laguntzeko espazio baten bila eta bertan parte hartzeko prest dagoenean, eta eremu publikoago batera jauzi egin nahi eta ahal duenean, non botere politikoaren narratibak edo egiturak eztabaidatuko diren.

*Biziraule izatetik aktibista izatera pasatzean, prozesu pertsonalak oso desberdinak dira, eta zerikusia dute ezagutzarekin, lidergo-gaitasun gutxi-asko landuekin, prozesu pertsonalarekin, kontzientzia hartzearekin, egiten joatearekin, inpostorearen sindromearen gai horrekin guztiarekin, ez sentitzearekin espazioetan nahikoa ekarpen egiten dugula, errekonozimendu faltarekin. Jauzi bat dago honako biren artean: geure burua zaintzeko eta hobeto egoteko antolatzen gara, eta ikuspegi estrategikoago honekin intzidentzia politikoa egin nahi dugulako antolatzen gara. (Taldea Eragilea)*

*Agian, emakume batzuen prozesuaren zati bat da, lehenik eta behin, beren arazoa konpontzen laguntzeko beharretik hurbildu direla erakundera. Gero, agian, «nik parte hartzen dut nire kideak hobeto egon daitezen, edo berriak ere har ditzagun». Eta orduan pauso bat ematen dut kanpokoari eragiteko, are gehiago gizarteari begira. (Taldea Eragilea)*

**Intzidentziaren** kontzeptua ere berrikusten eta zabaltzen joan da; alde batetik, uste izan da bideratuagoa egon zitekeela erakunde-eremura, une batzuetan jakintzat eman zen bezala, eta, bestetik, gizartera modu zabalagoan bideratu izan dela edo eragile espezifikoak barne hartu direla (komunikabideak, erakundeak eta gizarte-mugimenduak edo beste batzuk).

*Prozesuan intzidentzia politikoa ulertzeko modu bat garatu dugu, ez bakarrik erakundearekiko harremanetik, baizik eta espazio publikoa okupatzetik, Bilborockeko ekitalditik, eraikuntza bateratu osotik, zuek ikusgarri egitetik. Hein batean, markoak apurtu dira eta beste aukera*



*batzuk zabaldu dira. Eta zuek protagonista izateak, eraiki izanak, beste intzidentzia- eta partaidetza-eredu osagarri garrantzitsu bati buruz hitz egiten du. (Talde Eragilea)*

Eraikuntza horretan ere begirada kritiko bat bota zaie erakundeen erantzunei horien indarkeria beragatik eta indarkeria matxistari aurre egitearekin lotutako baliabide-aniztasunarekiko desengainuari.

Ontzat jotzen da Indarkeria anitzez, **indarkeria matxistez pluralean** hitz egin izana. Kausa estruktural eta sistemikoak ulertzen eta salatzen laguntzeko dauden biolentzien aniztasuna eta biolentzia ezberdinen arteko lotura lantzea. Une batzuetan analisi espezifikoetan nolabaiteko nahasmena edo sakontasun txikiagoa sor badezake ere, egokia izan zen prestaketatik indarkeria desberdinei heltzea. Taldeka egindako dokumentaziotik abiatuta, non bakoitzak bere kideei bizipenen espezifikotasuna adierazi ahal izan zien eta sakondu ahal izan zuten. Baita espazio publikoetan ere, indarkeria ezberdinak eta horien arteko loturak ikusarazi nahi zirelako.

*Patriarkatutik ez ezik, kapitalismotik edo arrazakeriatik konektatutako indarkeriak konplexutu egiten ditu. Prozesuak zapalkuntza sistema ezberdinak elkarrizketan jartzen ditu. Zapalkuntza hauen loturaz dakiguna elkarrizketan jorratzea, emakume konkretuen eguneroko bizitzan. (Talde Eragilea)*

Denek partekatzen zuten, nolabait, indarkeria instituzionala bizi izana, eta horrek enpatia eta ezagutza sortu zituen parte hartu zuten emakumeen artean. Kintsugiko ekitaldira joan zen publikoaren artean ere bazeuden zenbait egoeraz kontziente ez zirenak, indarkeria instituzionalari begiratzeko eta ulertzeko zuten paradigma hankaz gora jartzea eragin zuen haiek ikusi eta entzuteak. Horrez gain, estrategikoa izan zen genero-identitateagatiko indarkeria jorratzea eta horri konplexutasun handiagoa ematea, besteak beste, trans emakumeenganako hainbeste transfobia-adierazpen baitaude gaur egun.

## 2.4. AKONPAINAMENDUA BIZIRAULEAK PROTAGONISTA IZANIK

Akonpainamendu prozesu osoan zehar giltzarria izan da zaintzarako. Akonpainamendu **plurala eta anitza** egin zaio prozesuari, baita indarkeriatik bizirik atera direnei ere, beren prozesu indibidualetan sartu gabe. **Mugarik Gaberen** gidaritzapean egin da akonpainamendu hori, non hiru emakume presente egon diren rol osagarriak izanik. Baina testu honetan zehar ikusi den moduan, ez dira bakarrak izan. Prozesuari akonpainamendua emateko beste rol garrantzitsua izan da **talde eragilearena**, hasierako ikaskuntzetan aritua. Eta baita **dokumentatzaileena** ere, oinarri garrantzitsua izan baitziren Kintsugi ekitaldirako testigantzen eraikuntza fasean. Rol horien osagarritasunak konfiantza eta lasaitasuna sortu du prozesuan parte hartu duten guztiengan, eta beren esperientziak entzutearen eta leialki jasotzearen aldeko apustua indartu du, akonpainamendu sakon eta erradikal batean.

Akonpainamenduaz hitz egitean, elkarrizketatuek asko estimatu dute bakea eta energia transmititzeko modua, tratu ona partekatu dute, gustura eta babestuta sentitu direla, lasaitasunez hitz egin dezaketela, espazio dinamikoak, politak eta zainduak eraiki dituztela.

Akonpainamendua begirada ireki eta malgu bat bezala ulertzen zen, tratuaren goxotasunarekin, eroso egon zitezen bilatuz: konbikzio politiko bat, eta prozesu honetan lan egin nahi zen bertatik. Elkartasun ekintza izan zen prozesu osoan eta espazio bakoitzaren



eraikuntzan, bai maila publikoan, bai eta intimoan ere. Hori guztia, biziraun dutenengan eta akonpainamendu prozesuan bertan indarkeriek izan duten eraginaz jabetuta, une zailak bizi izan dira akonpainamendua egiterakoan.

*Mugarik Gabetik beldurra geneukan espektatiba batzuk sortzeko eta ez betetzeko. Prozesuarekiko eta zuek esaten zein eraikitzen duzuenarekiko konpromisoa transmititzen dugu, edo denon artean eraikitzen dugun horretan saiatuko gara. Uste dut konfiantza sortu duela, eta horrek lotura mantendu du, lotura luzea, dokumentatu egiten delako, Kintsugi eraikitzen delako; ikusten dute, beren erara eraikitzen dute, denok batera eraikitzen dugu, funtzionatzen duela ikusten dute, gustatzen zaie, eta gero hortik gauza berriak diseinatzeko ditugu denek batera, beraiek nahi dutenaren arabera. Benetan prozesuarekiko konpromiso bat dago, nire ustez horrek lotura ziurtatzen du. (Talde Eragilea)*

Prozesuarekiko eta **bizirauleak protagonistak izatearekiko** konpromiso bat dago. Prozesuaren hiru faseetan presente izan dute emakumeen ekiteko gaitasuna eta prozesua ez instrumentalizatzea.

*Erreparazioa ez da ekintza bat, denboran luzatzen den eta lagundu behar den prozesua baizik. Emakumeak dira prozesu osoaren protagonistak. Zer behar duzu? galdetzen hastea. Prozesu kolektiboa. (Talde Eragilea)*

*Testigantzak partekatzen dituztenak dira protagonistak eta haienak erabakiak. «Hau ez da nire [gure] kontua» Irekiak egotea. Prozesuak eta erakundeak ez erabiltzea protagonistak. (Talde Eragilea)*

Akonpainamendutik proposamenak botatzen ziren, ulertzen zutelako iradokizunek edo ideia zehatzek laguntzen dutela parte hartzen, aurrera egiten eraikuntzan eta inplikazioan, eta hori dela lanean hasteko edota zerbait baztertzeko oinarria.

Bestalde, argi zeukaten akonpainamendua garrantzitsua zela prozesua gara zedin eta ekintza bakanetan ez geratzeko. Ildo horretan, azpimarratu da garrantzitsua dela gaia estrategikoa izatea erakundeentzat, eta agenda politikoetan egotea, unean uneko zerbait izan ez dadin.

Garrantzitsua da **itxaropenak, beldurrak eta mugak** argitzea akonpainamenduan espezifikoki eta prozesu orokorrean, baita zehaztugabetasun handiena zegoen zatietan ere. Prozesu honetan modu esplizituan egin da eta funtzionatu du.

*Talde guztiek pertzepzio bera dute: argi utzi duzue (Mugarik Gabe) eta geratu da noiz amaitu den proiektua, noraino eraman daitekeen eta zer goazen eraikitzen guztion artean. Modu esplizituan egin da, etengabe. (Talde Eragilea)*

Halaber, arreta berezia jarri behar zaie akonpainamendua egiten dutenen espektatibei, lotuak indarkeria lantzeko aurrez finkatutako ideiekin eta estereotipoekin, adibidez, partekatuko den testigantzari eta proposatuko den erreparazioari. Begirada dekoloniala eta arrazakeriaren aurkakoa txertatzea ere bai, are gehiago hain errealitate anitzak inplikatzeko dituzten prozesuak direnean eta kontziente izanik, kasu honetan, akonpainamendua egiten dutenen zurtasunaz.

Kintsugi osteko fasean, non erreparazio-proposamen espezifikoak eraiki nahi ziren, banakako eta taldekako erreparazioen aukera zabaldu zen, eta taldeek kolektiboen aldeko apustua egin zuten, eta prozesuak eta denborak errespetatuz lagundu zuten elkar. Oreak bat



aurkitu zen biziraun zutenen kolektiboen erreparazio-beharrak eraikitzeko prozesuarekiko errespetuaren eta akonpainamendua egiteko rola hartzearen artean (entzutea, proposatzea, haien gogoetak eta proposamenak errespetatzea, gure itxaropenak eta denborak berrikustea...). Talde motorrean ikaskuntza gisa nabarmentzen da, alde horretatik, txikia dena garrantzitsua dela prozesuetan, gehiago hartzeak ez baitu zertan gehiago erreparatu.

*Espazio landua, **lagundua** da, nahi duzuna esango duzu, zure espazioa da.* (Talde Eragilea)

## 2.5. ERREPARAZIO ESKAEREN ERAIKUNTZA

Erreparaziorako eskubidea bera eta erreparazio eskaerak izan dira prozesu honen oinarrian etengabe egon diren kontzeptuak. Lege-esparruak erreparaziorako eskubidetzat hartzen duenaren definizio zehatzak dauden arren, indarkeriatik bizirik atera direnen bizitzan horiek zehazteak askotariko formak izan ditzake, esaterako, emakume bezain beste forma, eta hori ateratako ikaskuntza argi bat da.

Esperientziak partekatu dituztenentzat eta bizirauleen taldeentzat zer den erreparatzailea galdetzea izan da prozesuaren muina, eta hala izaten jarraitzen du. Horri erantzuteko, prozesu horrek ideia hauek indartzen ditu: errezeta zehatzik ez dagoela, bai eta erantzun horrek ñabardurak dituela ere, indibidualetik edo kolektibotik begiratzen badiogu.

Atal honetan, indarkeriatik bizirik atera direnen eta talde sistematizatzailearen hitzetako asko azalduko ditugu, erreparazioa zer den galdetean zer erantzun dutenaren inguruan.

Zuretzat erreparatzailea denari edo izango denari buruz hitz egitea, eta Kintsugiren ondorengo prozesuan erreparatzailea zer den pentsatzea elementu psikosoziala da, baita politikoa ere; izan ere, uste dut batzuek ez zutela inoiz pentsatu zer zen erreparatzailea norberarentzat edo talde gisa esparru judizialetik harago. Gure buruari inoiz egin ez dizkiogun galderak dira. Behar duzun lehenengo gauza zure beharrak edo nahiak ezagutzea da...zure buruari hori galdetzea erreparaziorako ikaskuntza bat da. Espazio hori, berez, erreparazio bat bezalakoa da; izan ere, emakume askok presarik gabe hitz egin ahaliko duten espazio bakarra da, zuk behar duzun denbora guztian norbaitek zuri entzutea, espazioa bera sortzea, hura inoiz izan ez duten askorentzat jada erreparatzailea izan dela uste dut, eta konturatzea horrek on egiten diela, garrantzitsua dela, eta haiek erabaki ahal izatea eta gero konturatzea erreparatzailea bestea zela, uste dut ikaskuntza bat izan dela. (Talde sistematizatzailea)

**Kintsugiko** ekitaldian zentratuz, erreparatzailetzat identifikatzen zituzten elementuei buruz elkarrizketatutakoek emandako erantzun batzuk ekarri ditugu, horietako asko prozesuarekin, entzutearekin, kolektibotasunarekin eta afektuekin lotutakoak:

- *Askotan ozen esan ahal izatea eta epaitzen ez zaituztela ikustea. Hori izan daiteke erreparatzailea, kontatu ahal izatea eta erotu bazina bezala ez tratatzea.* (Biziraulea)
- *Oso garrantzitsua da entzuten gaituztela sentitzea, ulertzen gaituztela sentitzea, eta batez ere dena idatzita geratzen dela, eta hiru urte barru agian lau, nik zer dakit noiz, zerbait aldatuko delaren itxaropenarekin ateratzen zara.* (Biziraulea)
- *Aitortza, ikusgarritasun publikoa eta protagonismoa lehenengo pertsonan bizitzea, subjektu politiko gisa, duintasunez eta kontuz.* (Talde Eragilea)



- Errua kentzea. (Biziraulea)
- Publikoak (erakundeek eta laguntza mugimenduek) entzutea erreparatzailea izan zen bere horretan. (Talde Eragilea)
- La Sinsorgan ontziak entregatzea une erreparatzailea izan zen afektuetatik, eraiki genituen harremanetatik. (Talde Eragilea)
- Kolektiboa eta pertsonala politikoak direla ikustea. Ekintza politikotzat hartzea oholtzara igotzea, hori ere intzidentzia delaren ikaskuntza. Zu sendatzen bazara, ni ere, lehenengo pertsonan kontatzea nire testigantza jakinda zuena ere badela, jakinda ez nagoela hemen niregatik bakarrik. (Talde Eragilea)
- Oso erreparatua sentitu nintzen, oso gustura, izugarri gustatu zitzaidan. Niretzat hori guztia oso garrantzitsua izan zen, tira, niretzat eta guztiontzat, horregatik parte hartu nahi genuen. (Biziraulea)
- Ekitaldi polita izan zen, adierazgarria, beste batzuk ezagutzea eramanez. Han gertatu zen guztia gure egoerak ziren, gure bizipen propioak. Nik ez dut nire minarentzako erreparazioa lortu, baina gustura sentitu naiz, hitz egin ahal izan dut eta ulertuta sentitu naiz. (Biziraulea)

Une desberdinetan agertu dira **ez errepikatzeko bermeak**, bizirauleek aurre egin dieten indarkeriak beste batzuek bizi behar ez izatea eta indarkeria instituzionala ez erreproduzitzea. Elementu hori hasieratik sortzen da, eta are indar handiagoz azken fasean, eragin politikoari lotuago.

- Maila politikoan, entzun behar gaituzte, ez gara isilik egon behar, aurkitzen ditugun zailtasunez hitz egin behar dugu, gauza asko falta dira oraindik. Zailtasun asko ikusi ditugu eta aurpegia eman behar zaie, eta galdetu «zer gertatzen ari da?»; saiatu behar gara atzetik datozenengatik. (Biziraulea)
- Gutako inor ezin da erreparatuta sentitu, inor ez delako atera bere semea eskutik hartuta. Baina hasi ginenean bagenekien hori. Mugarik Gabek ez du bola magikorik, baina bakarrik egin beharrean, zerbait egitea ahalbidetzen dizun elkarte batekin egiten ari zara. (...) Orain bilatzen dudana da jendeak jakitea zer bizitzen ari garen, hau gertatzen dela eta edozein amari gerta dakiokela. (Biziraulea)
- Nire behar indibiduala zaila da, ezingo da borrokatu, baina nik borrokatuko dut errepikatu ez dadin. Baina bai, zenbaitetan aipatu da beste bati ez gertatzearen kontua. Uste dut oso presente dagoen gaia dela. Hori oso garrantzitsua da, niri balioko ez didan arren, beste batzuentzat egoera aldatzen lagundu dezakedala jakitea. (Talde Eragilea)

Prozesuaren azken faseari begira, biziraule batzuek jarraitu zuten kolektiboki eraikitzen haientzat erreparatzailea zen hori, jakinik ez dagoela errezetarik eta hori beren prozesu indibidual eta kolektiboen menpe dagoela. Edonola ere, hori guztia eztabaidatzeak parte-hartzaile guztien ekiteko gaitasuna indartu du, baita haien ezagutza eta erreparazioa ere. Beste ikaskuntza bat izan da onartzea gauza batzuk ezin direla erreparatu baina horregatik ez direla etsipenean erori behar.



Hasieran azaldu denez, bi erreparazio prozesu kolektibo abiatu dira. Biek ala biek aurrera egin dute bizitako gabezia instituzionalei buruzko dokumentu kolektiboak eraikitzeke proposamenetik, entzuteak eta haren balizko erantzunek beharrezko erreparazio horiei ekarpena egiteko helburutik. Prozesuetako bat dokumentu bat eraikitzean oinarritu da, Eusko Legebiltzarrean aurkeztu ahal izateko, dauden gabeziei buruz, indarkeria instituzionala ardatz hartuta eta konpromiso batzuk exijituz. Bigarren prozesuan proposamena izan zen sententzietan oinarritutako txosten bat eraikitzea justiziaren arloko gabeziak ikusteko eta esparru instituzionaletan aurkezteko.

Bi kasuetan, fokua erakundera zuzentzen da, baina argi eta garbi prozesuaren beraren garrantziaz, testuinguruan izan dezakeen eraginaz, nahiz eta berehalako erantzunik edo erantzun egokirik ez izan.

- *Esaterako, erreparazio sozialerako modu batzuek erakundeak estutzen dituzte, baina ez da bakarrik geratzen erakundearekiko itxaropenean, jakina baita horrek askotan ez duela funtzionatzen. **Impunitatearen aurkako borroka** honen ezagutza eta heldutasun handiko potentzia bat dago (bizirauleen partetik), instituzioak dena konponduko duenaren itxaropen horiek gabe. Erreparazioari beste tokietatik heldu behar zaio, kontzientziaz eta argitasunez. (Talde Eragilea)*
- *Oso potentea da konturatzea batek gaitasuna duela eta diskurtsoa ikasten edo eraikitzen joan daitekeela, egiten den gaizki hori ere pixka bat erakundeak **aitor dezan**, jada ez dela legea aldatzeko eskaera bat, baizik eta salatzeke beste kontu batzuk badaudela: jendea trebatuta ez egotea, biktimei ez entzutea, baliabide nahikorik ez bideratzea, eta abar. Nola eta non esan, nork esaten dugun ikasi ahal izateko prozesua... oso aberasgarria izaten ari da, baita erreparatzailea ere gutako bakoitzarentzat. Ahal duzula sentitzea. (Talde Eragilea)*
- ***Aitortza** erreparazio puntu garrantzitsua da. Parlamentu batek edo sententzietan aditua den baten txostenak gauzak gaizki egiten ari direla aitortzeak zilegitasun asko ematen dio lanari. Pauso bat gehiago da, oso garrantzitsua, eta lanean jarraitu beharko dugu gizartearekin eta bertan eragiten. Honetan sartzeak beste nonbaitera eramango zaituelaz jabetzea. (Talde Eragilea)*
- *Epaitegi batean erregistro bat egotea lortzen bada, erreparatzailea izango da beste biktima batek erantzun behar ez izatea zenbait ergelkeriri, edo erakunde bat sortzea (...) hain kontu arina izan ez dadin ergelkeri horiek salatzea eta gu egun oro epaitegian egon behar ez izateko. (...) Azkenean zerbait **lortzen bada** honen bidez, bai, oso erreparatzailea iruditzen zait etorkizuneko pertsona asko eta askorentzat. (Biziraulea)*
- *Indarkeria bikarioa eta genero-indarkeriaren errealtatea **ikusaraztea** komisarioetan, epaileetan eta gizarte-langileetan...Eta emakume bakoitzaren berezitasunak artatzea eta atentziorako ate bakar bat egotea. (Biziraulea)*
- *Pertsonalki, erreparatzailea izan da aurreratu dudan guztia, lehen **ikusten** ez nuena baina orain bai (indarkeriak identifikatu...). (Biziraulea)*
- *Intzidentzia politikoan lan egitea erabaki genuen. Dokumentu bat egin dugu. Lagunei, seme-alabei kontatu diet, nire apunteak erakutsi dizkiet...Ikasten egongo banintz bezala. Burua funtzionatzen jarri dut, garrantzitsua delako, gogotsu sentitu naiz, motibatua, gustatzen zait, guztiok gaude **irrikatsu**. (Biziraulea)*



- Erreparatzailea izan da **babestuak** sentitu garelako, aukera eman digulako edozertaz iritzia emateko, espazio seguru batean. Hezitzaileak, baita konfiantza eta konplizitatea ere, oso onak izan dira. Pertsonalki uste dut erreparatzailea izan dela. Legebiltzarrerara joateko irrikatzen gaude, baina aldi berean, ni nerbioak jota nago. Irakatsi diguten guztia. Gutxienez, ahotsa eman diezagutela eta existitzen garela jakin dezatela, erakundearen eta biktimaren arteko puzzlean falta den pieza garela aitortu dezatela. Niretzat erreparatzailea izan da, eta baita erakunde gisa, hori egon ahal izatea...Eta ikus gaitzatela, eta jakin dezatela **existitzen garela**, eta ez garela isilik egongo, kexa pila bat ditugula jartzeko. Eta ez bakarrik guregatik, gure atzetik datozenengatik eta gure haurtxoengatik ere. (Biziraulea)
- Epaietan lan egiten ari gara, oso lan ona egin da. Gero ez dakit analisi hori norabait helduko den eta zerbait egingo duen norbaitek irakurriko duen. **Ikusgarritasuna** ematea garrantzitsua da. (Biziraulea)
- **Prestakuntza** erreparazio tresna gisa. Normalizatu beharrean, indarkeriak identifikatu, antzeman eta horietaz jabetzeak...bizitakoa erreparatzen laguntzen dizu. (Biziraulea)
- Elkarri eragiten diogu etengabe. Argi geratu zaigu emakume askorentzat justiziak ez ohi duela erreparatzen. Erreparazioa **beste bide batzuetatik** bilatu behar da. Bizitu eta Gerlarien arteko lotura lantzen jarraitzeko gunea ere izan da, sarea garrantzitsua dela berresteko ere, eta mantentzeko zein jarraitzeko ahalegina egin behar dugu. (Talde Eragilea)
- Esperientzia luzea izan da, badakit bide hori nik egin dudala, baina **ez naiz bakarra izan** eta aukera izan dut horretaz hitz egiteko eta existitzen dela esateko. (Biziraulea)

## 2.6.INDIBIDUALETIK KOLEKTIBORA

Bai dokumentazio prozesuan, bai Kintsugiko ekitaldian, eraikuntza guztia ez da izan etereotik, baizik eta indibidualtasunetik, **bizipen eta esperientzia propioetik**. Hortik eraiki da, antolakuntzakori lotutakoa indartu da eta eskaera kolektiboa eraiki da; hori izan da prozesuaren beste ikaskuntzetako bat. Norberaren esperientziari balioa ematea, bizi izandakoaren gorpuztasun horretatik abiatzea, kontakizun kolektiboaren eraikuntzari ekarpena egiteko.

Kintsugi prozesuan dena lausotzen zen eta ez genekien zer zen indibiduala eta zer kolektiboa. Metodologia horiek bizipenetik eraikitzen dute bizirik dagoena, lur ematen diguna eta gertatu zaidana kontatzen laguntzen diguna, horrek nire gorputzean nola eragin duen, nola bizi izan dudana eta horrekin zer egin nahi dudana (...) Entzuteko espazio horiek sortzea, non bizi baitaiteke indibiduala oso garrantzitsua dela, azken finean dena indibiduala da, baina gero horrek kolektibo bat sortzen du. Eta berebiziko garrantzia du zure antzerako zerbait bizi izan duen norbaitek entzuteak. Istorio guztiek zerbait partekatzen dutelako, nahiz eta bakoitza indibiduala izan. (Talde Eragilea)

Indibidualetik kolektibora hel zaitezkeela uste dut, noski. Bakoitzak esperientzia bat zeukan, ordezkatuak geunden.(...) Eta dagoeneko asko direnean errazagoa da aldaketa, errazagoa da arretra lortzea. (Biziraulea)



*Talde dira entzuteko eta gauzak aldatzeko duten beharragatik. Indarrak batuarazten gaitu, banaka ezin dugu ezer egin. Indibiduala denak joatera bultzatzen gaitu eta kolektiboa denak esatera «tira, orain gehiago gara». (Biziraulea)*

Kolektibizatutako kontakizunetatik abiatuta, inplikaturako elkarte batzuk indartu dira. Hori azpimarragarria da Bizituren kasuan, non hurrengo fasean aurrera egitea eta erreparatzeko eskaera espezifikoak erakitzea erabaki zuten:

*Asko ikasi dugu eta gero hori aurrera eraman dugu bakoitzaren ekarpen eta bizipenei esker. (Biziraulea)*

*Lagunduta sentitzen naiz. Nire kideekin egotean sentitu dut aitortza eta akonpainamendua badagoela. Kolektiboa, azken finean, aitortza baten modukoa da. Ez nago erotuta. Hau ez dut imajinatu. Ez ditut gauzak testuingurutik atera. (Biziraulea)*

Indarkeria instituzionalaren inguruko epaiei buruzko txostenaren kasuan, hasiera batean, emakume gehiagoren inplikazioa espero zen, baina kasu batzuetan haien parte-hartzea epaiak partekatzerara mugatu da, eta ez dira prozesuarekin lotu. Kasu horretan, zailtasunak aldeztu aurretik planteatutako elementuekin lotuta egon litezke, hala nola indarkeria-egoera irekiak egotea, eta prozesua eta haren aukerak eta laguntzeko gabeziak ulertzeko edota azaltzeko zailtasuna.

Kasu batzuetan, ahalduz kolektiboa nabaria da, bai taldearen aldetik, bai taldekide batzuek duten kontzientziatik, erreparazio-eskubidearekin berariaz lotua. Biziraule batek zioen bezala, erreparazio-prozesuak kolektibotik egin daitezke, bizirauleen eta erakundearen inplikazioarekin, eta, gainera, erabilgarria eta eraldatzailea izan daiteke. Hala ere, batzuetan zaila da eskaera indibidualak kolektiboekin bateratzea.

*Prozesu hori egin dugunon eta egin ez dutenen arteko desberdintasuna asko nabaritzen dut orain. Biltzarrak egitean, hitz egitean, guztian. Lasaiago egoteagatik, egoten jakiteagatik, zer esango duzun pentsatzeagatik eta gero esateagatik. Ez soilik hobeto esateagatik, baizik eta batzuetan minik ez egiteagatik ere. Niretzat erreparatzailea da minik ez egitea, ez niri ez nire albokoari, gero ezinegon horrekin zoazelako...«Zergatik esan dut hori?» Niretzat erreparatzailea izan da. Batzuetan defentsibari jartzen gara. Norbaitek, dena delakoagatik, egun txarra izan badu eta txarto erantzuten badizu, bizitzan sufritu duelaz konturatzen zara, gehiago ulertzen duzu eta kideak laguntzen dituzu. (Biziraulea)*

*Ezinbesteko gakoa da jakitea bakarrik egonda ez duzula ezer lortuko, edo askoz zailagoa izango dela. Eta, hala ere, gauza bera bizi duten beste batzuekin elkartuz gero, beti aurkituko duzu babes hori, argi hori, indar hori beste leku batera joateko eta erakusteko bat ez garela, pilo bat baizik. Askotan, erreparazioa eskubidetzat hartzen dugu, eta uste dugu kalte egin didanak bere gain hartu behar duela kalte erreparatzea, izan kalte-ordainaren bidez, aintzatespenaren bidez edo beste gauza batzuen bidez. Momentu askotan, izan Estatua, izan erasotzailea, izan nire auzoa, ezin dut aintzat hartu kaltetu nauena eta horregatik ez diot prozesu bat egiteari utzi behar. Ezin dut itxaron nire min-prozesu, eraso-prozesu guztiak ixtera beste pertsonak edo X erakundeak erantzun arte. Beste kontu bat da exijitzea. Nik beste bide bat egin ahal izatea akonpainamenduarekin, baina beste toki batetik. (Talde Eragilea)*



*Beste batzuekin lantzea, zentzua duela ikustea, nork bere gain hartzea gure **erantzukizunak**, ematen ari den hainbeste indarkeriaren erreparazio honi erantzun politikoa ematen saiatzea. Guk ere gauzak eraiki ditzakegu beste batzuen menpe egon gabe. (Talde Eragilea)*

*Ekitaldiak indarra eman zuen, publikoa denak aitortza. Eragin horiek indarra eman zuten geroago jarraitzeko. Kolektibitatea bidea zelaren zantzuak eman zizkigun. (Talde Eragilea)*

*Kintsugiko emakumeek nahi izan zuten bezala eta nahi izan zutena kontatu zuten beren bakarkako esperientzia pertsonalaz; hori taldean aztertua genuen eta espazio publiko batean partekatu zen. Esparru/eremu desberdinak lantzen saiatzearekin asmatu genuen: publikoa, indibiduala eta kolektiboa. Bakarkako espazio propio bat izatea ere oso garrantzitsua izan zen, nahiz eta publiko batentzat izan. Hainbeste jenderen aurrean hitz egin ahal izateak esaten dutena balioesten du nolabait, eta balio izan du bigarren zati honetan gehiengoak aurrera egin dezan, arlo pertsonalean eta kolektiboan ere balio izan duela ikusi baitute. (Talde Eragilea)*

## 2.7. NOLA EKITEAREN GARRANTZIA

Kapituluan zehar eta aurretiko ikaskuntzetan ikusi den bezala, prozesuaren fase bakoitza oso ondo zaindu da, ez soilik ikuspegi estrategikotik eta edukietatik, baita nola, alderdi sinbolikoari, metodologikoari, akonpainamenduari eta abarri dagokienez ere.

Aurretik sortu ez diren elementu batzuk nabarmentzearren, biziraileen ekiteko gaitasunari lotuta egongo zen **iruditeri** bat eraikitzeak Kintsugiren proposamena ekarri zuen.

Kintsugia ehunka urteko gorako teknika japoniarra da, hautsitako zeramikazko piezak urre hautsarekin konpontzean datza, eta «orbainak» disimulatu ordeztu, aparteko zerbait sortzen da, balio berri batekin. Iruditeria horrek fase publiko osoa lagundu zuen, ez bakarrik komunikazio-kanpainan, baizik eta biziraileen zein emakumeen akonpainamenduan eta indarkerien salaketan erreferenteak izan diren elkarteentzako aintzatespen-prozesuan ere.

Artista batek hainbat **kintsugi** eraiki zituen, guztiak ezberdinak, emakumeak diren bezala, eta, alde batetik, bi emakume eta feminista elkarteri eman zizkieten, apustu kolektiboaren eta borroka hauetan urteak daramatzatzen aitortza ikusaraziz. Beste aldetik, testigantza eman zuen bakoitzari kintsugi bana eman zitzaion, esperientzia horren oroigarri gisa eta haien arteko elementu partekatu gisa.

*Hunkitzen gaituenak benetako eragina du, hori da estrategikoki gogoratuko duguna etorkizunean. (Talde Eragilea)*

*Espazioak, polita dena, eremu informalak zaintzea lotura sortzeko. Egotea. Gainera, nola egiten den ere politikoa da (denborak, sinbolikoa dena...). (Talde Eragilea)*

Kintsugiko espazio guztia ekitaldi zaindua izan zen, entzuteko, sinesgarritasunerako eta duintzeko ekintza, erreparaziorako ezinbesteko lehen urratsa dena. Lekua, espazioen banaketa eta solemnitatea zaindu zen.

Zaintza hori, Kintsugin agerikoagoa, prozesuaren beste faseetan ere egon da, lekuetatik edo askaritik dokumentazioekin, denbora eta gertutasuneraino azken fasean.



### 3. ERAGINAK

Kapitulu osoan zehar, nolabait parte hartu dutenen bizitza indibidual eta kolektiboaren hainbat esparrutan prozesuak dituen eraginei buruz hitz egiten duten elementu asko sortu dira.

Atal honetan, aurreko ataletan jaso ez diren eragin batzuk jaso ditugu, bizirik atera direnen ahotsen eta talde sistematizatzailearen bidez, bai eta haien erakundeetan, laguntza-kolektiboetan eta komunitatean ere. Kasu honetan, aipu asko mantendu dira horien ekarpenaren garrantzia balioesteko.

#### 3.1.ERAGINAK BIZIRAULEENGAN

Aurreko ataletan bezala, entzuteak eta aitortzak eragin oso argia izan dute bizirauleen eta parte hartu duten pertsonengan. Eragin zuzena izan dute kausa politiko eta sozial bateko **kide direla** sentitzean, aspalditik eraikitzen ari baitira eta horrelako ekintzek bultzatzen jarraitzen laguntzen dute.

- *Niretzat oso garrantzitsua den kausa baten alde zerbait egiten ari zarela jakitea, (...) ezin dudala mundu guztiarekin hitz egin, ezta mundu guztiari kontatu ere, jende askok ulertzen ez duen zerbait delako, eta are gehiago jada bizi izan duzunean eta atera zarenean, (...), eta egiten ditugun pausoak txikiak izan arren, batez ere jakin dezatela hor gaudela, hor gaudela, pixka bat zirikatu badezakegu, bada, egingo dugu, (...) asko sendatzen nau gauza hauetan guztietan egoteak. (Biziraulea)*
- *Eurek bizi izana zer zen euren istorioa kontatu ahal izatea, dokumentazioetan entzunak izatea, eszenatoki batera igotzeak zer suposatzen duen ikustea eta mundu guztiak zuri entzutea eta txalo egitea, manifestazioa...lagungarria izan da ikusteko garrantzitsua zela eta jarraitzera animatzeko, bai indibidualki, bai taldean. (Taldea eragilea)*

Prozesu horrek, halaber, sostengu **emozionala** sustatu du, eta bizirauleak ongi sentitu dira; konfiantza eta estimua indartu ditu haiengan, minak baretzen eta ahalduntze indibidual eta kolektiboa indartzen lagundu du.

- *Mundu guztiak uste duena baino askoz ere gai potoloagoa da norberak sinestea parte garrantzitsu bat dela honen helburua lortzerakoan eta gu geu giltzarriak garela gizarteari zein erakundeei ikustarazteko gure intzidentzia. Horrela, ahotsa eman edo jarri eta honetatik pasatzen garen emakume guztiok ahotsa jarri ahal izatea benetako jendeak entzun dezan. (Biziraulea)*
- *Niri balio izan dit tokietara joaten ausartzeko eta metroan oso ondo moldatzeko. Hori ere erreparatzailea izan da niretzat, indarkeria jasan nuenean ez nekielako bakarrik joatea inora. (Biziraulea)*
- *Jazarpen judizial izugarria daukagu. Oso erreparatzailea izan zen esan ahal izatea «beitu, nik, pertsona bakarrak, hau guztia dut eta ezinezkoa da». (Biziraulea)*
- *Denak atera gara gure minaren barruan lasaigarri bat emango baligute bezala, eta, bat-batean, min hori leunagoa da... denok dugu min hori hor, baina entzun gaituzte, zorionez*

agertoki bat egon da hitz egiteko, lorontziarena arimara iritsi zitzaigun. Behingoz entzuten gaituzte, eta txalotu ere, oso sendagarria. (Biziraulea)

- Jendea hurbiltzen zen eta besarkatzen zintuen. Hori, indarkeria instituzionala eta bikarioa existitzen dela, gertatzen ari dela esatea erreparatzailea da. Ikusgarritasuna ematea niretzat erreparatzailea da. Kalejiran giro hunkigarria eta eroso zegoen. Lagundua eta aitortua sentitu nintzen. (Biziraulea)
- Oso polita, aitortua (ez dakit erreparatzailea esango nukeenik), ez epaitua. (Biziraulea)

Bizirauleek eraginak partekatzen dituzte, eta horiek ere haiekin erlazionatzen dira, taldearen parte gisa, eta **indibidualtasunak haien erreferentzia-kolektiboetan parte hartzearekin duen loturarekin**. Horrela, taldearen indartzeak eta talde-ikaskuntzak emakumeengan ere eragina izan du.

- Ixten lagundu ninduen. Garrantzitsua da gure arteko akonpainamendua, baina ez «ninduen salbatu». Gertatu den horrek zerbaitetarako balio du. Eragin oso positiboa. Mundu guztia oso pozik geratu zen, emakumeak eta elkarteak. (Biziraulea)
- Ontzi-aldaketa baten modukoa da, elkarri elikatzen diote. Indibidualki indartsuago eta gaitasun handiagoa duzula sentitzen zoazen heinean, kolektiboari partekatzen diozu eta horrek kolektiboa indartzen du. Prozesuan igartzen ari da hasieran elkar ikusten ez zuten emakumeek gero eta gehiago ikusten hastea. Indibidualak eta kolektiboak elkarri elikatzen diote. Pentsatu nahi dut, adibidez, Kintsugian Guerrerasen kideak erreparatuak sentitu zirela. Banakako eragin oso argia dago, guztiak erreparatzen gaitu. Modu indibidualean eta kolektiboan. (Taldea Eragilea)
- Partekatzen duzu. Besarkadak, begiradak eta baita fereka bat ere partekatzen duzu. Mugarikekoak izatea, erakundekoak izatea oso onuragarria da. Gizakia taldea da Ez da banakakoa. Honek poztasun handia ematen dit, ez dut batzarrik galtzen. Joan behar naiz. Gauza batzuen inguruan ez ditut ezta nire lagunekin hitz egin. Eta gero, besteak entzuten dituzu. Egoteak, laguntzeak, galderak erantzuteak, oholtzara igotzeak eta esan beharrekoa esateak sendatzen nau. Ondo sentitzen naizelako nire buruarekin. (Biziraulea)
- Interesgarria da egoera antzekoetan egon diren emakumeak. Oso gustura kideekin eta akonpainamendua egin zutenekin. Entzuteko espazioak, intimoak, pertsonalak eta guztiak onod egoteko; akonpainamendua elkarrekin egoteko eta elkarri animatzeko modua. EZ ziren soilik batzarrak, ulertzen zintuzteten pertsonekin egoteko tokia bihurtu ziren. Nik egoera berean jarraitzen dut, indarkeria instituzionala bizitzen, baina ekarri zidan beste pertsona batzuekin egon ahal izatea, beste pertsona batzuk ezagutzea, antzeko gauzak bizi dituztenak; nik bezala sufritzen duten beste emakume batzuen bizitzako beste alderdi batzuk ikusi nituen. (Biziraulea)
- Tarte onak, parte-hartzea, hitz egitea, azalpenak eta beste ikuspuntu batzuk aurkitzea. Kontatzeko, irekitzeko eta gustura egoteko gai izatea. Ikusgarritasuna. Genero indarkeriaren biktima aitortzen naiz, edonor izan daiteke. Entitate politikoek entzun gaituzte. Sendatzea. Aitortu gaitzatela. (Biziraulea)
- Politikoi prest egotea. Oso emakume jatorrak eta profesionalak. Asko ikasi dugu (ikaskuntza prozesua). Mugarik Gabek badaki nola gidatu, nola ondo sentiarazi, baita garrantzitsuak ere, eta maitasunez koordinatzen gaituzte. Aspalditik ez nintzela hain ondo sentitzen. Nire



*doluan, nire kontu guztietan lagundu dit. Ez dut soilik lagundu nahi, nigatik ere egiten dut. Baliagarria sentitzen naiz. (Biziraulea)*

- *Taldearen batasuna, ondo lan egin dugu, ondo antolatu gara, errespetua, ikaskuntza. Alderdi politikoan zarata egingo dugu, ez gara lotsatu behar, maila berean egongo gara eta entzun beharko gaituzte. (Biziraulea)*

## **3.2. ERAGINAK BIZIRAULEEN ETA AKONPAINAMENDUA EGIN ZUTENEN KOLEKTIBOENGAN**

Prozesu horretan, eragin nabariak ikusten dira parte hartu duten **bizirauleen erakundeetan**, bai indartu direlako, bai eta izan duten ikusgarritasuna eta aitortzagatik.

Barne-antolakuntza sendotzeak aukera eman du bere ekintzen proiektio zabalagoa izateko, eta horrek eskatzen du kanpo-aitortza, entzute eta ikusgarritasun handiagoa izatea, beste biktima batzuei lagundu ahal izateko.

Taldeak babesten du eta demostratzen du hobe dela elkarrekin egotea. Prozesuak, protagonismoen eta zereginen banaketak, konplizitateak ahalduz kolektiboa sortu zuten, eta kasu batzuetan urteetako lana nolabaiteko oihartzuna eta eragina izaten ari dela sentitzea.

- *Beste emakumeekin egindako prozesu honetan, pausoak eman ahala honek merezi zuela, zerbait ekarriko zuela sentitzen hasi nintzen. Bizitun, prestakuntzak, Legebiltzarrerara joatearen ideia...Gertatu diren gauzek emakumeak animatu dituzte eta hobeto kudeatzea eragiten dute. (Biziraulea)*
- *Topaketez ari garenean, askok sentitzen dugu ez gaituela ulertzen ezta gure familiak. Eta hemen pentsatzen duzu ez zarela ero bat, eta ez zaudela erotuta, baizik eta guztiak sentipen berdinak ditugula; elkar ikusten, besarkatzen, babesten dugu, baita errespetatu ere, eta hori ez dut beste emakume taldetan ikusi. (Biziraulea)*
- *Erakunde bat izatea, haiek jakitea leku batera iristen direla eta ez daudela bakarrik, eta antolatzea eta trebatzea garrantzitsua dela ulertzea. Heltzean ez da zure lehentasuna, baina gero ikusten duzu daukan garrantzia. (Biziraulea)*
- *Norbere ahotsaren aitortza eta zilegitasuna espazioetan (Bizitu eta Gerlarien prozesuan Legebiltzarrerantz). Antolaketa autonomiari eutsi izana eta sareko bide bateratua markatu izana. Emakumeek uste dute indarra izan dezakegula ez bagaude bakarrik, elkarlanean baldin bagaude. (Taldea Eragilea)*
- *Eragina jasan dute baita **prozesuaren akonpainamendua egin duten kolektiboek** ere, nagusiki talde eragileak, eta bertan barnebiltzen dira bizirauleen, feministen eta gizarte-elkarteak Arlo honetako eraginek zerikusia dute akonpainamendua egin duten kolektiboekin eta zuzenago inplikaturako emakumeekin.*
- *Aktibistatzat dugu gure burua, ez gara bizitzako istorio batean zentratzen, ez soilik indarkeria gertakizun batean, baizik eta indarkeria instituzionalean; horrek sistemarekiko etsipena sorrarazten du. Kintsugin zenbait emakume aurkitu nituen, zeinen istorioak ez nituen ezagutzen, baina irakurriak nituen eta hortik hasi ginen elkarrekin etorkizuneko erreparazio neurri posibleak eraikitzen. Guretzat nolabait erreparatzailea izan zen prozesua*



*eman zen, besteen minak irakurri genituelako eta konektatu genuelako, eta Kintsugi ekitaldia partekatu genuelako. Beste emakumeekin oholtzan erreparatu ginen. Beste motatako eragina dago, positiboa. Feministak garen eta indarkerien aurka borrokatzen dugun heinean, zentzua ematen dio egiten dugunari, eta denok erreparatzen gaitu pixka bat; horrekin ere badu zerikusia. Egon beharreko tokian zaudela adierazten dizu, hor, erne eta tinko. (Talde Eragilea)*

- *Testigantza pertsonalak ziren, lehenengo pertsonak kontatuak, baina, aldi berean, indibiduala zena oso lausoa zen. Kolektiboa bazegoen testigantza pertsonalen bidez. (...) Bihotzetik eta erraieetatik konektatzen zaitu, beste baten bizitza delako, lehenengo pertsonan, baina berdin dio, zu izan zaitezke edo baita ni ere. (Talde Eragilea)*
- *Bizitzeko eta erreparazio prozesuak martxan jartzeko prozesua izan da, ez soilik idazteko. Bestalde, erakunde gisa inplikatzeko, eta ez geratzeko salaketan bakarrik. Emakumeak protagonistak izanik eta gizartearen ardura izanik prozesu hauen akonpainamendua egiteko. (Dokumentala)*

### **3.3. ERAGINAK KOMUNITATEAN**

Prozesu horrek komunitatean ere izan ditu eragin batzuk, nahiz eta ez diren hain esanguratsuak izan, prozesua gehienbat zentratu delako bizirauleetan, eta, bigarren zatian, haien kolektiboetan.

Nolanahi ere, batez ere Kintsugiaren bigarren fasean, eragina izan zuen bertaratutako publikoarengan, erakundeengan eta gizarte-mugimendu eta komunikabideengan.

- *Maila sozialean, jendeak testigantza horiek zuzenean entzuteak, une horretan ikusten eta entzuten ari ziren errealtatearen konplize edo arduradun bihurtzen zituen, hori ez baita beste espazio batzuetan kontatzen. Oholtza gainean dauden emakumeentzat oso garrantzitsua izan behar da ikustea hitz egin dezaketela, jendeak entzuten dituela eta ezin dietela erantzun, esandakoarekin geratu behar direla, haien egia delako. (Talde Eragilea)*
- *Kintsugira bertaratu zen publikoan eragina izan zuen, erreparazio sozial edo komunitario bat gertatu zen. Ekitaldian kontzientzia hartzen zeudenez gain, beste batzuk joan ziren esateko «nik zerbait egiten dut», bizi garen gizarte honetan dagoen indarkeria matxista guzti horretatik erreparatzeko; nolabait, guztiok sendatzen ginen pixka bat. Aitortza kolektiboa zen. Bilborocken islatu zena auzoetan eta komunitateetan gertatzen da, eta horren aitortza baten modukoa zen; sendatzen nau ni eta, kasu honetan, Bilborockeko komunitatea ere. Emakume batzuk ordeztuak sentitu dira entzundako gauza batzuekin. (Talde Eragilea)*
- *Kintsugi) Esperientzia ukigarria, erreparazio sinbolikoko ekintza hauek egin daitezke eta egin behar dira, non sendatzea ez den ekintza indibidual gisa bakarrik gertatzen, baizik eta ekintza politiko gisa ere, non samurtasuna ere presente egon zen. (Mugarik Gabe Dokumentalean)*
- *Hirugarren fasean, argitalpen hau egiten ari garen bitartean, eragin handiagoa izango du erakundeetan, egindako proposamenak hainbat erakunde instituzionali aurkeztuko baitzaizkie. Prozesu horretan, elkarriketatutako emakume batzuk prozesuaren azken fasean espero ziren eraginei buruz aritu dira.*



- Gainerako biktimentzat zerbait baliagarria ateratzea, atzetik datozen biktimentzako akonpainamendua hobetzea. (Biziraulea)
- Helburua gu entzun gaitzatela da, toki batera joatea eta han gu entzutea. Gero nahi dutena egingo dute. Nola hitz egin, nola mintzatu erakundeari, nola haien jokoan ez erori jakitea. Mugarik Gaberekin egiten ari garen prozesu honetan zerarekin konturatu naiz: zer esan behar dugun, zer ez eta nola. (Biziraulea)

Azkenik, indarkeria matxisten esparruan erreparazio-prozesuei eusteko eta ekarpenak egiteko orduan, erreparazio sozialetik abiatuta, **beste kolektibo sozial batzuen rola eta erantzukizunaren** hausnarketa ere partekatu zen:

*Ez soilik hemendik, baizik eta kolektiboetatik edo komunitarioa denetik helaraztea erreparazio sozialaren garrantzia lantzea eratuko litzaiguke. Nire ustez sozializatzea bezalakoa da, erreparazioa toki desberdinetatik iritsi behar da eta garrantzitsua da kolektibo sozialek dugun ardura eta ekiteko gaitasuna; ikerketak ere badu garrantzia. (Talde Eragilea)*



# **MANUELA EL SALVADORKO ESTATUARI AURRE EGITEN**





# MANUELA EL SALVADORKO ESTATUARI AURRE EGITEN

## 1. ESPERIENTZIA TESTUINGURUAN KOKATZEKO

### 1.1. MANUELAK BIZI ZUENA

Manuela<sup>1</sup> El Salvadorreko landa eremuko emakume bat izan zen; bi semeren ama zen, bere bikotekideak Estatu Batuetara emigratu zuen eta komunikazioa eten zuen urte luzez, eta, praktikan, Manuela familia burua izan zen. Zenbait osasun arazo pairatu zituen 2006 eta 2007 bitartean, horien artean, lepoan garatu zituen bulto batzuk. Osasun-zentroan gastritisa diagnostikatu zioten eta analgesikoak agindu zizkieten; pairatzen zuenaren jatorria ezagutzeko azterketarik ez zioten inoiz egin.

Manuelaren familiak ez zuen edateko urik, arropak ibaian garbitzen zituzten; Manuela ibaian garbitzen ari zenean erori zen. Hurrengo egunean, 2008ko otsailaren 27an, haurdun zegoela, pelbiseko eta abdomeneko min handia sentitzen hasi zen, eta etxetik metro batzuetara zegoen komunera joan zen. Larrialdi obstetrikiko bat izan zuen, umekia kanporatu eta konortea galdu zuen. Konortetik gabe zegoela, familiak laguntza eskatu eta gertuen zegoen ospitalera eraman zuen, bi orduko tartera. Ospitalean, behar zuen premiazko arreta jaso beharrean, medikuak galdekatu zuen eta osasun-laguntza hiru ordu beranduago eman zion.

Artatu zuen medikuak uste izan zuen Manuelak abortua eragin zuela, eta salaketa jarri zuen bere aurka<sup>2</sup>; ospitalean jarraitu bitartean, osasun-koadro delikatu batekin eta abokatu defendatzailerik gabe, poliziako bi agentek galdekatu zuten, semea hil izana leporatu zioten, eta adierazi zuten «arina» zela ezkontzaz kanpoko sexua izan zuelako.

Manuela agindu judizialik gabe atxilotu zuten, eta 30 urteko kartzela zigorra ezarri zioten ondoren, homizidio delitu larriagotua egotzita<sup>3</sup>. Kondena horren aurrean bere ofiziozko abokatuak ez zuen helegiterik aurkeztu eta askatasun gabetzeko zigorra ezarri zioten. Prozesu horretan guztian, Estatuak huts egin zuen osasun-azterketa integrala egiteko obligazioan, eta, ia urtebete geroago, Hodgkin Linfoma izeneko minbizi-mota bat diagnostikatu zioten.

Behar zuen kimioterapia tratamendua berandu heldu zen eta funtsik gabea izan zen. Bere osasun egoerak okerrera egin zuenean, ospitale batera eraman zuten, eta bertan hiru hilabetez egon zen ohean bilurtuta, polizia agente baten zaintzapean. Azkenik, minbiziaren kontrako tratamendu egokirik jaso ez zuenez, 2010eko apirilaren 30ean hil zen; bi seme

1 Urteetan zehar erabilitako fikziozko izena, bere benetako izena María Edis da.

2 1998tik El Salvadorren kode penalak edozein egoeratan egindako abortuak zigortzen ditu. Debeku horrek Salvadorko Konstituzioan egindako erreforman du oinarria, enbrioa gizakitzat aitortzen baitu «kontzeptzioaren unetik».

3 Zigor horren arabera, Manuelak ez zuen larrialdi obstetrikorik izan non umekia hil zen baizik eta Manuelak fetua hiltzeko asmoa zuen, eta abortuagatik kondenatzeaz gain, giza hilketa larriagotu gisa zigortu zen.



umezurtz utzi zituen eta bere familia oso egoera ezeگونkorrean geratu zen, baliabide oso urriak baitzituzten umeak zaindu ahal izateko.

## 1.2. ERREPARAZIO PROZESUA

Lehenengo ikerketa abiatzeko, zeinak *Del Hospital a la Cárcel*en lehenengo edizio eman zuen, La Agrupación por la Despenalización del Aborto<sup>4</sup> elkarteak elkarlanean hasi zen La Colectiva Feminista por el Desarrollo Local<sup>5</sup> kasua ezagutu zutenean, 2010ean, ordurako Manuela hila zegoenean. Orduz geroztik akonpainamendua egin diote Manuelaren familiari. Oraindik ere egiten ari den akonpainamendu hori integrala da (psikosoziala, komunitarioa, legezkoa...).

Akonpainamendu juridikoari dagokionez, 2012an La Agrupaciónek, La Colectivak eta Centro Derechos Reproductivos<sup>6</sup>ek aurkeztu zuten epaia berrikusteko eskaera, Manuelaren amak eskatuta, baina El Salvadorreko Estatuak ukatu egin zien. Pixka bat geroago, eskaera bat aurkeztu zuten Amerikarteko Giza Eskubideen Batzordean, Manuelak bizitako gertaerak salatuz.

2019ko uztailan, Batzordeak kasua Amerikarteko Giza Eskubideen Gorteren aurrean aurkeztea erabaki zuen. Gorte horrek, 2021eko azaroan, epai bat<sup>7</sup> eman zuen, El Salvadorko Estatuak erantzule deklaratu zuena Manuela eta bere familiaren Giza Eskubideak urratzeagatik. Prozesu juridikoaren akonpainamendua egin du komunikazio eta intzidentzia politiko zein sozialeko estrategia batek.

Aldi berean, prozesu osoan eta epaiaren ondoren, familiarentzako akonpainamendu psikosoziala garatu da, epaia betetzeko eskatuz. Era berean, lan komunitarioa egin gizartean txertatzeko Manuelak jasan zuena eskubide urraketa izan zela eta aldatzeko haren gaineko iruditeria, eta Manuelaren kasuaren Behatokia<sup>7</sup> sortu da kasuari zein epaiari zabalkundea emateko eta hura betetzeko intzidentzia tresna bat planteatzeko. Orotara, erreparazio prozesu integrala izan da.

Aipatutako hiru erakundeak kasu honekin etengabe koordinatuta egon dira, baina, zehazki, La Agrupaciónek familiari laguntza psikosoziala eta juridikoa eman dio, eta komunikazio, aliantza eta intzidentzia lanak egin ditu Manuela kasua zabaltzeko. La Colectivak prestakuntza, sentsibilizazio eta intzidentzia lan komunitario guztia egin du eskualdeetan, eta Centro de Derechos Reproductivos<sup>6</sup>ek nazioarteko instantzietan egindako auzi-lan guztia.

4 Hemendik aurrera La Agrupación.

5 Hemendik aurrera La Colectiva.

6 [www.corteidh.or.cr/docs/casos/articulos/seriec\\_441\\_esp.pdf](http://www.corteidh.or.cr/docs/casos/articulos/seriec_441_esp.pdf)

7 <https://observatoriomanuela.agrupacionciudadana.org/>



### 1.3. DOKUMENTAZIO PROZESUA

Analisi hori egiteko, elkarriketak egin zaizkie prozesuan parte hartu duten zenbait kideri<sup>8</sup>:

- Manuelaren Familia: semeei elkarrekin eta gurasoei banakako elkarriketak.
- La Agrupación por la Despenalización del Aborto elkarte: lege eta komunikazio taldeari elkarrekin eta talde psikosozial eta koordinazioari banakakoak.
- La Colectiva Feminista por el Desarrollo Local kolektiboa: bai mendebaldeko, bai ekialdeko taldeei, elkarrekin.
- Centros de Derechos Reproductivos: banakako elkarriketa.

Era berean, epaiaren eta Behatokian agertzen den dokumentazioaren azterketa dokumentala eta María Edisen memorialera bisita egin dute.

## 2. IKASKUNTZAK ETA ERAGINAK

Esperientzia honetan, ikaskuntzak eta inpaktuak prozesuan zehar egin diren akonpainamendu eta estrategien arabera banatu ditugu, modu ordenatuagoan jaso ahal izateko. Oso kontziente gara prozesu osoan elkarren artean erlazionatuta egon direla, modu integralean ulertu delako, eta, beraz, ikaskuntzak ere horrela ulertu dira.

Ikaskuntzak aztertzen hasi aurretik, konplexutasun hori islatu nahi genuen, prozesu horretarako erabakigarriak izan diren alderdiak aipatuz, konplexutasun hori erakusteko: oinarri sozial feminista izatearen garrantzia, familiaren determinazioa eta nazioarteko baliabideen sostenguak, ikaskuntzetan zehar garatzen direnak.

*"Prozesu honetarako erabakigarriak izan diren hainbat elementu daude. Lehenik eta behin, gauza horiek herrialdean ez gertatzeko konpromisoa duten feministak egotea, eta, gertatzen badira, ezin dira zigorrik gabe geratu. Bigarrenik, feminista batzuek apustu bat egiten dutela legea alda dadin eta, gainera, moldetik atera gaitezen, horrelako kasuekin jendeak ikusten baitu ezin dela ezer egin, eta zuk egingo duzu (...). Hirugarrenik, familia ados egotea; Manuelari egin ziotena ez zegoela ondo sentitzen zuten guztiek, aitak ez zuela inoiz salatu, gauzak ez zirela gertatu justiziak zioen bezala, eta hori erabakigarria da, familia baita gaurko gidaria. Laugarrenik, badaude gure nazioarteko aliatuak maila guztietan, (...) nazioarteko gortean esperientzia dutenak beraiek dira, ez gu, orduan beraiek markatzen digute logika honetan jarraitu beharreko bidea, eta baita izan ditugun baliabideak ere (...), behar izan diren laguntza guztiak eta hor egotea"* (La Colectivako mendebaldeko taldea).

Hasieran genioenez, begirada globala izan behar duen arren, honako atal aipagarri hauetan banatu ditugu ikaskuntzak eta eraginak: familiaren akonpainamendua, estrategia juridikoa eta epaiaren eraginak; komunikazio-estrategia; aliantzen eta intzidentziaren estrategia;

<sup>8</sup> Aipuetan honako modu honetan aipatzen ditugu: semeak, aita, ama, La Agrupacióneko lege eta komunikazio taldea; La Agrupacióneko talde psikosoziala; La Agrupacióneko koordinazioa; La Colectivako mendebaldeko taldea; La Colectivako ekialdeko taldea; Centro de Derechos Reproductivos.



komunitateekin, eskualdeekin eta gizarte-eraginekin lan egitea; erakunde sustatzaileen barne-lana; epaiaren jarraipena eta inplementazioa.

## 2.1. FAMILIAREN AKONPAINAMENDUA

La Agrupaciónen partetik, prozesu osoan zehar mimoz eta kalitate handiz jardun da familiarenganako akonpainamendu eta kontaktu orotan. La Agrupaciónek kasua ezagutu bezain laster, familiarekin jarri ziren harremanetan. Akonpainamenduari dagokionez, lehen ikaskuntza, eta handiena ere, familiaren eta La Agrupaciónen artean **loturak**, elkarrekiko konfiantza, hurbiltasuna, konpromisoa, irmotasuna eta entzutea sortzea izan zen. La Agrupaciónek asmo argia du, une oro azaltzen du dena, eta familiari entzuten zaio, zer nahi duten galdetuz; modu horretan, familiak erabakia hartzen du eta horren araberrako akonpainamendua egiten da.

*"Familiaren eskaerak entzuten hasten da akonpainamendua, zer nahi duten galdetzen zaie eta entzuten zaie. Galdetu genienean ea zer nahi zuten, erantzun ziguten: nire alabaren izena garbitu dezaten, alaba hiltzailatzat hartu dutelako(...), emaztea ez zen etxetik ateratzen lotsa ematen ziolako jendeak esatea bere alaba hiltzaile bat zela. Eta marko horretan erabaki genuen lehenengo pauso juridikoa ematea"* (La Agrupacióneko koordinazioa).

*"Hasieratik esan ziguten justizia zela bilatzen zutena"* (semeak).

*«Beti egon gara familiarekin harremanetan eta konfiantza mantendu nahi izan dugu, familiak ulertu dezan zergatik egin nahi dugun egiten ari garena eta prozesu osoaren haien oniritzia eman dezaten».* (La Colectivaren mendebaldeko taldea).

Akonpainamendua **integrala** da, arlo desberdinak (psikologikoa, emozionala, soziala, ekonomikoa, juridikoa...) jorratzen dituelako paraleloki eta ikuspegi feministatik egiten delako. Erreparazio-beharrak eta -eskaerak ezin dira sailkatu; horregatik, akonpainamenduak hainbat eremu hartzen ditu, eta, askotan, elkarri lotuta daude, elkarri eragiten diote, eta ikuspegi bera dute.

*«Kasu horretan, familiek ez zuketan nahi izango, ez zuketelako aukera ikusiko, baina gertatzen ari denaz hitz egin behar da, ezta? Haiek itxaropena ikusi dute. Guk bezala, itxaropena. Itxaropena delako herrialdeko emakumeentzako. Baina kasu honetan familien beharretatik ere planteatzen da. Beraz, akonpainamendu integral hori ez da arlo bakar batetik ematen. Arlo bakoitzak ikuspuntu bat dauka, partekatzen dena begirada feminista da, horregatik akonpainamendu integral feminista. Kasu honetan, Manuelaren familia ere ahaldundu zen. Horregatik uste dut akonpainamendu integral feminista honek eragin handia duela familiengan»* (Elkartearen lege eta komunikazio taldea).

Harremana ez da eteten eta akonpainamendua luzatzen da, **epe luzeko prozesua** da, urteak irautean dituen. Kontuan izan behar da erreparazio-prozesuak ezin direla beti ulertu aldi edo etapa definitu eta zehatzekin, eta zaila da amaiera ikusaraztea erreparazioaren hainbat elementu landuz gero, kalteek, askotan, epe laburretan lantzeko zailak diren inaktuak izaten baitituzte. Gainera, akonpainamendua ez da zertan amaitu epaia lortutakoan, horregatik bai familia, bai akonpainamendua egiten duena prestatu behar dira horretarako.

*“Aurpegi desberdinak dituzten epe luzeko eta integralak diren prozesuetara prestatzen jakin behar dugu. Hau da, familiaren akonpainamendua egin dugu prozesu osoan zehar” (La Agrupacióneko koordinazioa).*

Horrela, familia bakoitzak bizi duen **testuingurua** kontuan hartuta egin behar da akonpainamendua. Akonpainamendua egin behar da behar praktiko (osasuna, ekonomia...) eta estrategikoetan, besteak beste, Manuelagatik justizia egiten Amerikarteko Giza Eskubideen Sistemara joanez, eta baita familiaren egunerokotasunetik urrun dauden eta haientzat abstraktuak diren kontzeptuak hurbiltzen.

Akonpainamendua familiarentzat **ahalduntze** prozesua izan da. Bizitako gertakizunak landu dituzte ez Manuelaren arazo indibidual gisa, baizik eta, emakumeak zigortzen eta kriminalizatzen dituen kultura eta legedi matxistaren ondorioz El Salvadorren emakume askok pairatzen duten egiturazko arazo bat bezala. Honek indarra eman dio familiari, borrokatzeko eta Manuelaren oroimena duintzeko.

*“Puntu garrantzitsu bat izan zen familiaren akonpainamenduan esatea, begira, hau ez da horrela, arazo honek ez du soilik Manuelarekin zerikusirik, Estatuko legeekin, Estatuaren egiturekin eta emakumeak kondenatzen eta kriminalizatzen dituen kultura matxistarekin zerikusia duen arazo bat da. Haiek ikuspuntua aldatzen hasi ziren, familiak haien mina eta zailtasuna sentitzen zuelako, baina ez zekiten identifikatzen nondik sortzen zen egoera hori guztia. Benetan gertatu zena interpretatzen hasi zirenean, familiak ulertu zuen justizia nahi zutela, ez zuelako zerikusia soilik bizia galdu izanarekin, baizik eta bere izenarekin ere; bere oroimenari ohorea kendu zaio kriminalizatu dutelako eta emakume bihozgabetzat jo dutelako, txarrena balitz bezala. Eta komunitateek ere diskurtso horiek zabaltzen zituzten, baita poliziak eta udalak ere” (La Colectivako ekialdeko taldea).*

*“Jende honek gu ahaldundu gintuen” (ama).*

Ilbilbide hori familiaren ahalduntzea da, erabakiak hartzera, borrokatzera eta beren eskubideak aldarrikatzera bultzatzen dituen, herrian jarri zen memorialean seme-alabek Manuelaren benetako izena jartzeko erabakia izan zen bezala.

*“Benetan da familia ahalduntzearen inguruan ari garenean; epaia emango zenean eta Manuelaren omenaldia jarriko zenean, familiak erabaki zuen beren ama benetako izenaz deitzea, aitortza bat zen, herri osoak entzun zezan. Herriak orain jakin dezala, (...) nire ama Estatuaren biktima izan zen” (La Agrupacióneko lege eta komunikazio taldea).*

Akonpainamenduaren ikuspegi honetan familia **eskubide-subjektutzat** hartzen da, eskubide horien exigentzia laguntzen zaie, baita haien eguneroko beharrak betetzean ere, horiek ezinbestekoak baitira haien borroka denboran zehar mantendu dezaten.

*“Prozesutik zailena borroka da. Eta horretan aritzea” (aita).*

*“Gertatutako guztiaz kontzienteago ginen, (...) bagenekien zergatik borrokatzen genuen, zer eskubide urratuak ziren” (semeak).*

Aipatu den moduan, akonpainamendua integrala da eta paraleloki lantzen dira arlo desberdinak, baina, esku-hartze integralerako ezinbestekoak diren alderdi batzuk ere espezifikoak nabarmendu dituzte. **Akonpainamendu psikosozialari** dagokionez, gai gogorrak



eta mingarriak lantzen dira, beldurak eta dolua kasu, eta lan psikologikoaren garrantziaren eta beharraren ideia indartzen da.

*"Akonpainamendu psikologikoa izan da gakoena, familiak dolu prozesua kudeatu ahalizateko eta epaitegietan birbiktimizatzailea ez den modu batean honetaz hitz egin ahal izateko. (...) Agian aldatuko nukeena da lehenengo loturak sortu ondoren prozesu psikologikoarekin hastea"* (La Agrupacióneko talde psikosoziala).

Gainera, familia-loturak indartzeko lan egin da; lotura horiei eutsiz, laguntza-sare propioa sortu dute, eta familia gisa onartzen dute beren burua.

**Akonpainamendu sozialean**, abortuaren kriminalizazio testuinguruan, Manuelaren atxilotetak eta espetxeratzeak sortu zuen estigma apurtzeko lan egin zen; Manuela komunitatean estigmatizatu zen emakume txar, preso, haurren hiltzaile irudi batekin... Horrek eragin emozional handia sortu zuen familian, ondorio negatiboak izan zituzten harreman sozialetan eta hainbat espazio komunitarioetara joateari utzi zioten (eskola, osasun zerbitzua...) lotsa eta estigmatizat. Hori eraldatzeko, erresuminez joateari utzi zioten lekuen birjabetzea landu zuten akonpainamendu sozialean, lotsarekin amaitzeko.

*"Haienganako erresuminak eta mesfidantzak zeuzkaten toki batzuetan; toki horien jabe egitea positiboa izan da"* (La Agrupacióneko talde psikosoziala).

*"Ez ziren soilik Manuelaren kasua ikusgarritasunetik ekintzak, baizik eta haiek herrira eramateko ekintzak ziren, joan zitezela sekula joango ez zirela esaten zuten lekuetara, erresumin jakin bat zutelako toki horiekiko"* (La Agrupacióneko talde psikosoziala).

*"Gizarteak emandako aurrerapausoak haiek ere eman zitzaizkion lan egin zen, haiek atzean ez geratzeko. Hein batean lortu zen, lortu zen haiek lotsarik ez sentitzea haien amaz hitz egitean; lehenago, norbaitek amaz hitz egiten zuenean, haiek buruak jaisten zituzten eta isiltzen ziren, gertatutakoa defendatu gabe"* (La Agrupacióneko talde psikosoziala).

*"Familiarekin egindako esku-hartzearen muina alderdi psikosoziala izan zen; akonpainamendu psikologikoa eta sozialean saiatu ziren komunitatearen kultura horretaz jabetzen, eta horregatik komunitatearen barruan ikusgarriak ziren gauzak lantzen hasi ziren"* (La Agrupacióneko talde psikosoziala).

*"Erreparazioa ez da inoiz nahikoa izango Maria Edisek sufritu zuena jakinda, sekula, ezta estigmak suposatzen duena ere, baina haur hauei itzultzen diegu ziurtasuna beren ama ez zela gaizkilea izan, beraiek komunitate honetan hazten ari zirelako emakume gaizkile baten seme-alabak izatearen estigmarekin, preso eraman zuten emakumea eta inoiz itzuli ez zena urte askotara kondenatu zutelako beste semea hiltzeagatik. Niretzat epai irabazlea da estigma horretatik asakatzea"* (La Colectivaren mendebaldeko taldea).

Gainera, estigma soziala apurtzeko, Manuelaren kasua ezagutarazteko eta eragina izan zezan nazioarteko bisitak egin zieten familiari, ziurgarritasuna, ikusgarritasuna eta garrantzia emateko, eta horrela komunitatean zegoen estigma apurtzen laguntzeko.

*"Ulertu genuen estigmaren kontuak eragin handi-handia izan zuela familiarengan arrazoi askorengatik, horien artean kriminalizazioa. Nazioarteko jendea etortzen zen haiek ikustera; historia kontatzea bilatzen genuen guk eta horrela lortu genuen Al Jazeera etortzea, kamera*



*batekin eta eragina sortzeko prest...horrek beste toki bat ematen zien komunitatean” (La Agrupacióneko lege eta komunikazio taldea).<sup>9</sup>*

**Akonpainamendu ekonomikoari** dagokionez, familiaren bizi-maila duina bultzatzeko lan egin zen, horrela, oinarrizko beharrak ordaindu zituzten semeek egoera egokian bizi ahal izateko eta urtetako prozesu luze honekin jarraitu ahal izateko.

*“Ikuspuntu horretatik egindako akonpainamenduan, gehien bat, prestatu zituzten testigantzak biltzeko momenturako, bizitza duin baterako gutxieneko baldintzak izan zitzaizten, eta prozesuan zehar bizi ahal izateko ekimen ekonomiko desberdinetara bideratzeko” (La Agrupacióneko talde psikosoziala).*

Akonpainamendu integral honetako beste arlo bat izan zen **akonpainamendu juridikoa** eta epaitegirako prestakuntza, lege lanaz gain; familiarekin landu ziren epaitegiko eraginak, bai bere horretan, bai horren prestakuntza.

*“Epaitegia baino bi urte lehenago hasi zen familiaren prestakuntza. Tamalez, epaitegia atzeratu zen pandemiagatik, baina hori baino lehenago psikologoekin lan egin zen, familiarekin disziplinarteko esku-hartzeak egin ziren gaia jorratzen hasteko haiengan eragina izan gabe” (La Agrupacióneko talde psikosoziala).*

*“Akonpainamenduan, guk audientziaren behaketa bat egin genuen, hau da, batzuk San Salvadorren geunden, areto txiki horretan, Gortean eta han bertan zen ekitaldian esku hartzen, eta beste kide batzuk Cacaoperara<sup>10</sup> joan ziren eta han inguruan dagoen hotel txiki batera eraman zuten familia, erritual bat antolatu zuten epaitegiaren aurretik eta ondoren, familiari lagunduz” (La Agrupacióneko koordinazioa).*

Era berean, akonpainamendu juridikoari heldu zaio **erreparazioak integrala izan behar zuela** kontuan hartuta: morala, emozionala, ekonomikoa eta juridikoa, Manuelaren heriotzaren eraginak handiak izan zirelako.

*“Familia hura egoera triste hartatik, seinalatua sentitzetik, hilketagatik zigortutako alaba bat zutela pentsatzetik, lotsatik, tristuratik ateratzea zen. Gosea pasatzen zuten etxe horretan, hau da, pobrezia maila handia zuten. Familiak lur txiki batzuk galdu zituzten Manuela bizirik zegoenean egindako gastu batzuegatik. Orduan are pobregoak bilakatu ziren. Orduan, lortu nahi zen nolabaiteko erreparazio morala, emozionala baina baita ekonomikoa ere” (La Agrupacióneko koordinazioa).*

## 2.2. ESTRATEGIA JURIDIKOA, EPAIA ETA ERAGINAK

Lehenik eta behin, esan behar da erakunde laguntzaileen helburua ez dela izan arlo juridikoan kasu enblematiko bat izatea, baizik eta Manuelaren kasuaren akonpainamendu integrala egitea (arlo juridikotik ere bai), beste kasu batzuekin egiten den bezala; hori garrantzitsua da ulertzeko zein den lan-ikuspegia, familiak erabakitzen duenean egiten dela akonpainamendua, eta, horregatik, urrats juridiko guztiak ematen dira prozesuan.

<sup>9</sup> Al Jazeera-k Manuelaren istorioaren inguruko dokumental bat egin zuen eta horrek nazioarteko eragina izan zuen.

<sup>10</sup> Manuela eta bere familia bizi ziren komunitatea kokatuta dagoen udalerria.



Kasu batzuk paradigmatico bihurtzen dira, modu estrukturalean errepikatzen diren errealitateak islatzen dituztelako eta egoera horren eredu direlako. Erreparazio prozesu hori garatu ahal izan da egoera jakin batzuk eman direlako, baina badira Manuelarena bezalako egoerak bizi izan dituzten emakume asko, erreparazio prozesu bat hasteko aukerarik ere ez dutenak eta beraz ikusezinak direnak, ahaztuak.

*"Garrantzitsua da ulertzea Manuelarena bezala, beste emakumeen kasuak ere egon direla eta oharkabean pasatu direla. Ezagutzen ez gintuen familia baten erabakiak, konfiantza osoa izan ez arren, aurrera egin dugun punturaino aurrera egitea ekarri du. Esperientzia eta antolatze gaitasuna batuz, Centro de Derechos Reproductivos horri buruzko informazio asko eman zuen, eta guk eman genezakeen mobilizatzeko, komunikatzeko eta auzitan jartzeko gaitasuna ere, hor sartu baikinen"* (La Agrupacióneko koordinazioa).

Aurrekari gisa, La Agrupaciónek "Del Hospital a la Cárcel"<sup>11</sup> ikerketa egin zuen. Ikerketa hori Manuelarenaren antzeko gertaerengatik kriminalizatutako emakumeen kasuen sistematizazioa da, eta bertan kasuak nola ezagutzen diren eta kasua ordezkatzeko zehazten dituzten ezaugarriak zein diren dokumentatzen da... Ikerketa hau oso lagungarria izan da estrategia juridikorako, eta informazioa sistematizatzearen eta ikerketa-prozesuak sortzearen garrantzia indartzen du.

Ikerketak erakusten du abortuaren kriminalizazio-kasuak modu sistematikoan eta estrukturalean gertatzen direla, ez direla kasu isolatuak; beraz, erabilitako estrategiaren apustua da: prozesuen akonpainamendu juridikoa egitea **epaiek aldaketa sakonak eragin ditzaten**, eta ez sartzea ikuspegi erreparatzaileak ez duten eta banakako gertaerak bakarrik zigortzen dituzten auzietan.

*"Erraz egin genezake medikuen kontrako zigor-prozesu bat, adibidez, baina aldaketa sakonagoa egin nahi dugu, aldaketa estruktural bat; nahiz eta orain txio batekin mediku bat kaleratu daitekeen, horrek ez du erreparatzen"* (La Agrupacióneko lege eta komunikazio taldea)

Manuelaren kasuan akonpainamendua egin zuten erakundeek erabilitako estrategia juridikoa izan da uneoro **bide legal guztiak agortzea nazio mailan eta gero nazioartean**. Aukera juridiko guztiekin tematzea, familiari lagunduz lege-baliabide guztiak agortzea, amore eman gabe. Hori beti izan da familiaren babesarekin, akonpainamendu juridikoan, gainerako akonpainamenduetan bezala, emakumeak erdigunean daudelako eta haien erabakien arabera lan egiten delako.

*"Garrantzitsuena da emakumeak daudela erdigunean, eta haiek ez badute ordezkartzarik nahi, hori ezin dugu egin"* (La Agrupacióneko lege eta komunikazio taldea).

Era berean, erreparazio-eskaerak eraikitzeke, emakumeen (kasu honetan, familiaren) parte-hartzea ezinbestekoa da, haien eskaerak benetan lantzeko eta erreparazioa eragiteko.

*"Erreparazioen ikuspegitik, oso garrantzitsua iruditzen zait beti prozesuak kontuan hartzea: nazioarteko auzi-prozesu bati begira erreparazioak eraikitzen direnean, eskatuko diren*

11 Del hospital a la cárcel. Consecuencias para las mujeres por la penalización sin excepciones, de la interrupción del embarazo en El Salvador. Agrupación Ciudadana por la Despenalización del Aborto Terapéutico, Ético y Eugenesico. El Salvador (2015). Eskuragarri <https://agrupacionciudadana.org/download/del-hospital-a-la-carcel-tercera-edicion/>

*momentua eta biktimen parte-hartze aktiboarekin eta zentraltasunarekin eraiki behar direla; horrela, instantziek, hala nola Amerikarteko Auzitegia, erreparazioak ematen dituztenean, horiek benetan egokiak izan beharko dira eta biktimei nahi duten neurrian eragingo diete” (Centro de Derechos Reproductivos).*

## Epaia

Prozesu horretan, auzipetutako erakundeek legeak aldatzea eskatzen zuten, larrialdi obstetrikotik emakumeak kriminalizatzeari uzteko eta familiarentzako erreparazio-neurriak lortzeko. Epaian, hainbat urtetako auziaren ondoren espero zena, Amerikarteko Giza Eskubideen Auzitegiak ez zuen ezer esan larrialdi obstetrikotik pairatzen dituzten eta kartzelaratzen dituzten emakumeen kriminalizazioaren arrazoi estrukturalak buruz, kode penalak egoera guztietan abortua zigortzen baitu, baina egiturazko aldaketak eragin nahi dituzten erreparazio-neurri batzuk markatu zituen, batez ere mediku-protokoloei (arreta eta sekretu profesionala) eta hezkuntza-neurriak (sexu- eta erreprodukzio-eskubideekin lotuta) dagokienez, bai eta lege eta osasun arloko langileen prestakuntzetan ere. Gainera, familiarentzako erreparazio neurriak jasotzen ditu, hezkuntzari, osasunari, kalte-ordain ekonomikoari eta barkamenari dagokienez.

Epaia ontzat jo zuten erakundeek; izan ere, epaitza kriminalizazio horren arrazoi estrukturaletan sartzen ez bada ere, kriminalizazioari ekin dio lehen aldiz epaitegi batean, eta, gainera, neurri batean, familiarentzat zein beste emakume batzuentzat elementu erreparatzaileak erakusten dituen lehen epaia da. Uste da epaiak ez duela balio izan berehalako aldaketa estrukturalak lortzeko, baina kultura-aldaketa batzuk eragiten laguntzen duela. Erreparazioak estrukturaltzat jotzen dira honako modu honetan:

*“GGI Auzitegiak agindutako erreparazioen izaera estrukturalak diskriminazio- eta indarkeria-testuinguruak eraldatzeko ahalmena du, eta urraketa sistematikoak iraunarazten dituzten arrazoi sakonei heltzen die. Horren ondorioz, lege-erreformak egiten dira, erakundeak indartzen dira eta epe luzera aldaketa jasangarriak sortzera bideratutako politika publikoak ezartzen dira. Auzitegiak bere jurisprudentzian adierazi du erreparazioak ez direla aurreko egoerara itzultzera mugatu behar, baizik eta funtzio zuzentzailea izan behar dutela, aurretik zegoen indarkeria- eta diskriminazio-egoera batera itzultzea saihesteko. Ikuspegi hori funtsezkoa da Amerikarteko Giza Eskubideen Sistemaren (AGES) erabakien «ondorio baliagarria» bermatzeko, eta ebazpenak teoriarik aplikatzeaz gain, praktikan biktimen eskubideak eraginkortasunez babesten dituztela ziurtatzeko” (Manuelaren Behatokia).*

Gainera, kontuan hartu behar da Manuelaren epaiak jurisprudentzia sortu duela, eta gaur egun bi kasu daude El Salvadorren aurka Amerikarteko Giza Eskubideen Gortean emakumeen alde epaitu dutenak, sexu eta ugalketa eskubideei dagokienez<sup>12</sup>.

Hala, epaia positiboa izan zen familiarentzat ere, baita kartzelan zeuden emakume kriminalizatu edo auzipetuentzat ere, neurri batean aitortuak baitziren kriminalizazioaren gaia jorratzen delako eta haien egoerarako aurrekari bat sortzen zuelako.

<sup>12</sup> Manuelaren kasuaz gain, Beatrizena dago <https://observatoriobeatriz.agrupacionciudadana.org/>



*"Herrialde mailan, lehen epai bati buruz ari gara hitz egiten, abortua erabat zigortzen duen emakumeen kriminalizazioari buruz eta, horrek herrialdean kriminalizazioa badagoela onartzea zekarrena. Agian ezingo genuke erreparaziotzat jo, ez delako horraino iristen, baina une horretan oraindik kartzelan zeuden emakumeentzat beste urrats bat eman dela emakume horiek espetxetik ateratzeko eta zetozen kasuetarako esatea bezalakoa zen aitortza hori. Izan ere, guk, noski, epai horretan kode penala aldatzea nahi genuen. Nahiz eta epaian interpretazioaren inguruan hitz egin zuten, epai guztietan bezala, modu horretan interpretatzen duenak horrela aplikatuko du; hor dago gure borroka hori aplikatzen jakitea. (...) Baina Manuelaren prozesuan, bizitzan eta osasunean urraketa handiak izan zirela onartu izanak ere erreparazioa ematen zuen, urraketa horiek guztiak egon zirela onartzeak, eta bere familiak ere afekzio larriak izan zituela onartzeak" (La Agrupacióneko lege eta komunikazio taldea).*

Hortaz, elkartearen eta familiaren ustez esfortzuak merezi izan du.

*"Norbaitek justizia bilatzen badu, beti heltzen da, hori da esaten zigutena (akonpainamenduko elkarreek), beti eutsi eta eutsi, hori da erakutsi diguten gauzarik politena" (semeak).*

Epaiak **eragin** positiboak izan ditu **familian**, uste baitute justizia egin dela Manuelarekin eta horrek beren autoestimua eta komunitatean duten presentzia ere indartu du, sinesgarritasun juridikoa eman dio landa eremuko eta baliabide ekonomiko urriko familia bati, eta horrek indartu egiten du.

*"Haiek justizia lortu dutela sentitzen dute. Eta hori garrantzitsua zen haientzat, gutaz gain, beste norbaitek aitortzea Manuela bidegabekerien eta tratu krudelen biktima izan zela, eta delituri egin ez zuela. Hori izan da familiak modu positiboan jaso duen gauza garrantzitsuenetarikoa bat" (La Agrupacióneko talde psikosoziala).*

*"Gero epaia eman zen eta konturatu ginen gure alde epaitu zutela, poz ikaragarria izan zen, zeren hemen, jende gehienak esaten zuen nire amak nahi izan zuelako egin zuela hori eta benetan ez zen horrela izan, eta epaiak poztasuna ekarri zigun denoi" (semeak).*

*"Sekulako poza ekarri zigun konturatzea frogak dituen Auzitegi batek esan zuela zure amak ez duela hori egin, zerbait esanguratsua da; norbaitek kontrakoa esaten badu, frogak ditugu esateko ez dela horrela izan. Bestalde, alderdi materialean ere bizitza aldatu zigun" (semeak).*

Epaiak ezartzen dituen erreparazio-elementuak aztertzen baditugu, **errehabilitazioari, lehengoratzeari eta kalte-ordainei** dagokienez, osasunari, hezkuntzari eta baliabide ekonomikoei dagozkienak, ezinbestekoak izaten ari dira familiaren bizitza hobetzeko, haientzat pentsaezinak diren mailetara iritsiz.

*"Eta gure osasuna hobetu da, guztiek sendagaiak ematen dizkigutelako. Eta saldutako gauzak berreskuratzen lagundu gintuzten haiek" (aita).*

*"Gauzak baditugu, erosi ditugu. Manuela ospitalean eta kartzelan zegoenean bisitan joateko saldu genuen lur zatitxo bat. Lur zatitxoa haientzat (semeak) daukagu, lan egingo duten kaiku horientzat. Orain etxea daukagu, lehen arrantxoa zen. Eta medikuek artatzen naute. Ez zuten nire alaba artatu, baina ni bai, ezagutzen naute eta ospitalera heltzen nagoenean, haiek eramaten naute" (ama).*



**Asebetetzeari** dagokionez, epaia bera askapen gisa bizi da, Manuelak deliturik ez zuela egin berresten baita, errua eta lotsa kenduz eta harrotasuna sentitzen da, gertatu zena ez baitzen izan jendeak esaten zuena eta justizia egin zen.

*“Tristura guztia atera zitzaidan, samintasuna baneukan bularrean. Epaia ostean pozik” (ama).*

Egia bada ere Estatuaren aldetik **egia zabaltzeko** elementua eta epaiak ematen duen aitortza eta barkamena ez dela bete, ez da aitak eta amak adierazi duten eskaera edo beharra, semeek adierazten dute, gizartean aitortza handiagoa izateko nahi baitute,

*“Alde batetik publikoa egin behar zen, gobernuak bere akatsa aitortzea eta ez du bete. Pertsonala izan arren, publikoa egin dadila. Horretan bakarrik huts egin dute (gobernua), baina garrantzitsuena dela esango genuke, horrek herritar guztiei jakinaraziko lieke txarto jokatu zela momentu horretan” (semeak).*

Horri dagokionez, esaten da askotan, kontraesanak sortzen baditu ere, baliozkotze juridiko bat behar dugula urraketa hori gizarteak onar dezan; hala ere, aldi berean, nahiz eta Estatuak ez duen zabaltu eta aitortu, epai bat aldekoa izateak berak, kasu honetan, ondorio erreparatzaileak ditu familiarentzat.

*“Tamalez balioespenak behar ditugu, baina eragina dutela uste dut, norbaitek zu entzutea erreparatzailea da, gizartearen parte handi bat klasista da eta familia diskriminatzen du, horregatik, norbaitek zu entzuteak leku bat ematen dizu, eta hori ere erreparatzailea da” (La Agrupacióneko lege eta komunikazio taldea).*

**Ez errepikatzeko bermeak** semeen desio bat dira; horretarako, egiturazko aldaketak egon behar direla uste dute, inork ez dezan bizi amak bizi izan zuena eta haiek eta familiak bizi izan dutena.

*“Horrelako kasuak berriro ez gertatzea nahiko nuke, ez haztea amarik gabe, jakinda errugabea zela. Nire ametsa litzateke gertatu baino lehen ikertzea, (...) sistema hau guztia aldatzea, neurri berriak hartzea eta dena desberdina izatea. (...) Ez dadila berriro gertatu guk sufritu genuena, amonak eta amak sufritu zutena, (...) ez dut nahi inork sufritzea guk sufritu genuena edo amak sufritu zuena, berak sufritu zuelako ere ordaindu behar ez zena ordaindu zuelako, eta hori gobernuari eskatzen diodan beste mesede bat, jada ez dezala emakumeekin kriminalitate gehiago egin” (semeak).*

*“Idatzita jaso den bezala guztia betetzeak poztasun handia ekarriko liguke. Behin ezinezkoa uste zena gertatu dela ikustea. (...) Dena bete izana, ez bakarrik guregatik, baizik eta arazo berean dauden beste pertsona batzuegatik, irtenbide bat aurkitu dezaten” (semeak).*

Epaia jasotzen dituen neurri batzuek erreferentzia egiten diete larrialdi obstetrikoei eta erditze perinatalei arreta emateko protokoloetan, sekretu profesionalean eta sexu eta ugalketa eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren eremuan izandako aldaketei. Neurri horiek ez dira egiturazko aldaketak; hala ere, ekintza puntual batzuez haratago doaz, prozedura eraldatzaileak ezartzen baitituzte osasun- eta hezkuntza-jardueretan, eta errepikatuko ez direla bermatzen dute.



Ikerketa egiteko unean, ez errepikatzeko bermeei buruz Manuelaren Behatokian<sup>13</sup> ezarritako adierazleei dagokienez, 7 neurrietatik 4 ez dira bete eta 3 partzialki.

**Epaia mugimendu feministan eta emakume antolatuen mugimenduan ere eragina izan duela** esan daiteke; emakumeen eskubideak onartu zirela esan zenean, erreparatzailea izan zen. Gainera, landa eremuko emakume pobreen eskubideak aitortu dira zehazki. Horiei eskubide gehien ukatzen zaizkie.

Gainera, prozesu horrek ahalduntze bat sustatu du emakumeen mugimenduan eta mugimendu feministan, justizia-sistemaren ezagutzaren bidez, zehazki, Amerikarteko Giza Eskubideen Gortearen bidez, eta eragina handiagoa izan da nazioarteko instantziak direlako.

*“Emakumeok irabazi dugu frogatu dugulako bera errugabea zela egozten ziotenaren aurrean, bera biktima izan zela pobrea zelako” (La Colectivako mendebaldeko taldea).*

*“Gertaera hori mugimendu feministaren, emakumeen mugimenduaren eta egindako ahalegin guztiaren konkista gisa bizitzea izan zen eragin gehien izan zuena. Itxaropena erein genuen. Horrelako kasuak auzitara eraman daitezke, salatu daitezke, ez dugu zertan isilik geratu behar. Emakume pobrea izateagatik, bazterketa eta zaurgarritasun egoeran egoteagatik ez gara gutxiago, ez ditugu eskubide gutxiago. Eskubideak baditugu” (La Colectivako ekialdeko taldea).*

Gainera, **emakumeen eskubideen aldeko borrokan konpromisoa** lortzen da, bereziki sexu-eta ugalketa-eskubideen aldeko borrokan, denboran irauteko modukoa. Emakumeek beste emakume batzuen alde mobilizatzen jarraitzen dute, justizia exijitzea eta aurrerapenak lortzea posible dela eta merezi duela ikusita.

*“Erreparazio bat da, ez bakarrik familiarentzat, mugimenduarentzat ere bada, lankideek konpromisoa hartzen baitute borrokan, denok hartzen dugu konpromisoa eta ez zaie erraza egiten, batez ere eskualdeetan (...). Ikaskideak epaiaren jakitun dira eta nola doan galdetzen dute, parte direla sentitzen baitute, kausan lagundu zutelako. Nik gonbidatzen ditut, gero eta emakume eta indar gehiago izanda orduan eta poztasun handiagoa sentituko dute borroka honetan parte hartzeagatik” (La Colectivako mendebaldeko taldea).*

*“Uste dut asko balio izan zuela egin zen sentsibilizazio-lan guztiak, horrela jendea ere ohartu zen El Salvadorko Estatuaren aurkako prozesu legal bat bazegoela. Horrek beste ikuspuntu bat eman zion jendeari, komunitateetan uste baita hemen ez dagoela justiziarik» (La Colectivako ekialdeko taldea).*

**Eskualde mailako eraginak** nabarmendu nahi ditugu, Manuelaren kasua erreferente garrantzitsua baita emakumeenganako indarkeriaren eta larrialdi obstetrikogengatiko kriminalizazioaren aitortzan.

*“Larrialdi obstetrikoen kriminalizazioa kategoria juridiko eta politiko gisa onartzea lortu genuen eta horrek eragina izan du Latinoamerikan. Garrantzitsua da, Manuela baino lehen Latinoamerikako mugimendu feministak ez baitzuen problematika hori aitortzen” (La Agrupacióneko koordinazioa).*

<sup>13</sup> Ikusi <https://observatoriomanuela.agrupacionciudadana.org/indicadores/>



Gainera, Manuelaren kasua (Beatrizenarekin batera) erreferentzia aipagarria da eta mugimendu feminista bere eskubideen defentsarako Amerikarteko Sistema erabiltzeko legitimitatearekin eta gaitasunarekin sentitzen da.

Hala ere, nabarmendu behar da, Manuelaren kasuaren epaiaren esparruan, Beatrizen kasuan bezala, komunikazio eta intzidentzia kanpainak aktibatuz ere posizionatu direla eskubideen aurka daudenak, Gorteak haien alde epaitu ez zezan.

Epaia Salvadorko **gizartearen dituen eraginak ere** aipatu behar ditugu. Elkarrizketatuen arabera, maila praktikoa, larrialdi obstetrikogatik egindako atxilotetek behera egin dute Manuelaren epaiaren ostean.

Bestetik, **epaiak Estatuan izan dituen eraginak** negatiboak izan dira, bere aurka epaitu duen Gortearen epai bat duelako, horrek irudian eragina du, publikoki nabarmendutakoagatik eta nazioartean oihartzuna izateagatik. Hala ere, epaiak ez betetzeak ez du ondoriorik Gobernuarentzat, ezta oihartzun bera ere; beraz, batzuetan kaltegarria izan daiteke gizarte zibilarentzat, Estatuaren zigorgabetasuna islatzen baitu.

Manuelaren kasuan, gobernuak epaiak agintzen duena betetzen ari da, familiarentzako erreparazioaren alderdi indibidualagoei dagokienez, epaiak ezartzen duena zorrotz betez, baina egiturazko aldaketarik edo proposamen eraldatzailerik egin gabe, hala nola arau-aldaketak.

Nabarmendu behar da, epaiak esaten duen eta Estatuak oraindik bete gabe jarraitzen duen gaietako bat aitortza publikoaren ekitaldia dela. Semeek egia zabaltzea eskatzen diote gobernuari, horrela komunitatean onarpen handiagoa izango luketela uste baitute. Lehen azaldu bezala, erakundeetatik eskaera horri heldu zioten berriro, familiarentzat duen garrantziaz eta komunitatean duen eraginaz jabetuta.

## 2.3. KOMUNIKAZIO ESTRATEGIA

Erakunde bultzatzaileetatik azaltzen dutenez, komunikazio estrategia epaiaren data jakin zenean jarri zen martxan, aurretik ez zegoen halako estrategiarik, baina argi zeukaten ezinbestekoa zela **komunikazio lana iruditeri soziala aldatzeko**.

Komunikazio kanpainak ezinbestekoak ziren iruditeri soziala aldatzeko, hau da, herritarrek Manuelaren kasua eskubide urraketa kasu gisa eta larrialdi obstetrikoko arazo gisa kokatzea. Komunikazio kanpainak diskurtso aldaketa lortu zuten bai komunitatean eta baita agintarietan ere.

*“Kanpainen eragina diskurtsoa aldatzea izan zela uste dut. Ez dakit zer puntutaraino aldatu zuen jendearen eskema mentala, baina autoritateak beste modu batean jarduten hasi ziren. Manuelarena eskubide urraketa kasutzat hartzen hasi ziren, ez hiltzailea balitz bezala, eta aldaketa hori garrantzitsua izan zela uste dut. Kasuaz ez hitz egitearen mitoa kentzea izan zen beste aldaketetako bat.(...) Emakumeentzat arazo handia diren larrialdi obstetrikokoak ez ikustea sufritzen duten emakumeen apeta gisa” (La Colectivako ekialdeko taldea).*

Komunikazio kanpaina aurrera eramateko eta iruditeria aldatu ahal izateko ezinbestekoa da **kasu bat izatea, esperientzia bat**, jendearengana iritsi ahal izateko eta abstraktuan ez hitz



egiteko. Lehen esan dugun bezala, kasu paradigmatico bat izatea komunikazio-estrategia bat ere bada, eta aukera ematen du kasua kontatzeko, historiari aurpegia jarritz eta enpatia sortuz.

*"Kasuek hori egiteko aukera eman digute, ez baituzu abstraktuan hitz egiten, ez zara ari lege honekin emakume bati gerta dakiokeenaz, ez duzu hitz egiten gerta daitekeenaz abstraktuan, hori urliari gertatu zitzaion, ondoan bizi da, El Salvadorkoa da; horrek aurpegia, izena, historia jartzeko aukera ematen dizu... eta ikusi zer gertatu zitzaion, berari eta familiari, abortua zigortuta egoteak izan dituen ondorio guztiak, hau jada elkarrizketaren beste une batean kokatzen da"* (La Colectivako mendebaldeko taldea).

Gaia jendeari hurbiltzean zetzan, hurbiletik ukitu zezaketela ikus zezaten, eta bere inguruan, bere egunerokotasunean bazegoela, horrela joan zen iruditeria aldatzen.

*"Elizak ere kasura batu ziren, besterik gabe, emakumea izateagatik. Jarduera batean geunden behin, eta emakume askok babestu zuten kasua, esaten zutelako nire alaba, nire biloba edo ni neu izan naitekeela. Eta gizon askok ere, alaba edo ama egon zitezkeelako egoera horretan. Nire ustez jende askorengan eragina izan zuen senide bati edo norberari gertatzeko aukeran pentsatzeak. Zer gertatuko litzateke Manuela zure alaba edo zure ahizpa izango balitz? Nire ustez, eragin handia izan zuen, aldaketak eman zirelako. Hau da, epaitzeari utzi zioten"* (La Colectivako ekialdeko taldea).

Gaia kasu konkretu batean islatzeak problematika hurbildu zuen, baita horri izena jartzea eta eskubideen urraketa gisa ulertzea ere.

*"Kasuari tokia emateko premiazkoa zen istorioa kontatzea eta aurpegi bat jartzea, bestela ez zen ulertzen gertatzen zena. Dagoeneko frogatu dugu, beraz, jada ez dugu horren beharrik, abokatuak orokorrean hitz egin dezakete, arazoa kokatuta dagoelako. Manuelak utzi zigun hori. Hortaz, bai, abortua eta larrialdi obstetrikoko kriminalizatzen dira El Salvadorren"* (La Agrupacióneko lege eta komunikazio taldea).

Horrela joan ziren zabaltzen Manuelaren kasua, bere komunitatean zein beste eskualdeetan ezagutu zedin eta El Salvador osoan eragina izan zezan.

*"Kasua zabaltzen hasi ginen. Katiluak saltzen genituen; katiluak eta istorioa oparitu. Haren heriotzaren urteurrenerako oroitzapen ekitaldiak egiten genituen. Batzar Legegiletik kanpo gauzak egiten genituen, informazioa eramaten genien, foroak egiten genituen, oroimenean bizirik mantentzen saiatzen ginen"* (La Agrupacióneko lege eta komunikazio taldea).

Atalaren hasieran genioen bezala, prozesuaren ikaskuntza argi bat da **auzi estrategikoak komunikazio estrategiari lotuta joan behar duela**, horregatik estrategia hau epaiaren datarekin abiatu zen, gizartearen iruditeria aldatu eta auzialdirako babes soziala lortzeko asmoz.

*"Kasu asko ez dira lubaki juridikotik irabazten, baina komunikazioetan egiten den horretan oinarritzen dira. Guk, epaitegietara joan garenean eta kanpoan babes dugunean, entzuten da indarra dagoela eta barruan auzitan ari gara, baina lankideek kalean sortzen duten indarra izugarria da. (...) Komunikazio espazio horien lubakia ikaragarria da epaiketa mota hauetarako. Komunikazio estrategian auzi estrategiko batez hitz egitea funtsezkoa da"* (La Agrupacióneko lege eta komunikazio taldea).



Horregatik, akonpainatzen duten erakundeentzat funtsezkoa da **komunikazio-taldeak aliantzen eta erresistentzien taldearekin batera lan egitea** (talde juridikoarekin lan egiteaz gain). Aliantzak lantzeaz arduratzen denak aliatuen artean gertatzen dena zabaltzeko lana egiten du, eta epaitegiko eta epaitegi osteko prozesurako laguntzak sendotu eta ehuntzen ditu. Momentu horretan garatzen dute berez komunikazio estrategia.

Komunikazioari buruzko ikaskuntzetako bat da **testuinguruak aprobetxatu** behar direla komunikazioa eraginkorragoa izan dadin. Manuelaren kasuan, Covid-19aren pandemiaren entziorroaren garaiarekin batera etorri zen, eta beraz, kanpaina birtuala izan zen protagonismo handiena hartu zuena, nagusiki Twitter bidez, eta hortik lortu zen gaia posizionatzea. Ziberaktibismoari esker, oihartzun handia lortu zen, eta mugimenduko aliatuen artean intzidentzia egin zen, kasua hurbiltzeko eta haiek babesteko.

Beste ikaskuntzetako bat da **narratiba espezifiko bat eraiki behar dela une bakoitzean, eta erasoei aurre egin behar zaiela**, hau da, narratibak eztabaidatzen jarraitu behar direla. Marko juridikoan bezala, epaitegian narratibak lehiatzen dira, eta komunikazio esparrua ere paraleloan gertatzen den narratibaren borroka gunea da. Horregatik da hain garrantzitsua epaitegiko eta epaitegi osteko aldian komunikazio-estrategia bat izatea. Eskubideen aurka daudenek ere kasuaren aurkako difamazio kanpaina bat egin zuten eta kontuan izan behar da tresna asko dituztela, komunikazio-tresna eta -pisu handia.

## 2.4. ALIANTZA ETA INTZIDENTZIA ESTRATEGIA

Komunikazio-estrategiarekin lotuta, aliantzen lana dago; izan ere, halako potentziala eta ibilbidea duten proposamenak ezin dira bakarrik egin, baizik eta eragin eta aukera handiagoa dute beste batzuekin batera egiten badira.

Alde batetik, esperientzia honetan 3 erakunde elkartu ziren prozesu osoa garatzeko (akonpainamendu psikosoziala, juridikoa, komunikatiboa...), eta bakoitzak bere indarrak ditu, arlo jakin batzuetan duten esperientziagatik eta ezagutzagatik. Elkarren artean ezagutza eta harreman handia duten erakundeek lan egin badute ere, garrantzitsua da **zehaztea zein izango diren bakoitzaren zereginak eta funtzioak**.

*“Centro de Derechos Reproductivoseko kideekin aipatu genuen. Baietz esan zuten, akonpainamendua egingo zutela; etorri ziren, aurretiazko ikerketa lanean lagundu zuten Batzordeari lehenengo idatzi bat aukeratu ahal izateko” (La Agrupacióneko koordinazioa).*

*“La Agrupaciónek familiari zuzenean laguntzeko lana egiten du, eta epaitegiatarako bilerak zuzentzen ditu, baina mobilizazioa behar duen edozein jardueraz La Colectiva arduratzen da, gure esperientziagatik eta gure lurralde-ezagutzagatik” (La Colectivako mendebaldeko taldea).*

Bestalde, beste erakunde batzuekin aliantzak egitearen garrantzia dago, gizartean zabaltzeko eta intzidentzia izateko, eragin handiagoa izateko. Horretarako, **nazioarteko aliantzen** garrantzia azpimarratzen da, kasua maila globalean ezagutarazteko eta oihartzun handiagoa izateko. Gainera, kontuan izan behar da auzia Amerikarteko Auzitegira eraman dela, eta, beraz, eragina izan dutela eskualdeetan. Gainera, nazioarteko aliantzak



ezinbesteko laguntzak izan dira, baliabide ekonomikoak ahalbidetu dituzte prozesu osoaren akonpainamenduari eutsi ahal izateko, eta ez soilik esparru juridikoarena.

## 2.5. EGINDAKO LANA KOMUNITATEEKIN, ESKUALDE DESBERDINEKIN ETA ERAGIN SOZIALAK

Lehen esan bezala, komunitatearekin lan egitea da egindako lana egituratzen duen ardatz nagusietako bat. Izan ere, alde batetik, Manuelaren familiak aurre egiten zuen **estigma** eta gaitzespen soziala **hautsi** nahi da, eta, aldi berean, **babes sozialak lortu** nahi dira, hau da, komunitateek uler dezaten eskubide urraketa bat dela, eta borroka dezatela berriro gerta ez dadin.

*“Oso garrantzitsua da landan, herrian elkar ikustea; María Edisi buruz hitz egiten da, eta ez kriminalizatu eta errudun egin zen eta sozialki kondenatu zuten emakume hari buruz; kondena juridikoa izan zuen, baina baita kondena soziala ere”* (La Agrupacióneko lege eta komunikazio taldea).

**Gizartearen iruditeria aldatzeko, prestakuntza eta sentsibilizazio lana egin da komunitateekin**, estereotipoak eta mitoak hautsiz, tabu diren gaiak jorratuz, hala nola larrialdi obstetrikokoak, eskubide urraketak eta hark bizitako bidegabekeria. Manuelaren kasua adibide gisa jarritz, kasu indibiduala ez baizik hainbat kasu gertatzen direla landu zen, hori gertatzea eragiten duten alderdiak aztertuz: pobrezia, maila sozioekonomikoa, kultura... azken batean, emakumeak diskriminatzen dituen sistema estrukturala eta hori erreproduzitzeko eta legitimatzeko erabiltzen den indarkeria.

*“Hori sufritzen duten emakumeak badaudela aitortzea gai tabua da, are gehiago landa eremuetan”* (La Agrupacióneko talde psikosoziala).

*“Manuela kasua prestakuntza feministako eskoletan edukitzearen ondorioz, esperientzia horiek txertatzen genituen eta emakumeekin hitz egiten genuen. Hau beste komunitate batzuetan gertatzen da, ez zen Manuela kasu bakarra izango eta hainbat kasu ateratzen hasi ziren non Estatuak ere erantzukizuna zuen”* (La Colectivako ekialdeko taldea).

Lan hori egiteko, garrantzitsua da narratibak aldatzea, eta, horretarako, testuinguru bakoitzera **egokitutako metodologiak** erabili behar dira, kasua modu pedagogiko eta ulergarrian azaldu behar da, errealitate bakoitzera egokituta, egoera horiek ezagutu eta haiekin konekta zitezen, tresna desberdinak erabiliz lan egiten zen taldeen arabera, eta abar.

*“Landa eremukoentzat errazagoa da ulertzea zergatik haietako bat izan zen hori bizi izan zuena, baina hiriko jendearentzat beste jauzi bat eman behar da, ez bakarrik kasua uler dezaten, baizik eta enpatia izan eta aldarrikapena egin dezaten”* (La Colectivako mendebaldeko taldea).

*“Lurralde-mailan, emakumeek lagundu digute, babestu gaituzte, hori intzidentzia da (...), nola eraman Manuelaren historia, nola hitz egin komunitateaz komunitatean esanahi bat eman ahal izateko eta, agian, berak izan ez duen duintasun hori emateko”* (La Agrupacióneko lege eta komunikazio taldea).



Zentzu horretan, **adierazpen artistikoa**, hizkera herrikoia eta hurbila erabiltzeaz gain, funtsezko tresna izan da komunitateen gazteriarentzat. Gainera, gazteriak efektu biderkatzailea izan du familiekin erreplikatu dituzten narratiba berriekin, kasuaren estigmatik sortzen ari zen isiltasuna hautsiz.

*“Bila ditzagun beste modu batzuk ere gazteengana eta emakumeengana iristeko, prozesu horiek gorputzetik gehiago igaro daitezen, eta (...) hizkuntza herrikoia ere badenez, egoera guztien artean nahasten dugu, eta horrek ulermen hobea izateko aukera ematen du; nik prestakuntza-tailerretatik hitz egin baitezaket, baina baita gazteengana eta nerabeengana iristeko modu berriak bilatuz ere, arte plastikoen bidez, adibidez»* (La Colectivako mendebaldeko taldea).

*“Haien etxeetan jada beste narratiba bat mantentzen zuten, sexu eskubideen gaiarekiko, gauzak oso bestelakoak ziren; jada ez zegoen taburik eta beste narratiba desberdin bat zuten egoera horiek etxean edo ezagunen bati gertatzen bazitzaizkion”* (La Colectivako mendebaldeko taldea).

Era berean, **intzidentzia**-lan bat egin da larrialdi obstetrikoren eta abortuaren gaiak komunitateetan egiten diren mobilizazioetan kokatuz, hala nola Martxoaren 8an (emakumeen nazioarteko eguna) edo Azaroaren 25ean (emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna) aldarrikapenak beren egin ditzaten eta beren agendetan sar ditzaten. Agenda feministarako estrategikoak diren gai horiek kasu zehatzetatik lantzeak ahalbidetu du erabakitzeke eskubideaz eta gorputz-autonomiaz modu zabalagoan hitz egitea, eta aldi berean, konektatu ditu ulertzeko eta enpatizatzeke errazagoak diren errealitate zehatzekin.

*“Gaia posizionatzen saiatu gara eta emakumeek intzidentzia ekintzetan lagundu zuten, adibidez, foro publikoetan, epaia zegoenean eta epaia zein prozesuaren aurretik, gaiaz pixka bat jakiteko eta posizionatzeko. Hor hitz egin dugu emakumeekin eta sentsibilizatu dugu”* (La Colectivako mendebaldeko taldea).

Gainera, **kasuaren jarraipena** landu da, prozesu judizialean, epaian eta hori betetzean egindako aurrerapenak zabalduz eta sozializatuz. Horrek komunikazio-kanpainan eraikitako narratiba ezartzen eta komunitateek sustatutako intzidentzia-lana eta mobilizazioak indartzen laguntzen du.

## **Manuelaren omenez egindako jai herrikoia**

Ekintza esanguratsu gisa jai herrikoia aipatu behar da, erreparazio komunitarioko ekintza publikoa. Estatuak epaiak ematen duen aitortza eta barkamen publikoa egiten ez zuela ikusita, eta familiarentzat duen garrantziaz jabetuta, erakundeek beren rola eta ardura hartu zuten erreparazio sozialean. Erreparazioa ez dago soilik erakunde publikoen esku; kasu honetan ikusten den bezala, beste eragile batzuek ere egin dezakete ekarpena erreparazio sozialeko prozesuetan.

Omenaldi honek komunitatearen aldetik Manuelari buruzko ikuspegi eta irudi aldaketa dakar, kondena sozialarekin amaitzeko beste elementu bat izan nahi duen jai herrikoia, eta komunitatean Manuelaren memoriari buruzko narratiba aldaketa.

Udalaren aintzatespen publikoa da. Bertan, hainbat eragilek parte hartzea lortu zen, haien artean alkatetzak, herritarrek eta eskualde bereko zein El Salvadorko beste batzuetako



erakundeek parte hartu zuten, aurretik egindako lan-prozesuari esker, bai udalerrian, bai komunikazio-kanpainan eta beste eskualde batzuetan egindako lanari esker.

*"Geuk egin dezagun erreparazio ekintza herrian. Ez komunitatean baizik eta herriaren erdian. Eta hor deitu genuen ekintza publikoa. Data honetan egingo dugu Manuelaren jai herrikoia. Eta ekintza horretan ahal bezain sormen beste sartzea oso garrantzitsua izan zen. Memoriala egitea lortu zen. Semeek lagundu zuten. Alkatetza ere inplikatu zen. Komunitate desberdinetako emakume-taldeak bertaratzea lortu zen, gero berria haien komunitateetara eraman zezaten. Eta familiak han egotea erabaki zuen, data horretan egingo zuten publiko María Edisen izena" (La Agrupacióneko koordinazioa).*

*"Ia herri osoa gonbidatu zuten eta guztiaz konturatu ziren, zerbait geratu zen hor nire amaren omenez, (...) ia herrialde osoko jendea etorri zen eta polita izan zen" (semeak).*

*"Herriak modu desberdin batean María Edis gogora zezan balio izan zuen. Gaur egun ez dira zurrumurru gehiago entzuten" (semeak).*

*"Oso positiboa, garaipen bat gisa bizi genuen. Gainera, publikoki onartzea lortu genuen, udala eta eskualdeko agintariak egon zirelako. Alkateak barkamena eskatu zuen eta aitortza eman zion Manuelaren familiari. Eta hori oso sinbolikoa izan zen" (La Colectivako ekialdeko taldea).*

Jai herrikoiak ordezkaritza politiko eta sozial zabala izan zuen, jende asko egon zen inplikatur bere antolaketan, ospakizunerako elementu sortzaile eta artistikoz osatua egon zen eta familiak izan zuen protagonismoa. Marko horretan, **oroigarri gisa plaka bat** jarri zen herriko plazan, seme-alabekin batera eraikia. Familiak amaren benetako izena jartzea erabaki zuen eta duintze ekintza bat izan zen.

*"Alkatetzan plaka bat jartzeak mezu argia bidali zuen: hiltzaile bat zela zioen kasua okerra zen" (La Agrupacióneko talde psikosoziala).*

Egia da semeentzat ekintza garrantzitsua izan zela amari duintasuna eta aitortzea ematea komunitatean, baina uste zuten ekitaldi hori bultzada bat izan zitekeela Gobernuak bere aitortza-ekintza egin zezan, baina ez da halakorik gertatu.

*"Bai, gobernu estutzeko modu bat zen, zerbait egin zezan, baina azkenean ez da erantzunik egin eta ez dakigu egingo duen edo ez" (semeak).*

## 2.6. ERAKUNDE BULTZATZAILEENGAN ERAGINAK

Erreparazio-prozesu hori lagundu eta bultzatu duten erakundeek ikaskuntzak nabarmendu egin dira kapitulu honetan; hala ere, atal honetan nabarmendu nahi ditugu beren gorputzak prozesuan jarri dituztenentzat akonpainamenduak izan dituen inpaktu espezifikoak, bai eta akonpainamendua ahalbidetu duten egoerak ere.

Lehenik eta behin, El Salvadorko erakundeak dira, eta ibilbide luzea dute emakumeen eskubideen aldeko borrokan, eta, bereziki, intzidentzia politiko eta sozialeko kanpainekin, laguntza psikosozialekin, komunitarioekin eta nazioarteko auziekin... **Esperientzia** horri eta horrek dakarren antolakuntza-sendotzeari esker, prozesu horri ekin zioten. Ez da ahaztu



behar, bestalde, garrantzitsua dela erakundeetan konfiantza izateko lankideak izatea, ez bakarrik haien profesionaltasunagatik, baita emakumeen Giza Eskubideen aldeko borrokarako estrategia horiekiko duten uste osoagatik ere, prozesuaren etengabeko zailtasunen gainetik.

Gainera, aurretiazko lan horrek guztiak konfiantza-prozesuak sortu ditu hainbat eragilerekin, **aliantzak** sendotuz eta Manuelaren kasurako laguntzak ahalbidetuz, komunitatetik hasi eta nazioarteko erakunde eta instantzietaraino.

Prozesuak eta, bereziki, epaiak erakunde sustatzaileetan izan dituen **eragin positiboetan** arreta jarritz, nabarmendu behar da erakundearen barne-**indartzea** eragin duela, bai eta ondo egindako lanaren konfiantza eta gogobetetzea ere.

*“Barne mailan arrazoia genuela pentsatzea da. Borrokatu genuen horren alde, bagenekielako arrazoia genuela, kriminalizatuak zeudela. Horregatik diogu epai hori irabazi genuela”* (La Agrupacióneko lege eta komunikazio taldea).

*“Kasua zabaltzeko lan handia egin genuen, baina epaitegia izan zen erakargarri handiena eta epaiaren zain egotea ondo joan zen, ondo jaso zen. Festak egin genituen, eta, horrekin, guk bagenuen itxaropena epai horretatik zerbait ona aterako genuela. Dagoeneko irabazi genuen, guk irabazi genuen epaia”* (La Agrupacióneko lege eta komunikazio taldea).

Auzitegian bi epai (Manuela eta Beatrizen kasua) irabazi dituen erakundea izateak, Estatuak sexu eta ugalketa eskubideen inguruan nazioarte mailan duen erantzukizuna ezarritik eta bete dezan presio publikoa eginez, **sinesgarritasun soziala** ematen die. Epaiak ondare feministatzat jotzen dira, eta sexu eta ugalketa eskubideen defentsaren eta eskualdean abortatzeko eskubidearen genealogia feministaren parte izatera pasako dira.

Sinesgarritasun sozial hori familiarekin sortutako **sinesgarritasun eta elkarrenganako konfiantzaren** harremanetik abiatzen da, zeinak iraunkortasuna eman dion prozesuari, eta herrialdeko emakume erakundearen eta erakunde feministen rola baliozkotzen duen. Familiaren aburuz, beste pertsonen gomendatuko lieke haiekin kontaktatzea.

Arlo juridikoari dagokionez, Amerikarteko Auzitegiko epaiaren bidez balioztatzeak **sinesgarritasun juridikoa** ematen die erakundeei, eta, gainera, erreparatzailea da erakundeentzat berentzat.

*“Auzitegiak arrazoia ematea. Komunikazioari dagokionez, oso konplexua da hain zaila den hitz bati tokia ematea: larrialdi obstetrikokoak. Larrialdi obstetrikoei kanpaina bat egitea zaila da, eta Auzitegiak, Amerikarteko Sistema horrek gure kontzeptuari heltzen dio, azaldu egiten du eta baliozkotu egiten du. Hori eragin indartsua da. Erreparazioa ematen dizu, hor ematen ditugun urteak kontuan hartuta, arrazoia edukitzean justizia egitea da”* (La Agrupacióneko lege eta komunikazio taldea).

**Zilegitasun** horren isla da, halaber, justizia-prokuradoreek gomendioak ere eskatzen dizkietela akonpainamendua egiten duten elkarteei, erreferente bihurtu baitira esparru horretan. Era berean, hedabideek haiekin harremanetan jartzen direnean, prozesuaren eta epaiaren ondoren, beste modu batean entzuten dituzte, beren hitzari balio handiagoa emanez. Gainera, Behatokiak diskurtsoaren zilegitasun hori indartzen du, haien rola ez



baita epaiarekin amaitzen, baizik eta prozesuari jarraipena ematearen alde egin dute, epaia betetzearen jarraipena eginez.

*"Epai horrek tokiko erakunde batean duen eraginak leku zilegi batean jartzen zaitu, non kontuak eskatu eta iritzia eman baitezakezu, garrantzitsua baita jende horren ordezkaria izatea"* (La Agrupacióneko lege eta komunikazio taldea).

Txanponaren beste aldean daude prozesu horrek erakundeetan dituen **eragin negatiboak**. Alde batetik, eskubideen aurkako taldeen mehatxuak daude; agerikoena izan da erakundeak eta pertsona indibidualak jomugan jarri dituztela. Eta bestetik, Estatuaren aurka auzitan ibili direnek mehatxuen beldur dira, nahiz eta epaiak auzi-jartzaileen aurrean errepresaliarik ez izateko neurriak jasotzen dituen.

*"Ondorioak eta eraginak lana bertatik bertara egiteko moduan; izan ere, azkenean, emakumeak daude hor, gorputza jartzen inplementazioa gauzatzeko, eta horrek, giza eskubideen defentsaren bidez, nekatzen du, Alde horretatik, beti akonpainamendu psikosoziala lankideentzat eta defentsa hori egiten dugunontzat funtsezkoa dela uste dut, eta defentsaren ariketa hori modu integralean ulertzen dut ere"* (Centro de Derechos Reproductivos).

## 2.7. EPAIAREN INPLEMENTAZIOAREN JARRAIPENA

Prozesua ez da epaiarekin amaitzen, baizik eta familiari lagunduz eta epaiaren inplementazioaren **jarraipena eta monitorizazioa** eginez jarraitzen du. Epaia betetzearen jarraipena egitea garrantzitsua da erreparazio prozesu integral bat egiteko. Horretarako, prozesuan inplikaturako erakundeek bi maila argi ezarri dituzte:

Alde batetik, haiengan eragin zuzena dituzten elementuetan akonpainamendua egiten zaio familiari, hala nola osasunean eta hezkuntzan... eta betetzen ez diren alderdiak exijitzean.

*"Epaia inplementazioa lan bat izan da bere horretan, esango nuke hiruzpalau urte daramatzagu horretan. Lehenik eta behin, giza eskubideen urraketa larrien biktimei arreta emateko protokoloa aktibatu ahal izateko, Osasun Ministerioaren menpekora baita. Hori izan zen sententziatik hartu zen lehen urratsa, hau da, osasun-arreta integrala eta Estatuak familiari egiten zizkion ebaluazio psikologikoak. Eman zen bigarren urratsa hezkuntza-bekak eta hezkuntza suspertzea izan ziren, El Salvadorren malgu deitzen den modalitate batean, hots, hezkuntza-legearen arabera, gehiegizko adina duten pertsonentzat. Hori guztia intzidentzia lana izan da, noski, irekitzen joateko. Sinplea dirudi, baina ez da horrela. Hortik ateratzen da indemnitazioen ordainketa; hori beste negoziazio bat izan zen"* (La Agrupacióneko talde psikosoziala).

Bestetik, sententziaren betetzea modu argi eta agerikoan islatzen duen **behatokia** eraiki da, halako moldez non kontraloria soziala egiten den eta aldi berean herritarrentzat pedagogikoa den. Behatokiaren formatua oso irisgarria eta pedagogikoa da, eta epaiaren jarraipena herritarrei hurbiltzeko diseinatuta dago. Atal batean, Manuelaren auziaren epaia eta haren garrantzia azaltzen dira, eta beste batean, berriz, epaiaren betetze-maila neurtzeko adierazleak jasotzen dira, eta haien jarraipena egiten da.

Tresna hori eskualdeetan sozializatu da, eta bertako emakumeek berek kontrolatzen dituzte eskualdeetatik ezagutzen dituzten adierazleak. Intzidentzia politikoaren laguntza eta sendotzea da, eta izendatzen diren kontralaria sozialeko elementu horiek erabiltzen ditu.

*“Epaia ostean, monitorizazioa dago. Eskualdean ere emakumeak monitore bihurtu ahal izatea, emakumeak zain egotea eta neurria betetzen ari den esatea. Azkenengo ekitaldian emakumeek barkamena exijitzen zuten, bete ez den neurria. Manuelaren bizitza urratzeagatik gobernuaren barkamen publikoa. Estatuak ez dio publikoki barkamena eskatu Manuelaren familiari”* (La Colectivako ekialdeko taldea).

Ez da erraza izaten ari epaiari jarraipena egiteko informazio batzuk biltzea, Estatua ez baita horri buruzko informaziorik ematen ari. Neurri guztiak ez dela ari betetzen da horren arrazoia.


Behatokiak eraginak izan ditu, gobernuari deseroso egin zaiolako sententziaren betetze mailaren jarraipena publikoki egitea, horregatik gobernuak ez du informaziorik eman nahi jarraipen hori egin ahal izateko. Behatokiaren arabera, gogobetetze-neurrien 3 adierazleetatik 2 partzialki bete dira eta bat ez da bete; birgaitze-adierazlea partzialki bete da eta ez errepikatzeko bermeen 7 adierazleetatik 3 partzialki bete dira eta 4 ez dira bete. Gaur egun, oraindik ez da neurririk erabat bete.

*“Hemen, epaia betetzen amaitzeko eta testuinguruak maniobratzeko aukera eman diezagun ahaleginak egiten jarraitzea besterik ez zaigu geratzen”* (La Agrupacióneko talde psikosoziala).





# ONDORIOAK





# ONDORIOAK

Euskal Herritik El Salvadorrera, lurralde ezberdinetatik pasatuz, egindako banakako eta taldekako elkarrizketa luzeen ondoren, hainbat ondorio partekatu nahi ditugu. Hala ere, bertigoa ematen digu horrela deitzeak, ez baitute ezer ondorioztatu nahi. Istorio horiek eta aurretik ezagututako beste batzuek prozesuak luzeak direla eta indarkeria matxisten aurkako borroka bezalako esparruetan oraindik bide luzea dugula egiteko erakusten digute.

Hala ere, indarkeria ezberdinen bizirauleekin eta hauek lagundu dituzten taldeekin hitz egin ondoren, eta aurrean ditugun zeregin eta erantzukizunak asko direla argi eta garbi izanik, hainbat gogoeta partekatuko ditugu, indarkeria matxisten aurkako borroka modu guztiak konpontzeko bideak eztabaidatzen, aztertzen eta esperimentatzen jarraitzeko asmo soilarekin.

## PROZESU PARTE HARTZAILEAK

Dokumentu honetan aztertutako esperientzia desberdinak, prozesu parte-hartzaileak sortzearen eta prozesuan parte hartu duten eragileen aniztasunaren (bizirauleak, bizirauleen elkarteak, giza eskubideen aldeko kolektibo eta gizarte eragileak, mugimendu feminista...) alde egitearen garrantziaren adibide dira. Eragileen esparruan, ezin dugu ahaztu aliantzak kontuan hartu eta hauek ikusaraztea ezinbestekoa dela, prozesua indartu, babestu eta zilegitasuna ematen baitio.

Horregatik, parte-hartze hori modu aktiboan nola sustatu pentsatu behar dugu, parte hartzeko espazioak espazio bakoitzaren rola eta funtzioak argi eta garbi egituratuz (talde eragileak, kontraste-espazioak, laguntza-taldeak...). Era berean, espazio horietan erabili beharreko metodologiak diseinatzeko denbora eman beharko da.

Eragileak gonbidatzean eta partaidetza-egiturak eraikitzean, indarkeria matxisten kasuan, ezin dugu ahaztu emakumeen aniztasuna eta horien testuinguruak, izan ere, hori garrantzitsua baita kontuan hartu beharreko eta erantzun beharreko ahultasunak detektatzeko. Bizirauleei dagokienez, indarkeria-prozesuak oraindik irekita dauden kasuak bereziki zaindu behar ditugu, erreparazio-neurri posibleetan pentsatzeko zailtasun erantsia baitute.

Inplikatu beharreko eragileei dagokienez, komunitatearen rola nabarmendu da, indarkeria matxisten aurkako borrokan duen funtzio estrategikoagatik eta, aldi berean, testuinguru horretan kasu askotan agertzen diren zailtasun edo hutsuneengatik. Komunitatea aliatu bat izan daiteke, eragiteko edo beste rol batzuk hartzeko eragile bat, alegia. Nolanahi ere, garrantzitsua da argitzea, harekin landu beharreko ekintzak definitzeko.

Ildo beretik, erakundeekiko eta erakundeekin egin beharreko lana erreparazio-prozesuetan erabaki beharreko beste esparru bat da, kontuan hartuta, gainera, kasu askotan legezko erantzukizuna dutela. Aztertutako kasuetan, komunitatearen kasuan bezalaxe, haren rola aldatu egin daitekeela ikusi dugu, erreparazio-prozesuen bultzatzaile izatetik bizirauleen eskakizunak jasotzera edo rol espezifikorik ez izatera pasa baitira.



Interesgarria litzateke eragile horiek eta haien rolak berrikusi ahal izatea, bai eta esperientzia bakoitzaren arabera identifika daitezkeen beste batzuk ere, hala nola komunikabideak edo senideen elkarteak, adibide batzuk jartzearen.

Aztertutako esperientziek erreparazioaren kontzeptuaren konplexutasunaz hitz egiten digute. Teorikoki, eskubide soila dirudi, baina praktikan jartzerakoan ez da hain sinplea. Horregatik, pedagogia ezinbesteko elementua da prozesu hauetan, kontzeptuak, helburuak eta prozesua bera horretan argitzeko.

Feminismoek azken urteotan izan duten aurrerapen eta ikusgarritasun handiagoak gai horien aurrean presentzia eta jarrera handiagoa izatea ekarri dute, baina kasu askotan, gaiaren inguruko formazio politiko eta eztabaida falta izan da. Kontzeptu, ikuspegi eta estrategiekin ados jarri beharko ginateke: mugak, bermeak, eraso bat zer den, mailaketa, erantzunaren proportzionaltasuna, zapalkuntza-ardatzen eragina etab.

Prozesuaren ikuspegiaren arreta berezia jarrita, konponketari ekiteko hainbat ikuspegi artikulatzeko aukerari heldu behar zaio. Ikuspegia aukeratzeko (ez beti bakarra edo purua) eta praktikan jartzeko, adostasun kolektiboetara iristeko gogoeta, formazio eta negoziazio prozesu bat behar da. Argitalpen honetan aztertutako esperientzia batzuek ikuspegi antipunitibistetan arakatu dute, neurri batean, bizirauleak berriz biktimizatu edota erasotzaileak babesten dituzten esperientzia negatiboen ondorioz, beste askoren artean. Beste kasu batzuetan, estrategia juridikoa ezinbesteko elementua izan da eskubideak aldarrikatzeko. Eztabaida eta ikuspegi horiek itsasargi bat izan daitezke, erreparazioaren aldeko apustua egiten duten hainbat ikuspegiari heltzeko interesetik.

## **BIZIRAULEEN PROTAGONISMOA ETA ENTZUKETA**

Zer behar duzu? Bizirauleei zuzenean galdetzea eta haien agentzia eta protagonismoa aitortzea elementu argia izan da esperientzia guztietan. Horrela, bizirauleak erdigunean jartzeko apustu hau prozesu osoan zehar egon behar zuela balioetsi da, ez bakarrik erreparazio-eskaeren eraikuntzan edo espazio publiko edo sinbolikoagoen eraikuntzan. Emakumeak, eurak, prozesu osoaren protagonista gisa.

Aurreko kapituluetan deskribatutako esperientzietan, teoriatik bizipenetara igarotzeko eta erreparaziorako eskubideari buruzko praktika politikoa eraikitzeko apustua argi da, indarkeriatik bizirik atera diren emakumeen esperientzien eskutik betiere.

Prozesu hauetan, banakako kontakizunen kolektibizazioari indarra ematen zaio, beste batzuen testigantzak entzutearen edo banakako esperientzien bidez ahalduzte kolektiboaren potentzial sendatzailea dela eta.

Biziraule askok modu sakonean parte hartu ahal izan duten erreparazio-prozesuek sortzen duten ahalduntzeaz hitz egin digute. Prozesuak berez erreparatzaileak direla ere esaten digute. Prozesu parte hartzaileek eta bizirauleak protagonista diren prozesuek jabekuntza handiagoa sortzen dute, eta, gainera, haien aitortza sustatzen dute.

Erreparazio-prozesuen gaitasun ahalduntzailearen esparruan, azken urteotan indarkeria matxistei eta erreparazioari buruzko iruditerian eragina duten hainbat kontzepturen ibilbidea

aitortu da. Bizirauleak «zerbitzuen erabiltzaile» izatetik eskubideen jabe diren subjektu izatera igaro dira, eta biktima izatetik biziraule izatera, eta hortik, aktibista izatera doan bide kontzeptuala eta esperientziala aitortzen da. Hala ere, badakigu hausnarketa eta praktika asko geratzen direla egiteko, bai bizirauleen desira eta interesetatik, bai ingurunetik eta baita prozesuetatik bertatik ere. Bide desiragarria izan arren, maila indibidualean zein kolektiboan ahalduntzeari dagokionez, erreparazio-prozesuak denbora eta prozesu indibidualekiko errespetutik eraiki behar dira, inposizioz gabe.

## AKONPAINAMENDUA

Deskribatutako esperientzietan, bizirauleen eta prozesuaren beraren akonpainamenduaren zentralitatea etengabeko elementua da. Kasu horietako gehienek akonpainamendua politizatzeaz ere hitz egiten dute, honen gaitasun eraldatzailea dela eta. Hau da, esperientzia horien aldatzeko ahalmenaz jabetzea justizia sozialaren ikuspegitik, egiteko moduak ere, kasu honetan, laguntzeko moduak, eraldatzaileak direla ulertuta.

Aurreko kapituluek hainbat akonpainamendu deskribatzen dituzte, baina zaintza edo malgutasuna bezalako elementuak partekatzen dituzte. Akonpainamendu integrala, lehen aipatutako zaintzak barne hartzen dituena, hala nola emozioen kudeaketa, loturak sortzea eta konfiantza. Laguntza hori formatu askotan eman da, ohiko bilera edo topaketetan zein bestelako metodologiak erabiltzen diren guneeetan ere, non sinbolismoa, artea eta bestelako adierazpenak erabiltzen diren.

Akonpainamenduaren alor gisa, estrategia komunikatiboak eraikitzearen garrantzia nabarmentzen duten esperientziak agertzen dira, narratibak aldatzeko duten gaitasuna dela eta. Narratiba horiek kasu eta esperientzia zehatzetatik abiatzen direnean, enpatia handiagoz jasotzen dira, eta, horregatik, jendartearen iruditeriaren eta balio sinbolikoaren aldaketan duten eragina handitzen dute, erreparazio-estrategiaren alde eginez. Are gehiago egungoa bezalako testuinguruetan, gorroto diskurtsoak, diskurtso antifeministak eta eskubideen aurkako diskurtsoak hain presente dauden garai honetan.

Akonpainamenduaren onurak hain dira nabarmenak prozesu hauetan, ezen alderdi guztiei laguntzearen garrantzia ere sortzen baita, eta, ildo horretan, erasotzaileei laguntzeko zailtasuna sortzen da. Prozesu gutxitan ematen ari da laguntza hau, eta elementu hori ere estrategikotzat ageri da, ez haiek erdigunea direlako, emakumeak haiek direlako protagonistak, baizik eta prozesuek berauek berme handiagoa izan dezaten.

Akonpainamendua funtsezkoa da, eta horretarako formazioa behar da, bai eta horretarako behar diren trebetasunez jabetzea ere. Zentzu horretan, ezinbestekotzat jotzen da erakundeek, elkarteek eta erakundeek tresnak izatea, gutxienez, indarkeria gehiago erreproduzitzen ez duen sentsibiltatea sustatzeko, baita indarkeria matxisten aurrean prozesuak babesteko ere.

Formazio eta ikasketa estrategia gisa, berrelikadura, kanpoko feedbacka eta prozesuetatik elkarrekin ikasten lagunduko diguten beste begirada batzuk izateko beharra agertzen da. Feedback kultura eraikitzen lagunduko duen berrelikadura maitasunetik egina, horrelako prozesuak laguntzen eta kudeatzen dituzten pertsonengan.



Azken elementu aipagarri bat itxitura da. Esperientzietako batean esaten ziguten prozesuaren hasieratik egon zela presente “Noiz arte lagunduko dugu?” galdera. Horri erantzutea erronka bat da: bizirauleen ongizatea lortu arte, eskakizunak bete arte, erreparazio soziala eman arte... erantzunak mugagabeak dira. Prozesu luzeak eta, une askotan, prozesu gogorrak izanik, iraupenari buruzko itxaropenak eta aukerak partekatzea aipatu beharreko elementua da afera hau berrikusten joan dadin. Gainera, amaiera bat zehazteak ez du esan nahi parte-hartzaileen ongizatea, eskaera batzuen jarraipena edo adosten diren beste elementu batzuen aldian-aldiko berrikuspena egiteko aukera desagertzen denik.

## **ERREPARAZIO ESKAKIZUNEN ERAIKUNTZA**

Erreparaziorako eskubidea zer den ulertzea, zer inplikatzeko duen ulertzea eta, batez ere, bizirauleentzako erreparatzailea zer den ulertzea, maila indibidualean zein kolektiboan, aztertutako esperientzia guztien beste gogoeta protagonistetako bat izan da.

Esperientzia desberdinek erakutsi digute erreparazio-eskaerak eraikitzeke prozesu hori erreparatzailea ere izan daitekeela berez: indarkeriek beren bizitzako hainbat eremutan dituzten inpaktuak berrikustea, haien konplexutasuna, premiak eta erantzuteko aukerak ikuspegi horretatik ulertzea.

Halaber, errezetarik ez dagoela ere ikusi dugu, erreparazio-eskaerak indarkeria matxisten biktimak eta bizirauleak bezain anitzak izan daitezkeela, alegia. Ildo horretan, erreparazioaren osagaiak ikuspegi pedagogikotik berrikustea eta beste batzuentzat erreparatzailea zer izan den jakitea baliagarria izan daiteke, betiere argi utzita ez dela ez errezeta liburu bat, ezta erantzun finko edo bakar bat ere.

Aurreko orrialdeetan laguntza psikologikoaz, kalte-ordain ekonomikoez, entzute publiko eta instituzionalaz, formakuntza-prozesuez, erakundeen praktika eta araudietan aldaketak eskatzeaz, kontakizunaren kontrolaz, sostengu kolektiboaz, ekintza sinbolikoez, adierazpenez, komunikatuez, osasun eta hezkuntza neurriez, erasotzaileentzako terapiaz, errekonozimendu publikoaz, ospakizunez eta abar luze batez hitz egin digute. Kasu guztietan ikuspegi integral bat proposatzen da, non eskaera fisikoak, psikosozialak, juridikoak, ekonomikoak, moralak edota komunitarioak jaso daitezkeen.

Baina enfasi komunik handiena eskaera horiek eraikitzeke orduan biziraun dutenengan arreta jartzearen garrantzian aurkitzen dugu, ez soilik indarkerian edo indarkeria egin duenarengan, baizik eta haiek behar dutenarengan, estereotipo edo erantzun «egokiak» ezabatzen saiatuz. Esparru horretan, azpimarratu behar da ikerketa honetako esperientzia guztietan ez errepikatzeke bermeak beste elementu komun bat izan direla, eta bizirauleek ahalegin handia egiten dute haiek bizi izan dutena besteei gerta ez dakien.

Askotan ez dugu erreferentziarik jakiteko zer eska daitekeen eta zer ez, ohituago gaudelako prozesu judizial batek eta epaile batek erabakitzen duten esparru batekin. Ez dakigu, ordea, bizirauleak eurak demandak eraikitzeke prozesuaren liderrak izan daitezkeenik eta prozesu horiek nolakoak izango daitezkeen. Lehen esan dugun bezala, adibide posibleak emateak zer errepara dezakeen irudikatzen laguntzen du, baina beti karga moralik eta hertsapenik gabe, inposiziorik gabe, ezer ez da hobe edo okerragoa, eta, gainera, eskaera bera alda daiteke prozesua kokatzen den tokiaren arabera.

Halaber, erronka bati aurre egin behar zaio: erreparazio-eskaeretan eskaeren mugei buruzko eztabaidari ekitea, proportzionaltasunari, zigor-tresna gisa erabiltzeari, mendekua prozesatzeko espazioen balizko beharrari, eskaera batzuei laguntzeko gaitasunari eta abarri dagokienez. Hori guztia, eskaerak nondik egiten diren xehatzeko eta ulertzeko zailtasunetik abiatuta. Era berean, konponezinak diren inpaktuak daudela aztertzea eta lantzea ere ezinbestekoa da.

Beraz, ikuspegiaren eta arestian aipatzen genuen prozesuaren definizioak, kasu bakoitzean lagundu nahi den edo lagundu daitekeen hori definitzen lagunduko digu.

Ezin dugu ahaztu, hortaz, eskaerak identifikatzearekin batera, horiek lortzeko estrategiak eraikitzea ere badagoela, eta estrategia horiek, hainbat esperientzian ikusi dugunez, askotariko bideak izan ditzaketela, hala nola laguntza emateko moduak, erakundeen arteko artikulazioa, auzi estrategikoa, tokiko eta nazioarteko aliantzak edota ekitaldi publikoak edo eragin politikoa, besteak beste.

Estrategia horietan aztertu behar da zeintzuk diren eskaerak eta nori zuzentzen zaizkion (biziraulea, indarkeria erabili duena, erakundeak, komunitatea...). Prozesu horietan, behin eta berriz, komunitate espazioak duen garrantzia azaleratu da, funtsezko eragile baita eragin handiagoko eskaerak sortzeko orduan. Gainera, aliantzak eraikitzeko edota komunitateek indarkeria matxisten aurkako prebentzioan eta borrokan duten erantzukizuna beren gain hartzeko gune bihur daiteke.

## MUGAK ETA ESPEKTATIBAK

Partekatutako beste ikaskuntzetako bat espektatibak eta mugak definitzeko beharra izan da, bai akonpainamendu edo laguntza taldeenak, inplikaturako pertsonenak (baita eraso egin dutenenak ere), bai prozesuarenak berarenak ere. Prozesua noraino irits daitekeen argitu behar da, are gehiago, eskubideen atzerakada, prekarietatea edota indarkeria matxista bera zalantzan jartzen duen testuinguru batean.

Kasu gehienetan, prozesu luze eta gogorrak dira, eta baliabideak (denbora, pertsonak, dirua...) eskatzen ditu, baina, jakina, merezi du. Esparru horretan, garrantzitsua da zailtasunei (uko egiteak, gatazkak...) komunikaziotik eta moldagarritasunetik heltzea, eta, bereziki, aldeeneke uneetatik. Prozesu horiek nekagarriak izan daitezke, batez ere protagonistentzat, eta amore emateko gogo sor dezakete. Aldi berean, baina, elementu askatzaileagoetan aurrera egin daiteke, eta horri guztiari akonpainamendutik eutsi behar zaio.

Esparru horretan, erronka bat detektatu da: erreparazio-eskaeren betetze-mailaren ebaluazioari nola heldu, hainbat prozesutan agertzen den mugetako bat den aldetik, nola eta noiz neurtu betetze-maila. Are gehiago, ez errepikatzeko bermea eskatzen den eskakizunetan. Oso konplexua da, beraz, zertan gauzatuko litzateke? Zelatatzea bezala litzateke? Nor arduratuko litzateke? Zer berma daiteke akonpainamenduetatik?

Hauek guztiak akonpainamenduaren eraikuntza prozesuan argitu eta partekatu beharreko elementuak dira.



## ERAGINAK

Amaitzeko, ondorio hauetan eta testuan zehar ikusi dugun bezala, prozesu hauen apustua indarkeria matxistek indarkeriaren biktimengan eta bizirauleengan dituzten inpaktuak ulertzea eta jorratzea izan da. Betiere, modu konplexuan. Inpaktu horiek fisikoak, psikosozialak, ekonomikoak, politikoak, legezkoak, kulturalak edo mediatikoak izan daitezkeela ere hausnartu da.

Prozesu guztiek bizirauleak erdigunean egon daitezen apustu egiten dute, protagonistak izan daitezen. Horrela, prozesuak kontu handiz eta erabakitasunez hurbiltzen dira indarkerien eraginetara, ongizatearen bilaketan ez ezik, ahalduntze indibidual, kolektibo eta politikoaren bilaketan ere.

Esparru horretan, inpaktuak ez dira soilik bizirauleengan nabaritzen. Inplikaturako erakunde eta entitateengan ere sumatzen dira, aliantzak sortzeagatik, legitimitatea sortzeagatik... Komunitatearengan, modu zabalean ulertuta, ere eragiten dute, interpelatuta sentitzean erantzuteko aukera izateaz gain, beste batzuen indarkeriak jorratzen direnean sendatzeko aukera ematen baitu. Ikusi dugunez, prozesu horiek sustatzaileen espektatiba gaituzten aldaketak eragin ditzakete, hala nola bizirauleen memoria duintzen duten iruditeria berriak sortzea edo nazioartean erreferentziazko araudia eraikitzea, beste askoren artean.

Horiei guztiei esker, argitalpen hau zure eskuetan dago orain. Bakoitza bere rol eta erantzukizunarekin, euren parte-hartzeari, presentziari, sendotasunari, indarkeria matxistei aurre egiteko "ausardiari", akonpainamendu prozesuetan duten maitasunari... esker.

Eskerrik asko guztioi.

*Kontakizun propioa eraikitzea, narratiba kolektiboa, taldearena eraikitzea, oso garrantzitsua izan zen. Batzuek esaten zuten, elkartzea, partekatzea, eraikitzea, kontakizunak elkartzea erreparatzailea izan da.  
(Kintsugi esperientzia)*









Argitalpen honek indarkeria matxisten erreparazio-prozesuen aniztasunera hurbiltzen gaituzten erreparazio-esperientziak biltzen ditu. Zer pertsona edo eragile egon daitezke edo egon behar dute murgilduta? Nola eraikitzen dira erreparazio-eskaerak? Noiz hasten da eta nola amaitzen da erreparazio-prozesu bat? Galdera hauek eta beste batzuek elkarren artean oso desberdinak diren lau esperientziaren analisia gidatu dute eta indarkeria matxistak erreparatzeko bideak bilatzera goazenerako, ekintza-aukerei buruzko begirada zabala eskaintzen digute.

Erreparazio-esperientziak ezagutzea, haien asmakizun eta akatsekin, egindako bideak nabarmentzeko eta oroitzeko apustua da, baita prozesu berrietarako funtsezko elementuak eskaintzeko ere. Indarkeria matxistek gizartearen esparru guztiak pitzatzen badituzte, erreparazioa orbaintzeko bidea da.



**mugarik  
gabe**

